


Ramon Artola

Ipuiak edo kontutxoak (I)



9330

GAS-128/85-1



Ipuiak edo kontutxoak (I)

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Ramon Artola

**Ipuiak edo
kontutxoak
(I)**

1896-eko urtean Donostian

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-20-8 (Idazlan Osoa)

ISBN: 84-89080-18-6 (I. Tomoa)

Legezko Gordailu: S.S. 448/95

Ramon Artola Larrañaga

RAMON Artola Larrañaga Tolosan jaio zan, 1831-ko abuztuaren 31-an.

Aita, Jose Antonio, Astigarragakoa zuan; ama, Maria Antonia, Tolosakoa.

Aitaren aldeko aiton-amonak, Bernardo Artola eta Maria Migel Etxeandia, biak Astigarragakoak ziran; amaren aldeko aitona, Santos Larrañaga, Tolosakoa; amona, Maria Gamuza, Plazentziakoa.

Ez dakigu noiz eta nola joan zan Ramon Artola Donostira bizi izatera. Baiña gazterik, ziur asko.

Ogei ta zazpi urterekin ezkondu zan, 1858-ko azaroaren 23-an, Donostiako San Bizenten. Andre-gaia, Manuela Elizetxea zan, Lezon jaioa eta Donostian aberats batzuen etxean serbitzen zegoana. Orduko berri ez dakigu, baiña gero beintzat oso emakume lodia omen zan, eta pixua ainbat grazi eta gatza zuana. Arengandik ekarri omen zuan bere umorea Pepe beraren semeak.

Bost seme-alaba izan zituzten: Ramon, Frantzisko (Pako), Jose (Pepe), Manuel, zortzi urterekin illa, eta Rosario.

Pepek bertso asko moldatu zituan. Baita antzerki eta ipui batzuk ere. Rosario ere bertso gintzan saiatu zan.

Karlisten bigarren gerratean, aita, Ramon, libe-
ralekin ibili zan, *voluntarios* deitzen ziranetan.

Bere ofizioz *linternero* eta *pintorea* zan. Tallerra
eta denda *Puyuelo* kalean zeuzkan; gaur *Fermin*
Calbetón. Semeak aitaren ogibidea segitu zuten.

Azken egunetaraiño lanean jardun zan. Biotzetik
gaixotu eta elizakoak artuta, silloi batean il omen
zan, arnasa artu eziñik, seme-alaba eta billoba
guziak inguruan zituala, 1906-ko abuztuaren 20-
an, irurogei ta amabost urte betetzeko amaika egun
falta zituala.

A. Z.

Oar batzuk

AUSPOA Liburutegi onek Ramon Artolaren eskutik ekin zion bere bideari. Gure leenengo zenbakia aren bertso liburu bat izan baitzan, *Sagardoaren graziya* izenarekin.

Baiña oso jartzaille ugaria izan zan ura. Orregatik, bertso guziak ezin eta aukeraketa edo *antologia* bat eskeiñi bear izan genon irakurleari.

Gaur ere aren bertsoekin gatoz. Baiña oso bereziak dira oraingo auek. *Ipuiak edo kontutxoak* ditugu, liburuaren izenburuak dionez; baiña bertsoegintzaren legeetan moldatuak, eta bukaeran erakuspen bat izan oi dutenak. Erderaz, *fábula* edo *apólogo* izenarekin ezagutzen dana, alegia.

Literatur jenero au olerkariaren iduripenean sortutako kontakizun labur bat da. Ori adierazteko, *ipui* itza erabili izan da aspalditik euskeraz. Ortik Artolak bere sorta onentzat pentsatutako izenburua ere.

Jakintsuak diotenez, ipui edo *fabulak* India aldean asiera izan zuten. Urrena, Greziako Esopok jorratu zuan gai ori. Ondoren, Erromako Fedrok. Erdi Aroan, berriz, jarraitzailleak Europa guzian sortu ziran.

XVII mendean, ipuigille oparoa eta ospetsua izan zan La Fontaine Frantzian. Gazteleraz, berriz,

Iriarte eta Samaniego ditugu, XVIII mendean goi maillaraiño igo ziranak. Leenengoa, euskal abizena zuana, baiña Kanariasetan jaioa. Bigarrena berriz, Arabako Laguardian mundura etorria, eta Euskal Erriarekin artu-eman bereziak beti izan zituana.

Oien denboran oso modako jarri ziran ipuiak. Orregatik, zer arriturik ez du mugimentu arek gure artean ere bere eragiña izan bazuan. Ala, emen ere ipuigille saiatuak sortu ziran. Adibidez: Bidasoaz iparraldean, Archu; Bizkaian, Zabala; Gipuzkoan, Iturriaga.

Zerrendatxo ori geiago luzatu ditekela dudarik ez da. Besteak beste, gaur izen berri bat erantsi nai diogu: Ramon Artola.

Onen ipuiak, danak ez bada ere asko beintzat, *Euskal Erria* aldizkarian ikusi zuten argia. Aren zenbakietan noiznai agertzen ziran beraren lan oiek.

An, ordea, sakabanatuta dauden ezkerro, ez du ematen liburu bat osatu aal izateko mordoa egin lezatekenik.

Baiñan Ramon Artolaren ondorengoak, urre puska balitz bezela gorde dute beren aurreko ospe-tsu orren esku idazki bat, leenengo orrialdean onela diona: *Ipuiak edo kontutxoak. / Beraren egillea / Ramon Artola. / 1896'eko urtean izkribatua / Donostian.*

Berak ondo zekian, beraz, idazlantxo oiekin liburu mardula egiña zuala. Argitaratu ere gustora egingo zuan arek, artarako modurik izan balu. Bere esku idazkia artarako prestatu zuala ere, txeetasun batek garbi asko salatzen du: irakurleari zuzendutako itz aurrea ere erantsi ziola aurretik.

Arek beren denboran ezin izan zuana, guk atsegiñez egiten degu, ia eun urteren buruan: lan eder ori argira ematea alegia.

Baiña, esan bezela, bi iturri genituan: beraren esku idazkia eta *Euskal-Erria* aldizkaria. Oietako zeïni kopiatsu? Esku idazkitik artu bearrak zirala dudarik ez da. Orri oiek, izan ere, Artolak bere eskuz idatziak dira asi eta buka; eta iñoren eskua ez da or ibili itzak aldatzen.

Euskal-Erria ortan an eta emen itz batzuk aldatuta baitaude. Baiña aldi gutxitan. Gaiñera aitatzetik merezi ez duten aldaketak dira. Orregatik, ez ditugu liburu ontan ezartzen.

Baiña esku idazkian, kopiatzerakoan utseginda-edo, lerro batzuk falta dira iru edo lau bat aldiz. Utsune oiek betetzeko, *Euskal-Erria*-ren testoaz baliatu gera.

Ipuien bukaeran, *Euskal-Erria*-k noiz argitaratu zituan adierazten da. Baiña, leen esan degunez, orrek ez du esan nai aldizkari orri kopiatsu diogunik, esku idazkiari baizik.

Ala ere, *Euskal-Erria* erabiltzerakoan, esku idazkian ez dauden ipui batzuk arkitu ditugu. Oiek onako auek dira; *Arranoa eta belea, Azariya eta arkakusoak, Fortuna eta deserakida edo diskordiya, Txerriya eta bere bi umeak, Astoa eta katamotza, Gitarraren lokarria eta Erriotxo.*

Beste bat, *Liburu saltzalle bat eta tximubak izeneko*, onako liburuska ontan arkitu degu: *Euskal-Festak Donostian / Oroimengarria, 1885*. Oroimengarri auetan argitaratuak zein diran ere adierazi degu ipuien bukaeran.

Ipui auek ez dute, beraz, esku idatziarekin zer ikusirik. Ez dira aren orrietatik kopiatsuak. Bere bilduma ortan kopiatzea aaztu egingo zitzaion Artolari.

Oietaz gaiñera, bere lekuan osterasango degunez, *Itz neurtuak* izeneko bost bertso ere arkituko ditu emen irakurleak, esku idazkian falta diranak. Bertso oiek, izan ere, Ramon Artola nola-

koa zan agertzen digun marrazki baten ondoan arkitu ditugu. Marrazki ori emen azaldu nai izan degu noski; eta, berarekin josita dauden ezker, bai bertso oiek ere.

Sari batzuk irabazi zituan Artolak bere ipuien bidez: *Premio Extraordinario* esaten ziotena, Donostiak garai artan urtero antolatzen zituan literatur sariaketetan edo *Juegos Florales Euskaros* izenekotan, 1885 eta 1886-an. Baita urrezko medalla ere Durangon, 1886-an. Eta geiago ere bereganatuko zituan arek, ziur asko.

Sariketa oietan gailen ateratako idazlanekin liburuska bat argitaratzen zan ondoren. Ramon Artolaren ipui batzuk ere or agertu ziran. Olakoak zein diran ipuien bukaeran adierazi degu. Baiña ez ortik kopiatu ditugulako. Esku idazkia izan da gure iturria, leen esandako aldietan izan ezik.

Artolak bere burutik sortzen zituan ipuietarako gaiak edo argumentuak. Guziak bearbada ez, baiña bai geien-geienak. Ara nola esaten dion berak irakurleari bere itz aurrean: "...asi bañan len agerkaitzen diot arkituko dituala, gañerako ipui berri txar edo nolabaitekoen artean, amabiren bat osoro berriak ez diranak..." Eta oietxek zein diran urrengo lerroetan adierazten du. Ipuigille askok bestek asmatutako gaietaz baliatzen baitziran.

Ramon Artolaren izena etzegoan gure ipui idazleen taldean sartua. Baiña meritu asko ditu ospe ori bereganatzeko. Aren ipuien argitalpen onekin ori lortzen badu, *Auspoa* liburutegi onentzat poz aundia izango da.

A. Z.

Poetas Vascongados



Ramon Artola

Marrazki au *El thun thun* aldizkarian azaldu zan, 1894-VI-14-ean, Artolak ia irurogei ta iru urte zituala. Bere eskuko paperak *Ipuiak* du izena. Liburu onen gaia, alegia. Ipui egilletzat aitortua zegoan, beraz. Marrazkilariazen izena beean ageri da: *Iraola*. Biktoriano Iraola euskal idazlea, dudarik gabe.

Itz neurtuak

Paper ontan da nere
itxura azaltzen,
bakoitza dute amar
zentimoan saltzen;
laster asiko dira
gustatuta artzen
dutenak, marko urrez
doraturan sartzen,
eta txintxillik gela
apañetan jartzen.

Bizarra daukalarik
zuritzen asiya,
esango dute: “Ez da
gizon itsusiya;
au da fabrika aundin
bateko nausiya,
edo diputadun bat
talentuz jantziya;
gogoratzen naiz nonbait
nik au ikusiya.

Ezagun da, bai, dala
kaballero fiña,
ongi tintatzen egin
dute alegiña;
erreturatu ona da
bañan lan ariña,
gizon modu onentzat
ez da bera diña,
bear zuben lauki(1) bat
oleoz egiña”.

Nork esan nintzanikan
iñoiz argirako?
Nindutenik txikiya
goi mallan parako?
Katuba pasatzen da
erbiya dalako,
ni ere iya ala
uts bat naizelako,
non ez detan balio
pipa bat tabako.

Nola ederragoak
ez diran beste lau,
argatik nonbait emen
norbaitek para nau;
bada ontaz grazirik
egiten ez bainau,
lotsatzen naiz, egunak
jiratu bitez gau,
gorde dedin zokoan
itxura nere au.

RAMON ARTOLA

(1) *El thun thun* aldizkariak oarraren deia egiten du emen, baiña gero orrialde barrenean oarraren adierazpena jartzea aztu. *Lauki* itz orrek *cuadro* esan nai duala jakin araziko zuan.

Itz aurrea

IRAKURLARIRIK arkitzen bazaio lan oni, eta batez ere au bear ain pazientzia duanik aurrenengotikan azkenerañoñ irakurtzeko, asi bañan len agerkaitzen diot arkituko dituala, gañerako ipui berri txar eta nolabaitekoen artean, amabiren bat osoro berriak ez diranak; da esatea, zerbait gutxi asko irurizten diranak beste lenaz diran kontutxoetara, oetakoen artean zeintzuk diran batzuk *Artza eta lapurrak, Katamotza eta otsoa, Astoa eta jabeak, Azari setosoa, Kurrilloak eta olloak, Arbola eta arrosa, Erlejuba eta gizona* eta beste banaren batzuek, iya berenez zeintzuk diran ezagutzen diranak. Liburu onen moldatzalleak egin du lan au ondar aletxo batez beren lagun egiteagatik gure izkuntza gozo euskerari, berari donekidatzen dion amorio beroagatik, ezer beste goitiritzi gabe, zeñetarako ostu bear izandu diozkan ez ordu gutxi loari; ala berean jakiñik arkituko dirala lan onetan asko utsegite; berak kerizatzeaz beste gabe gozoztuko da egillea, zeña dan guzien nai guzirako betiko serbitzari:

RAMON ARTOLA

Astoa eta tximuba

Biyak zuten nagusi
bat merkataria,
ibiltzen zana beti
periyaz periya.
Eltzez kargaturikan
joaten zan astoa,
janaz belarra eta
noizik bein lastoa.
Tximubak komeriyak
zituben egiten,
jendeari par asko
zion eragiten.
Gazta eta gaztañak
baitzituben jaten,
eta bide guziyan
fumatzen zan joaten;
ala zijoazela
bein bide batean,
zutela nagusiya
zerbait apartean,
tximu txar petralari
zitzaion burura
tentatzen astekoa
asto umil ura.
Eta galdeturikan
astoa zertan zan,

ura bezela tximu
zertan jaio etzan,
erantzuera eman
zion segiruban,
astook ere bear
zirala munduban.
Berak zeukala bada
berak sobra pena,
astoaren orde ez
tximuba izana.
Gero galdetu zion
dantzatu nai zuben,
dantzatuko zirala
biyak, nai bazuben.
Esaten bazizkan ark
itz bi belarriyan,
dantzan asiko zala
grazi txit aundiyan.
Oni erantzun zion,
jolas ona bazan,
adituko ziola
zer nai zion esan.
Ontan tximuba joanik
belarri batera,
zigarro punta bota
zion barrenera;

eta jarri zanean
tximiniya ketan,
astoa zan arrantzaz
dantzan asi bertan.
Lau anak altxatutzen
zituben batean,
baziruriyen joan nai
zubela aidean.
Bera zan tronpetero
ta bera dantzari,
gabriolak egiten
zituben ugari.
Bañan alako batez
leer egiñik oso,

anka batekin zuben
egin estropozo;
eta eroririkan
kargazoi ta guzi,
an zituben gañeko
eltze denak autsi.
*Onek erakusten du
jostallu diranak
laguntzat kontatzeko
ez dirala onak.*
*Eragiñazo nairik
txorakeriz parrak,
ekartzen dituztela
askotan negarrak.*

Euskal-Erria, XII, 1885.

Azariya, zakur jantziyan

Azariyak mozturik
atzeko isatsa,
nai izan zuben artu
zakurraren antza.
Ala onen larrubaz
estalirik ongi,
ollo usaian joan zan
basarriz basarri.
Sarri usandurikan
bat biziro ona,
itzegiteko zuben
billatu gizona,
zeñari esan zion
miñez egon zala,
eta lur aldatzera
zijoala ara.
Bada baldin bazuben
ark gustoa ala,
beraren serbitzari
geldituko zala.
Gizona arkiturik
eraro itz artan,
geldi zedilla bada
bertan, zion esan.
Etziran zortzi egun
pasa geldituta,

non asi zan nabaitzen
egaztien palta.
Geroz etzan egunik
etzanik bat galtzen,
da esatea andik
ollorik paltatzen.
Ontaz kejurikan
zegoala gizona,
zakurrari otsegin
zion beregana,
esanaz: “Zertan ez dek
egiten zaunkikan?
Ire zaunkik ez diat
aitu oraindikan”.
“Jauna —erantzun zion—,
ez nezake egin
zeren detan oraindik
artzen aboan min”.
“Egin zak —esan zion
bigarrengo txandan—,
zer zaunka modu dekan
nik jakin dezadan”.
Orduban zan zaunkaka
zakur ura asi,
bañan zaunkatzat zuben
egiten: *ki, ki, ki.*

Onetan igarririk
etzala zakurra,
ezpada azariya
eta bera zarra,
mugitu zan gizona
makillaren billa;
bañan azari zarra
izanik abilla,
ankartetik pasata
asirik igasi,

etzan aren pintikan
geiago ikusi.
*Onek erakusten du
serbitzari txarrak
dirala ondatzeko
askotan baztarrak.
Nor dan begiratzeko
ongi aurrenean,
penaz arki ez dedin
bigaramonean.*

Euskal-Erria, XII, 1988.

Zaldiya, gizona eta astoa

Zaldi bat maite zuben
bere nagusiyak,
zeren osatzen zizkan
naiera guziyak.
Ongi jaten zuben ta
etzuben nekerik,
nagusiya gañean
eraman besterik.
Bein onek joan biarrik
erbeste batera,
kaja diruba zion
eman bizkarrera,
esanaz: "Eraman zak
au nere tokiyan;
ni oñez bakarrikan
joango nauk mendiyán".
Segiduban asi zan
zaldiya kejatzen,
zeren zuben karga ark
ondotxo nekatzen.
Iritxi ziranean
lenengo errira,
zaldiyak, gizonari
jarririk begira,

esan zion: "Ez det nai
aurrera segitu;
onla joatekoz nai det
bertan nik gelditu.
Gu ez gera jaiok
kajaz kargatzeko,
ezpada nagusiya
gañean artzeko".
Ontatik asirikan
gogor ez-baietan,
aspertu ziranean
biyak erriyetan,
justizi billa ziran
joan juezagana,
zeñen zan asto zar bat
an juez zeguana.
Eta onek lenengo
aiturik biyari,
kopeta beltzez zion
esan gizonari:
etzala karga ura
zaldiyarentzako,
eta kajaz ez berriz
ura kargatzeko.

Aurrera joan etzedin
zaldiya nekean,
berak artu zezala
kaja bizkarrean.
Eta arekin igo
zedilla zaldira,
segitu zezan joan nai
zuben alderdira.

*Onek erakusten du
tontoakgandikan
ez ditekela artu
lezio onikan;
oek jartzearekin
juez ta alkate,
izango dala beren
mendekoen kalte.*

Euskal-Erria, XII, 1885.

Zakurra eta euliya

Zakur gaizto-gaizto bat
urgulloz jantziya
zan mendeko zituben
guziyen nausiya.
Iguar zan non piztiyak
ala egaztiyak,
kulpik gabe zatitzen
zituben guziyak.
Bein oietako asko
bildurik batera,
euli tzar bat zan denen
erdira atera,
esanaz: "Iñork ere
artu gabe miñik,
denen partetikan gaitz
egingo diot nik.
Nerekin daukat ongi
zorrotuba lantza,
seguru du gaurdandik
izango mengantza".
Ala segiran joanik
zakur txarragana,
arkitu zuben lotan
lurrean etzana.
Eta zulaturikan
gogor ezpañean,

jarri arazo zuben
lau anken gañean.
Andikan joan zitzaion
gero bizkarrera;
eta zakurrak ezin
zubela atera,
ixillik zion onek
esan mutil bati:
"Kendu nazak euli txar
ori bizkarretik.
Bañan ez, ez, ez kendu
bizkar gain orretan,
makillarekin jo ta
akaba zak bertan".
Ixillik esan arren
aiturik euliyak,
prest paratu zituben
bere ego biyak.
Eta jotzeko altxa
zanean makilla,
euliya joan zan andik
leku obe billa.
Orduban azpikoak
"Ez jo!" zion esan;
baña makilla nola
ordurakoz an zan,

kolpe artaz egiñik
bi puska egurra,
gelditu zan kostillak
autsita zakurra.
*Onek erakusten du
gaiztoa danari*

*gaitz egin naia sortzen
zaiola denari.
Eta indarrez naiz ez
izan zenbait gauza,
moldatutzen dirala
egiten mengantza.*

Euskal-Erria, XII, 1885.

Zakurra eta otsoa

Ardi zakur eri bat,
zarra ta argala,
mendiyan ganaduen
kontuban zeguala,
otsoak albotxora
joanik zion esan
emateko ganadu
kaskar bat jan zezan;
goseak zebilela
zenbait egunean,
eta ura eskatzen
ziola onean.
Eta zakur argalak
ikustean ala,
indarrez bera bañan
geiagoa zala,
izuturikan bera
itota zezan jan,
zion artzeko bada
kaskartxo bat esan;
eta ala otsoak
ganadu batekin
zuben pozez alderdi
artatik aldegin.
Andikan geroago
denbora gutxira,

berriz zitzaion otso
zar aundiya jira;
eta egiñik lengo
eskaera bera,
bere jankaiarekin
joan zan baztarrera.
Bañan beste bein lengo
gisan zanean joan,
zakur aundiago bat
zuben billatu an;
eta asi zanean
ganaduba artzen,
edo zintzurretikan
ortz zorrotzak sartzen,
zakurrak itsatsirik
bere letagiñak,
atera zizkan tripan
zeuzkan gose miñak.
*Besteren bizkarretik
nai dubenak bizi,
ez baitu bear azken
onikan ikusi;
ez da nai dana beti
egitea aski,
zuzen ez dabillena
irtengo da gaizki.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Gabirabaren eiza

Begi zorrotzarekin
egonik zalantzan,
zozo baten ondoren
gabiraba joan zan.
Eta arrapaturik
jankai eder ura,
mokazo batez zion
puskatu buruba;
ta zeramala gero
jateko, aidean,
txori txiki bat zuben
topoz jo bidean;
eta berriro kolpe
tirarik berari,
utsegin da zozoa
zitzaion erori.
Segiruban jatxi zan
gabiraba beera,
sasiyan gelditu zan
zozoa artzera;

bañan trabaturikan
bera sasi artan,
irten eziñik preso
arkitu zan bertan.
Len zana libre eta
zozoaren jabe,
gelditu zan preso ta
zozorikan gabe.
Ala zegoala trantze
estu artan umil,
eiztari batek zuben
tira ta bertan il.
*Maiz da gure artean
gertatzen au beera:
goragi igo nairik
erortzea beera.
Nai dubenak beretzat
bakarrik guziya,
galtzen ditu askotan
dena ta biziya.*

Euskal-Erria, XII, 1882.

Ardiyak eta legoia

Ardiyak kejaz ziran
joan legoiagana,
esanaz: "Justiziya
nai genduke, jauna.
Otsoak iya gure
artalde guziya
jan dute, eta egin
beza justiziya".
Ordena bereala
onek eman zuben:
berriz ardirik iñork
lapurtzen bazuben,
izango zubela txit
kastigu gogorra,
bere biziz zubela
pagatuko zorra.
Andikan laster bera
eroririk miñez,
aitz zuloan gelditu
zan irten eziñez.
Eta luzarotxoan
egonikan ala,
zulotik jankai billa
irteten etzala,
arkitzen zan goseak
eta zer jan gabe,

ezin egiñik ezer
jatekoren jabe.
Onela zala ardi
bi zitzaiozkan joan,
kejaz beren umeak
ziozkatela jan.
Aiek jan zitubena
otso zar bat zala,
eta arren ta arren
kastiga zezala.
"Ondo da —esan zien—;
kastigatuko da,
bañan orain zait beste
gauza bat gogora:
nik ura kastigatu
edo naiz ill arren,
nola beste urtea
ondoren datorren,
orduban ere ez da
otsorik paltako,
zuen ume berriyak
ostu ta jateko.
Eta onen-onena
izango da emen
nik esaten detana
egitea, amen.

Berriz onelakorik
ez dedin gertatu,
obeko zaituztet nik
sabelean sartu.
Ala zuen umerik
ez du iñork jango,
eta ni naiz gilborra
beteta egongo".
Au esatearekin
illik bi ardiyak,

ezurrik utzi gabe
jan zituben biyak.
*Ispillu ontan degu
ikusten argiro,
nola dan justiziya
egiten garbiro;
ez dala basta zuzen
jartzea legeak,
oker kunplitutzekoz
beren egilleak.*

Euskal-Erria, XII, 1885.

Olloak eta arrautzak

Lau ollo alkarrekin
ziranak bizitzen,
arrautzak egiten maiz
ziran ikusitzen.
Egunero egiten
zuten laubak bana,
au zan beren lanbide
zerabilten dana.
Egun batez joanikan
arrautzaren billa
neskatxaren tokiyan
etxeko mutilla,
onek esan zioten
ollo on aieri
emango ziotela
nai ainbat janari,
egin nai bazituzten
arrautzak gordean,
ark bestek etzekien
paraje batean.
Lau olloetan birek
au arturik ontzat,
asi ziran egiten
arrautzak arentzat.

Batek egunero bat
utzitzen baitzion,
asi zan egunetik
paltatzen etzion.
Besteak berriz iñork
etzeion igarri,
egun biz bat utzitzen
zion mutillari.
Gisa ortan zirala
gertatu zan gaia
zelebratutzekoa
Eguberri jaia.
Ontan nola bear zan
eltze on bat egin,
kontatu zuten ollo-
etako batekin.
Eta joanikan laubak
zeuden parajera,
zein ill sententziya an
zioten atera,
esanaz: "Arrautzgille
gertatu ez dana,
izan dedilla gaur ill
ta jan bear dana".

Eta eramarikan
bera sukaldera,
an zioten lepoa
labanaz atera.
Au ikusteaz ollo
kulpaz kutsutuba,
ikaraz izandu zan
aurrera justuba.

*Ona leziotxo bat
bearra guretzat:
orra zer dagon gero
traidorearentzat.
Bi abotatikan jan
nai duben askori,
sinistu gertatuko
zaiola lan ori.*

Euskal-Erria, XIII, 1185.

Azariya eta azari-zakurra

Olo bat jaten zala
azariya ari,
zakurrak eldu zion
lepotik berari,
esanaz: “Zer ari aiz?
Nondik ostu dek au?”
Zeñek erantzun zion:
“Jabeak eman nau”.
“Ez; jabeak ollorik
ez dik eman iri;
gure etxetikan dek
ostu ollo ori”.
“Egiya da au zuen
etxekoa dala,
bañan bai eta ere
ostuba ez dala.
Nagusiyak berak dit
ageriyan eman,
ez ditzatan ixilka
geiago eraman,
oraindik esanaz
illero-illero
emango ditala bat,
au seguru gero.
Bada ez lapurtzeko
ari ollorikan,

ez baldin badet artu
nai balazorikan.
Itz eman diot ezetz
eta au zan dena;
lapurtzat zuk ni egin
bearra det pena.
Goazen, goazen biok gu
orain beragana,
galdetzera dan edo
ez au ark emana”.
Ontan erdi sinixtu
egiñik zakurrak,
kendu zizkan gañetik
bere atzaparrak.
Eta zijoazela
galdetzera biyak,
bidean eskapatu
zion azariyak.
*Onek erakusten du
bizitzeko ernai,
ez sinistatutzeko
edozeñi zernai.
Begiratzeko len zer
izana dan bera,
ez deikion tiroa
erpotik atera.*

Euskal-Erria, XIII, 1885.

Azariya eta zakurra

Biyak zijoazela
bein bide batean,
ikusi zuten gizon
bat bere lanean.
Au zan arakiña ta
aragiya austen,
puskak zernai modutan
zitubela uzten.
Azari zarrak zion
esan zakurrari:
“Ostu zaiogun puska
aundi bana orri.
Kontatuko dizkiat
nik *bat, bi, iru, lau,*
eta *lau* esatean
sartuko gaituk *rau!*”
Esan ta egin, biyak
asirik batean,
azariya tranpaz zan
erori bidean.
Eta zakurra joanik
gaitz pentsatu gabe,
egin zan ango puskek
onenaren jabe.
Bañan jabeak zuben
lapurtzen ikusi,
eta segitu zion
labana ta guzi.
Zakurrak nabaiturik
trantze ain larriya,

bota zuben abotik
bere aragiya.
Gizonak berriz kaso
egin gabe oni,
oraindikan segitzen
zion zakurrari.
Nai zuben kolpatzeko
bera arrapatu,
geiago aragirik
etzeion lapurtu.
Eta... da arrapatu
zubela egiya?
Bai... bestek... an lurrian
zegoan aragiya.
Azariya egiñik
puska arren jabe,
jabea gelditu zan
aragirik gabe.
Baita zakurra ere
ederrak artuta,
berriz lapurtutzeko
goguak kenduta.
*Onek erakusten du
bear dala jakin
kontu aundiz ibiltzen
pillo samarrakin;
geitxo fiatzen dana
bere esanetan,
gaizki irtengo dala
lautatik irutan.*

Euskal-Erria, XIII, 1885

Asto alperra miñez

Asto bat biziro maiz
gelditzen zan miñez,
oso puztuturikan
mugitu eziñez.
Ukulluban zegoala
bein txit aundituba,
beste asto bat deitu
zuten medikuba.
Eta onek lenengo
pultsuba arturik,
galdetu zion zeukan
jateko gogorik.
Erantzun zion baietz
ederra zeukala,
apetituen paltak
ala etzeukala.
Ezin ezagaturik
medikubak miña,
esan zion atera
zezala mingaña.
An ere gaitz itxurik
etzion ikusi,
bañan sendatu nairik
alaz eta guzi,
asi zitzaion sangri
aundi bat egiten,
odol txarrik bazeukan
andik zedin irten.
O asto kottaruba!
Tranpak eta penak

orduban argitara
irten ziran denak.
Odolaren tokiyan
aizea zan asi,
zulotik txistu joaz
zijoan igasi.
Beste asto larruban
egonik sartuba,
ura zan zekarrena
aizez puztutuba.
Min paper ura zuben
egiten ikasi,
nai zobelako lanik
egin gabe bizi.
Bañan ziotenean
gaitza ezagutu,
ostikoka zioten
jaikitzen lagundu.
Ala andik aurrera
astean sei makil
bizkarrean puskatzen
zizkatela zan ill.
*Emen ikusitzen da
dabillena tranpan
azkenerako bera
erortzen dala an.
Iñor engañatubaz
nai dubenak bizi,
ez dezakela azken
onikan ikusi.*

Euskal-Erria, XIII, 1885.

Baserri zakurra

Ongi bizi zalarik
bere baserriyan,
aitzen zuben zer nola
ziraden erriyan:
txit gaizki ikusiyak
zirala katubak,
eta zakurrak berriz
oso maitatubak.
Oek nai eran libre
zirala ibiltzen,
bat bakarrik etzala
gazterikan iltzen.
Zer jana berriz nonai
billatutzen zala;
itz batez, an ezeren
paltikan etzala.
Oek guziyak joanik
belarriyetara,
egun batez zan bere
etxetik atera;
eta egonik bide
denari begira,
abiatu zan jaisten
menditik errira.
Ontan asi ta sarri,
zijoan bidean,

billatu zuben zekor
zanko bat lurrean;
eta usai egiñik
puska eder ari,
esan zuben: “Eztet nai
nik au jaten ari;
erriyan egingo det
nere otorduba,
allegatzen danean
jateko orduba”.
Gero topatu zuben
zerri belarriya,
eta ez izanikan
ain puska larriya,
esan zuben: “Au bañan
gauza obea len
ez det jan, eta noan
errira lenbailen”.
Onela allegatu
zanean bertara,
ibilli zan begira
alde denetara;
bañan nola etzuben
zer janik billatzen,
asi zan dendetan ta
tabernetan sartzen.

Oetako batean
egonik usainka,
artu zuben platera
batetik lukainka;
bañan ikusirikan
lan artan mutillak,
makillazoz berotu
ziozkan kostillak.
Andikan karraxika
irtenik igasi,
beste denda batean
zan sartutzen asi;
an berriz topaturik
katu bat aundiya,
kendu zion zarpazo
batekin begiya,
eta txiliyoz zuben
denboran aldendu,
borroka zion beste
zakur batek eldu;

zeñak sarturik gogor
bere letagiñak,
aztu erain ziozkan
lenagoko miñak,
bada bizirik bazan
irtengo argandik,
bestek libratu zuben
eta joan zan andik.
Ala porrokaturik
guziya erriyan,
aurrera zan bizitu
izan baserriyan.
*Au da gure artean
gertatu oi dana:
degun dena txarra da,
ona besterena;
urrutiko intxaurreak
izanik amalau,
bertara joatean
gertatzen dira lau.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria / 1885.
Euskal-Erria, XIV, 1886.*

Astoa eta zaldiya

Nagusi baten mende
ziralarik bizi,
astorik ezin zuben
zaldiyak ikusi;
beti esaten ziyon
itsusiyaz zala,
eta aren ondoan
biziko etzala.
Modu artan zirala,
beren nagusiyak
goiz batez lotu zizkan
karro bati biyak;
zeñen karga zioten
gaingirotxo eman,
zezaten beste erri
batera eraman.
Ala zijoazela
aldaparan gora,
zaldiyak esan zuben:
“Orain da denbora;
orain moldatuko det
nik asto muskilla,
leer eragin ta emen
utziko det illa”.
Ala karroari ez
tiratzen asi zan,
eta nola astoa
aurretikan baitzan,

noizik bein kozka zion
egiten atzetik,
karga denari tira
zeion ark aurretik.
Bañan alako batez,
bide legunean,
nola berak etzuben
segitzen lanean,
zart egiñikan soka
zarrak astoari,
zan estropozo egin
ta bertan erori.
Orduban gertatu zan
zaldiya nekoso,
atzeko kargak zuben
menderatu oso;
eta amildurikan
karro zar ta guzi,
lepoa zuben bea
jotakoan autsi.
*Gertakaitxo onetaz
maiz oroi gaitezen,
gu ere geren paltaz
galdu ez gaitezen;
ez mengantzarik artu
al bada besteri,
zein gerta leikioken
gaitz ura berari.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

Arratoiak eta katuba

Arratoi bi bizitzen
ziranak txit ondo,
etziran aserratu
izan oi egundo.
Etzuten uzten iñoiz
bat besteak bakar,
begiyetan piyatu
ezin zuten alkar.
Bada alakoa zan
maitetasun piña,
bientzat bat zan poza,
bientzat bat miña.
Egiñak zeuzkatela
milla juramentu,
etzutela bear itz
emanik ukatu;
au zan: iñoiz gertatzen
baziran esturan,
biyak irten edo ill
bear zutela an.
Modu ontan zirala
gau bat zan iritxi,
ziranak ganbaratik
bizitzara jatxi;
eta billaturikan
lokarri zar bat an,

kakora ziran igo
lokarri zar artan;
non erasorik gogoz
ango urdaiari,
ezpain bizarrak apain
baitzituzten jarri.
Jaisten ziran denboran
asi andik beera,
katu aundi bat irten
zitzaien bidera;
eta bera ikustez
ikaraturikan,
ez gora ta ez bera
gelditu ziran an.
Orduban esan ziyen
katubak azpitik:
“Ez izutu, gazteak,
batere nigatik;
jetxi zindezketeke
beldur gabetanik,
zuekin adiskide
baitet izan nai nik”.
Bañan buruz bez zeuden
aiek lokarriyan,
nola gertatzen ziran
estura larriyan,

lokarriya goikoak
ebakirik beetik,
azpikoa pitipun
erori zan goitik;
eta artzearekin
bat katubak ura,
bestea saltatu ta
sartu zan zulora.

*Gure artean ere
baititezke izan
alkar maiteak nola
arratoien gisan,
egiñaz biotzetik
milla juramentu,
esturan animatik
ditzaten ukatu.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria / 1885.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

Tximuba

Au nola erdi larru
gorriyan bizi zan,
azari batenaz bein
apainki jantzi zan.
Eta erakutsiyaz
atzeko isatsa,
esaten zuben: "Orain
ez bainaiz ni lotsa;
beti nintzan inbiri
jantzi besterenaz,
soñean darabiltan
azariyarenaz;
eta osaturikan
neukan kutiziya,
nerekin arkitzen zait
nai era guziya".
Jardun oek pasarik,
zerbait geroago,
egun batean egin
zuben oso bero;
eta jantzi arekin
itoko ezpazan,
preskatzera itsaso
bartzarrera joan zan;
an zegoala arroka
tartean sarturik,

etzubela ageri
buruba besterik,
olagorroa joanik
bere ondotikan,
preso gelditu zuben
isats aunditikan;
eta bere buruba
ikustez ala,
lotuba, andik irten
ezin zitekeala,
txiliyoz erreguka
jarri zan zerura;
bañan nola goititzen
baizijoan ura,
sarri ziyon estali
izandu buruba,
eta ito zan bertan
tximu apainduba.
*Gauza onak ditugu
beti besterenak,
ezeren baliorik
gabeak gerenak;
eta on aien jabe
egiten bagera,
orduban ere gaizki
atera oi gera.*

*Euskal-Festak Donostiyan /
Oroimengarria / 1885.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

Gabiraba, zozo-kumeak eta arranoa

Gabirau bat jetxi zan
bein kabi batera,
nairik an zeuden zozo-
kumeak atera;
egopean aitz zulo
batera eraman,
eta otordu eder
bat egin zezan an.
Bañan arrano zar bat,
egonik begira,
atzetik joan zitzaion
segiran kabira;
eta arrapaturik
lapur txarra bertan,
esan zion ia zer
lan zerabilen an;
ia non ziran kabi
artako zozoak,
ark jango zitubela
ain jankai gozoak.
“Ez nik —erantzun zion—,
eztet jan zozorik;
eztet jaten orlako
mokadu goxorik”.
Orduban esan zion:
“Ezpadira janak,

dituk ire igasi
norarebait joanak;
bada gaixoak nola
ditutan maite nik,
eta berak jan naia
ekarri dekan ik,
emen pagatuko dek
ere kastiguba”.
Eta segiran zion
puskatu buruba.
Ura ill ondorean
zituben ikusi,
zirala zozokume
kabikoak bizi;
bada gertakai artaz
arkiturik era,
illaren egopetik
ziraren atera,
esanaz: “O, gure jaun,
ongille aundiya,
gaur bedorreatikan
daukagu biziya;
ezpaldin balitz emen
kabiyan gertatu,
oraingoz giñan mundu
onetaz gu aztu;

bada ongite ontaz
gaude eskerturik,
eta maite gaitula
eztaukagu dudik”.
“Bai —erantzun zioten—,
txit maite zaituztet,
bañan onekin ezer
gaur egiten ezte;
bigartik jarriko naiz
ume gordelari,
emanaz kastiguba
paltatzen dunari;
bañan gaur nola eztan
oraindik bigarra,
eta nik detan gauza
goxoen biarra,

nere sabelak ondo
zaituzte artuko,
eta antxen zaituztet
gaixoak sartuko”.
Eta, esan ta egin,
izan ziran janak,
zozokumeak eta
gabiraba danak.
*Onelakoak asko
baikera munduban:
onak, beldurra baldin
bada inguruban;
bañan jaun eta jabe
gertatzen bagera,
orduban lengo onak
gaiztotutzen gera.*

*Euskal-Festak Donostiyan /
Oroimengarria / 1895.
Euskal-Erria, XV, 1886.*

Ontza, mirotza⁽¹⁾ eta txoriak

Batian aruntza ta
bestian onuntza,
txoriak zerabilten
toriatzen ontza;
nola begiz argirik
etzuben ikusten,
nai zubenik egiten
etzioten uzten;
abiyatzen zanean
joaten kabiya,
gaizki zuben artutzen
beti abiyara;
alaz ta ere noizbait
sartu zan kabian,
bañan besterenean:
mirotzarenean;
eta nola txoriyak
zioten segitu,
oek ikusteaz zan
mirotza mugitu;

eta, arrapaturik
aruntz joan ziranak,
lepoak bigurtubaz
ill zituben danak;
segiruban jarririk
begira ontzari,
esan zion: “Eztiat
nai i jaten ari”.
Eta jankai txar ari
utzirikan joaten,
segitu zuben txori
burlosoak jaten.
*Iñor burlatzea da
oso gauza gaizki,
ez baita bat mendean
artutzea aski;
bada egiñagatik
ari nai guziya,
beretzako paltako
ezta justiziya.*

*Euskal Festak Donostian /
Oroimengarria / 1885.*

(1) *Halcón*. (R. Artolaren oarra)

Azariya eta zakurra lagunkidan

Tratu bat egin zuten
bein beren artean,
lanetan izateko
aurrera partean:
bakoitzak bere alde
egin arren lana,
partituko zutela
gauza erdibana.
Ontan urdai puska bat
zuben azariyak
lapurtu, eta ziran
asi jaten biyak;
bañan zakurrak zuben
parte geiago nai,
eta nola etzion
besteak eman nai,
ziralako artatik
biyak okerrera,
puska guziya zion
zakurrak atera.
Orduban azariyak,
sukindaz beterik,
esan zion: “Eztiat
damu bat besterik:
bakarrik eztetala
nere urdaia jan,

bere billa bakarrik
naizen bezela joan.
Indar pantesiyan dek
egin nai dekana,
bañan damutuko zaik
gaur egin dekana”.
Onetan zijoala
aurrera bidean,
ikusi zituben bi
artzai txit aldean,
eta berari ziyen
tranposoak esan
zakur amorratu bat
ikusi zala an.
Bada ezpazan illtzen
zakur ura sarri,
artaldeak zirala
ibilliko larri.
Ura aitutakoan
bi artzai mutillak,
zakur billa joan ziran
jasorik makillak;
eta billaturikan
urdai puska jaten,
makillazoka bertan
akabatu zuten.

*Onek erakusten du
indar pantesiya
bakarrikan eztala
bearra guziya;*

*ezpada, naiz ez izan
bat txit indartsuna,
galdu lezakeala
indar asko duna.*

*Euskal Festak Donostian /
Oroimengarria / 1885.*

Astoa eta zakurra

Alkarrekin bizitzen
ziralarik biyak,
astoa zuten maite
etxeko guziyak;
zakurrari etzien
egiten kasorik,
eta etzuben kentzen
onek bein goserik.
Zitubelako bere
nagusiyak zurrak,
konta zitzaiozkean
zitubena ezurrak;
bada ain arkitzen zan
plako ta argala,
baziruriyen kartoiz
molatuba zala.
Ontan egun batean
astoa ta biyak
errotara birali
zitubena nausiyak;
eta zijoazela
aldaparan bera,
otso bat zitzaioten
alboan atera.
Astoak zubenean
ikusitotsoa,

eta beraganatzen
zubela pausoa,
izuturikan esan
zion zakurrari:
“Ua eta egiok
gogor otsoari;
bestela emen niok
ni ito ta jango,
eztek neri gaitzikan
egin gabe joango”.
“Eta neri zer? —zion
erantzun zakurrak—;
jan deizkikala mamik,
ez neri ezurrak.
Nik irukirik lanik
aski neronekin,
nai al dek ni jartzea
borroka arekin?
Jan azala nai badu,
neri bost bazirak,
berdin nagusiyak len
ainbat naiko zirak”.
Eta otsoa joanik
astoarengana,
zintzurretik itota
izandu zan jana.

Nai dubenak iruki
serbitzai leiala,
berak bear du izan
lendabizi ala;

sariztutzen ezpada
merezi dan gisan,
langille ona ura
ez liteke izan.

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Armiarma eta enara

Euli bat zeramala
preso armiarmak,
enarak esan zion:
“Aizak, zer daramak?”.
Zeñen erantzun zion,
izuturik oso:
“Euli bat, or detana
arrapatu preso.
Len ere beste ogeik
naute gaur burlatu,
eta arrapatuta
preso ditut sartu;
bada uzten banazu
gaur neri biziya,
zuretzat izango da
nere eiz guziya.
Orain bertan dizkitzut
denak ekarriko,
eta otordu goxo
bat dizut jarriko”.

Enarak sinisturik
ark esan ziona,
eta pentsaturikan
zala tratu ona,
armiarma zarrari
utzi zion joaten,
bera gelditurikan
euli ura jaten.
Eta armiarmarik
berriz jira al zan?
Ez; enara alperrik
aren zai egon zan.
Esan oi dan bezela,
txori bat eskuban
obea da eta ez
amar inguruban;
egin naia dutenak
gauza denen jabe,
askotan gelditu oi
dira ezer gabe.

*Euskal Festak Donostian /
Oroimengarria / 1885.*

Euskal-Erria, XIV, 1886.

Otsoa eta zaldiya

Otso bat lo zegola
bere lo tokiyan,
lur ikara gertatu
izan zan mendiyen;
eta amildurikan
goitik zenbait arri,
bat zitzaion zuloan
trebesturik jarri.
Esnatu zan denboran
lo arretatikan,
eta arri zabal bat
an ikusirikan,
txoil izuturik irten
naian baitzan asi,
bañan zan txit estura
larriyan ikusi;
bada nola zuloa
itxiya zekarren,
eta ateratzerik
andik etzekarren,
ala bere buruba
ikustean preso,
asi zan intziriyaz
biziro penoso.
Zaldi bat gertaturik
garai arretan an,

eta intziri triste
aiek aiturikan,
arrimatu zan zulo
otsoarenera,
eta ikusi zuben
barrenean bera.
Otsoak nabaiturik
zaldiya zala an,
zion umil ta erdi
negarrean esan:
arren bota zeiola
arri ura andik,
libra zezala zeukan
estura larritik.
Bada kupiturikan
otsoaz zaldiya,
ostikoz jota zion
puskatu arriya.
Eta eskerrak eman
al ziozkan gero?
Nola bada ez, ala
portatu ezkerero?
Bai bear; bañan nola
emango ziozkan?
Eldu ta bota zuben
eta nai zuben jan;

bañan eiztari batek
ikusirik ala,
tiroz kopetetikan
sartu zion bala.
On egitea ona
dalarik iñori,

*jakin bear da ere
noiz egin ta nori.
Beti egin liteke
bere kalte gabe,
bañan au gertatzekoz
egon egin gabe.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Katamotza eta otsoa

Katamotzak egiñik
ibilli aundiyak,
utzi zituben alde
bat bere mendiyak;
eta besterenetan
gertaturik gabaz,
denbora txarrarekin
nekatuba arras,
arrimatu zan otso
zar baten etxera,
lotarako tokiya
oni eskatzera.
Otsoak aiturikan
erregu arena,
eman zion ostatu
legor zekarrena,
eta toki txikiyan,
ez bizirolasa,
pasatu zuten nola-
bait ere arratsa.
Allegatu zanean
urrengo eguna,

etzan mugitzen otso
zarraren laguna;
eta galdeturikan
etzuben bear joan,
erantzun zion ezetz,
ongi zegoala an.
Joan bearrik bazuben
joan zeikela bera,
etzubela nai arrek
andikan atera.
Eta ez izanikan
otsoa aren din,
berak zuben joan bear
izan, zubela min.
*Onek erakusten du
bearra dan gauza,
geroni eztakigun
jolas bera pasa;
iñork jotzen badigu
gabaz aterikan,
ez irikitzeke an
jakin gabe nor dan.*

*Euskal-Festak Donostian,
Oroimengarria, 1885.*

Zaldiya eta eulitzarra

Zaldi bat oso arro
zan beti ikusten,
etzuben mendekorik
errespetatutzen.
Igual zan bazan txala
nola bazan beiya,
non zakurra, astoa,
ala naiz txerriya.
Ostikoak denari
ziozkan partitzen,
kulparik gabe debak
zituben zatitzen;
bada bein eulitzarrak
ikusirik ala,
arto bat kolpatzen ill
naian ari zala,
esan zion: "Begira,
animali tzarra,
aski dala zuk uste
al dezu indarra,
nai dana egiteko
mendekoarekin?
Bada nik jakingo det
zer egin zurekin;
berriz modu orretan
segitzen badezu,
zedorrek ere onik
izango ez dezu".

Zaldiyak begiratu
txar bat egiñikan,
mesprezios etzion
egin kasorikan;
eta arretik para
gabe esan ari,
berriz jarraitu zion
lengoko lanari.
Bañan euliyak ere
ez baitzion utzi,
zitzaion oso leku
txarrean itsatsi;
eta sarturik lantza
nola atzaparrak,
ikusi erain zizkan
etziran izarrak;
bada alako penak
zizkan erakutsi,
zuben arroa zana
umildurik utzi.
*Onek erakusten du
justiziya zer dan,
arrokeriya ea
onentzat ezer dan:
indartsu, borrokari,
nola makildunak
menderatzen ditula
makil txiki plumak.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Igelak eta beleak

Igelak beleari
azpitikan gora,
koa, koa, koa kantatubaz
egin zion burla:
eta oek segiran
aserraturikan,
berari egin zien
kro, kro, kro goitikan.
Bada artatik denak
okerturik oso,
zien burlaka gogor
alkarri eraso:
ipurt beltzak zioten
deitu azpikoak,
eta petral zikiñak
berriz gañekoak,
esanaz onetaz gain
burlaz igelari:
“Eztiagu zuekin
nai izketan ari.
Gu gaituk nonai oso
ondo ikusiyak,
zeren azaltzen geran
txukunki jantziyak;

bañan zuek or zaute
udan, non neguban,
beti larrugorriyan
Adan-en moduban,
zingira tarte ortan
denen parragarri;
obe zenuteke ur
ori garbi jarri,
lotsagarri txar oiek
beste moduz bizi,
eta kantatutzen guk
bezela ikasi”.
Eta au esateaz
egaturik parrez,
lotsaz ziran igelak
gelditu negarrez.
*Onek erakusten du
besteri burlatzen
abiatu bañan len
jartzeko pentsatzen
ia ote dakarren
berak zer burlatu,
ez dezan aundigon bat
arpegira artu.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Erbiñudea

Egunero ollotei
batera zan sartzen,
eta zituben andik
arrautza bi artzen;
gero lasterka joanik
zulora oekin,
otordu gozo bat an
oi baitzuben egin.
Onela zeramala
luzaro biziya,
egun batez zitzaion
egin kutiziya
bi arrautzen tokiyan
artzekoa denak,
olloak egun artan
egin zituztenak;
eta asko izanik
jateko batean,
jan izandu zituben
beretzat kaltean.
Gaitz egin ta luzaro
egondu zan miñez,

zulotikan kanpora
atera eziñez;
noiz ere bait atera
zanean andikan,
lengo gisan arrautza
biren billa zan joan.
Bañan, o kottaruba,
kolpez zan penatu:
sarbide lena zuben
itxiya topatu;
eta etzuben izan
berriro modurik
egiteko arrautzaz
beste otordurik.
*Besteren gauzaz errez
jabetzen diranak,
modu berean dira
galtzen iya denak;
esan oi dan bezela
da ere gertatzen
guzi ya nai dubenak
dena dula galtzen.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Otsoa eta ariya

Ari bat jeisten zala
erreka batera,
otso zar bat zan bere
zulotik atera;
eta igarririkan
zubela ikusi,
etzan alaz ta ere
gorde nairik asi;
ezpada zuzenean
joan zan beragana,
esanaz: "Mandatu bat
dakart nik gaur, jauna:
artzaiak nai luteke
konpontze bat egin,
ongi segi dezaten
denak alkarrekin;
diote egunero
arkume guri bat
emango diotela,
ero ta bi anbat;
bañan orretarako
beren itzarekin,
ez dezala bedorrek
txarkeririk egin;
geiago ez dezala
ardirikan artu,

ez ere arkumerik
ixilka lapurtu:
eta eskiñi ontaz
ezpadu ezpikan,
baiezkoa deidala
eman bertatikan".
Otsoak sinisturik
kontatu ziona,
eta iruriturik
zala tratu ona,
erantzun zion: baietz,
eraratzen zala,
eta segiran joan ta
kontatu zezala.
Ontaz ariyak alde
egiñikan andik,
libratuba izan zan
otso arengandik.
*Onek erakusten du
dan denboran estu
bear dala aguro
buruba askatu;
bere bear orduban
esnatzen eztanak,
ondorean izango
ditubela penak.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Kukuba eta mirotza

Mirotza zebillela
usoen ondoren,
beregianatu ezin
zubela bat beren,
kukuba beregandik
aparte etzuben,
eta kuku soñuba
alde aitu zuben.

Suerteak batere
laguntzen etzion,
eta nola kukubak
oker jotzen zion,
bere kantu aitzeak
min ain eman zion,
errabiyaz segira
bat egin baitzion.

Gogor segitu arren
etzuben atsitu,
bañan bai zion alik
geiena mengatu;
bada len ura sartzen
zan zuloan sartu
eta zeukan kabiya
zion porrokatu.

Kukubak ikusirik
egin zion lana,
segiran joan zan txantxan
gorriyarengana:
eta kontaturikan
gertatu zan dana,
kabiyan utzi zion
arrautza zeukana.

Geroz ezta kukurik
iya ikusitzen,
izututa da beti
gordeka ibiltzen;
duben arrautza dio
besteri utzitzen,
txantxangorriak dio
umea azitzen.

*Mirotzak gaitz baitzion
egin kukubari,
bañan izan zuben nork
egin on ugari;
gure artean ere
gertatzen da ori,
bearrean zaio on
egin oi askori.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Eskoba eta bere kirtena

Eskobak kirtenari
esaten zion maiz:
“Zu alper txar bat zera,
langillea ni naiz.
Zu sortu ziñan gisan
zera gaur arkitzen,
ni iya gastatu naiz
zokoak garbitzen;
biyok guk degularik
korputz bat egiten,
neti bakarrik ditet
lana eragiten:
eta norbaitek badu
eskoba famatzen,
nik ainbat parte dezu
alabantzan artzen”.
Ala zirala, egun
batez neskatxari,
au zala sukaldea
garbitutzen ari,
esan zion: “Aizazu:
egoki ez dana
da egitea beti
nik bakarrik lana;
eskoba ta kirtena
eskoba da dena,

eta lana ezarri
zazu onengana;
gaurtandik nik utzi nai
ditut nere lanak,
orain baztarrak garbi
ditzala kirtenak”.
Neskatxak ikusteaz
bide gabe ala
eskoba zatar ura
kejatutzen zala,
ezin zitezken gauzen
billa asi zala,
kirtenetikan kendu
nairik beriala,
ankakin aterarik
tiratze aundiyan,
zokora bota zuben
bere errabiyen.
*Gizonari au bera
zaio gertatu oi,
lana egiten baitu
bañan bera doi-doi;
eta asitzen bada
doi ura ukatzen,
bizibide oberik
etzaio trukatzen.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Arratoiak, katuba eta zakurra

Zenbait arratoi ziran
nekoso txit bizi,
zeñen ezin zituben
katubak ikusi;
bada ain zan gogorra
katu zar minimau,
maiz itotzen zituben
kolpez iru ta lau.
Giza artan zirala,
zitzaien burura
milagro baten eskez
jartzea zerura;
eta bere jaungoiko
paltso Jupiterri
zitzaiozkan guziyak
erreguzka jarri,
esanaz katu ura
zezan porrokatu,
arratoietako bat
zezala zakurtu.
Jupiterrek entzunik
beren erreguba,
bat egin zuben zakur
il zezan katuba;
eta milagro ura
ikusteaz ala.
esan zuten pakea
etxeratu zala.

Segiruban itorik
zakurrak katuba,
eta nairik beretu
zekarren lekuba,
nagusiyarengana
joanik segiruban,
esan zion katuba
nola illa zeguan;
eta onen ordezeko
nai bazuben artu,
ark egingo ziola
etxeari kontu.
Nagusiyak arturik
ontzat ark esana,
eman zion tokiya
katubak zeukana.
Ordu artatik ziran
zori onak asi,
etzegon ibiltzerik
moxaren igasi;
nola goardi berriya
laguna baitzuten,
beraren beldurrikan
batere etzuten.
Amabosten bat egun
igarorik ala,
nai zutena egiñaz
libre zebiltzala,

nagusiya asi zan
beste katu billa,
zeñen ona izandu
baitzuben len illa.
Eta denbora bidez
zakur tontoari
asi zan ez ematen
len ainbat janari.
Orduban esan zuben
zakurrak beregan:
“Lanikan egin gabe
ez nezakek nik jan”.
Eta arratoi denak
ziranean bildu,
oen kontra zan bere
ontasuna mindu;
bada an eman zuben
lenengo sarreran
itoak gutxienaz
amar izan ziran;
eta gañerakoak,
al zuten moduban,

zilipurdika ziran
bere ondotik joan.
Orduban zulotatik
deitu zien denak,
ia aiek al ziran
itz ark len emanak;
zeñen erantzun zien,
atzea emanaz,
zegola lan ura ez
len egiña penaz;
ordutikan aurrera
libertaderikan
etzala an izango
ura bizi bazan.
*Mende dagona beti
izan oi da ona,
gaiztoa berriz oso
agintzen dagona;
eta onen tokiyan
jartzen bada beste,
ark ere egiten du
beste orrenbeste.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.*

Otsoa eta legoia

Ortzak garbitzen ari
zala bein otsoa,
jan ondoren arkume
bat oso gozoa,
legoia arrimatu
zan berarengana,
zeñak zuben usandu
zeukala zer jana.
Ala, bi ardi zeuzkan
gordeak zuloan,
denak batean ezin
zitubelako jan.
Legoiak galdeturik
aiek zer zituben,
zein artaldetatikan
lapurtu zituben,
erantzun zion: "Oek
eztira lapurtuk,
eztitut nik ixilka
iñondikan artuk,
ezpada berak dira
onuntz etorriyak,
eta nere-nereak
baitirade biyak".
Orduban esan zion:
"Kulpikan ik eztek,

oekin zer ikusi
eztik iñork bestek;
obe dek bai orrela
gertatzen dan ori,
bestela emen ilko
indutan erorri".
Au esatez joanikan
ardi batengana,
ill zuben eta bertan
izandu zan jana.
Segiruban asirik
eltzen besteari,
otsoak esan zion:
"Nerea da ori".
Bañan arretik jarri
gabe esanari,
jan zuben mokadurik
utzi gabe arri.
*Onek agertzen digu
lezio bat ona,
oker bideari jira
ez dedin gizona:
eztala egin bear
nai danik indarrez,
naiz iruki eskuban
eginkera errez.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimegnarria, 1885 .*

Egaztiyak errege billa

Errege gabe ziran
bizi egaztiyak,
eta on bat nai zuten
berentzat guztiyak;
bañan onaz gañera
bear zuben izan
azkarra, denak ongi
governatu zitzan.
Gañera itsusiya
zanik nai etzuten;
azkarra, ona eta
ederra nai zuten.
Otzendurik bilkida(1)
alderdi denetan,
sagu bat gertatu zan
bizirotan penetan,
esanaz: "Ai! Ni banitz
ego biren jabe,
agiyan ninduteke
parako errege;
bañan egorik gabe
ezin ni aurkeztu,
ez niteke ni ego
gabe aruntz sartu".
Otan eske zitzaion
jarri Jupiterri,

esanaz egotxo bi
paratzeko ari;
eta deia entzunik
Jaungoiko paltsoak,
sagubari paratu
ziozkan egoak.
Ego berriz jantziya
zanean ikusi,
lasterka zan bilkida
arretara asi,
besterikan etzala
beraren usterik,
ezpada alakorik
etzala besterik.
Sinistapen arekin
sarturik bilkidan,
esan zuben errege
on bat nai bazan an,
ura zala egazti
bat sortu berriya,
ona, ederra eta
bizirotan argiya;
eta nai bazuteken
artu erregetzat,
etzeukatela autu
besterik berentzat.

Ura aitzeaz denak
jarririk begira,
esan zuben batek an:
“Au nor etorri da?
Moko puntikan ere
ezpadu berekin,
onek gu gobernatu?
Nola ta zerekin?”
Besteak esan zuben:
“Lumik ere eztu,
egaztiyaren antzik
iñon ere ez du”.
Eta besteak ezin
irukirik parra,
esan zuben: “Neretzat
au da xaguzarra”.
Eta orduban parrez
asirik guziyak,

lotsa bat artu zuben
sagu itsusiyak.
Ala, geroz bera ta
bere arrazikan
egunaz ateratzen
ezta zulotikan;
beste guzientzako
danean illuna,
asten da orrentzako
argitzen eguna.
Saguzarrak ederra
uste zuben zala,
bera bezelakorik
besterik etzala;
gu ere ezer gutxi
geran askok, ala,
ustetzen degu gauza
aundiyak gerala.

Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1885.

(1) *Concurso.* (R. Artolaren oarra)

Artzaia

Artzaiari otsoak
janikan ardiyak,
lendanikan gelditu
zitzaizkan erdiyak;
eta galera artaz
penetan zegola,
erre zitzaion bere
mendiko txabola.
Estura triste artan
zanean ikusi,
milla pentsamentu zan
jirabiltzen asi,
esanaz: "Lenago ni
aberatsa nintzan,
mendiyetan ardi zai
ibiltzen ez nintzan;
nituben baserriya
bai eta ardiyak,
txal politak, astoa,
olloak, txerriyak,
soro, zelai ederrak,
nola sagastiyak,
eta gaur besterenak
dirare guztiyak.
Txabol txarra erre zait,
eztaukat etzauntzik,

lengoko diru poltxa
berriz daukat utsik;
gaur ditutan ardiyak
eztira betiko,
edo jango dizkitet
edo zaizkit ilko.
Zer egin biet bada
ontaz aurrera nik,
iya ezpanaiz gauza
egiteko lanik?
Nere atzen geldiya
dago ikusiya:
zokoren batean det
utziko biziya:
eta iñor eztala
oroitzen nigatik,
nere korputz argala
jango dute piztik".
Au esanaz zegoala
mendiyan negarrez,
galai bat joan zitzaion
apainduba urrez,
esanaz: "Aiskidea,
non dezu mutilla?"
Zeñen erantzun zion:
"Gerratean illa".

“Ez; etzuben inork ill
zure semerikan,
ni naiz gaur natorren au
Amerikatikan”.
Eta ontan laztanka
eldurik alkarri,
eman zizkaten milla
esker on Jaunari.

*Gizonaren usteak
seguruk eztira,
uste eztan moduban
maiz irteten dira:
ezta pentsatu bear
geiegi penetan,
pozak tokiya dute
paraje danetan.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Igelak eta Marte jaungoiko paltsoa

Gudara zijoala
Marte gudariya,(1)
billatu zuben putzu
zulo bat aundiya;
zeñetako igelak
denak ziran ari
zori onez beteak
pozkiraz kantari.
Alaz ta ere zuten
denboran ikusi
jaun ori, zitzaiozkan
erreguzka asi,
esanaz ur zikiña
zala zeukatena,
eta garbiya jarri
zeikiela dena.
Beste batzubek berriz
zien erregutu
etzeikiela urik
aieri trukatu;
ongi bizi zirala
beren ur loitsuban,
eta bizi nola ill
nai zutekela an.
Martek eman nairikan
denari atsegin,

zuben andik eskatu
ziotena egin:
batzuberi paratu
zien ur garbiya,
eta utzi zioten
besteari loya;
eta ustez egiñik
gustoa denari,
segitu zion bere
lengo bideari.
Andikan geroz beste
aldiya batean,
guda bukaturika
zala pasatzen an,
berriz aitu zituben
igelak kantari,
bañan lenago ainbat
ez baitziran ari;
bada begiraturik
zituben ikusi
ur garbiko igelak
etzirala bizi;
eta besteak berriz
lengoko moduban
ari zirala zori
onezko kantuban.

Gure artean ere
orain da au ikusten:
txarragatikan ona
dakigula uzten;

ez beza egin ongi
dagonak negarrik,
miñik gabeak eztu
sendagai bearrik.

Euskal-Erria, XVI, 1887.

(1) *Guerrero*. (R. Artolaren oarra)

Usoak eta mirotza(1)

Zulo batetik ziran
garautu batera
sartu izan sei utso
gariya jatera;
eta jan zutenean
nai ain jankai bera
bost ziran zuloan
kanpora atera.

Seigarrena izanik
tripazaia oso,
bertan gelditu izan
baitzan gozo-gozo;
bada nola zekarren
zer jana eroso,
aurrera ere zion
berari eraso.

Onetan sentiturik
soñu zerbaitena,
izutu ta mugitu
zan zubela pena;
bañan nola zekarren
puzturik barrena,
an ikusi zan sarri
estura arrena.

Sartu zanean iges
bideko zuloan,
ain zegon lori ezen
trabes gelditu zan;
eta ikusirikan
mirotzak ala an,
joan ta bertan itorik
segiran zuben jan.

*Ezpada nai gaitzikan
egitea janak,
ez ibilli tragatu
nairik baztar danak;
bere neurri batean
gelditzen eztanak,
emango dizka bere
burubari lanak.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

(1) *Halcón*. (R. Artolaren oarra)

Gizona eta astoa

Gizon bat bizitzen zan
astotxo batekin,
bizi moduba zuben
sortzen berarekin;
beti karga iguala
baitzion ematen,
eta modu berean
igual beti jaten,
gisa ortan zirala
biyak ondo bizi,
gizonak zuben txurrut
egiten ikasi;
lenago etzubena
ardorik proгатzen,
egunero asi zan
txiki bat eraten;
bañan ardotan egin
oi zuben kastuba,
nola ornitu etzan
gelditu aztuba.
Lenagoko moduban
eragiñaz lana,

asto onari zion
gutxitu zer jana.
Gero abiatu zan
bi txiki eraten,
eta astoari jan
gutxigo ematen;
modu ortan sarri zan
irutara iyo,
eta gure astoa
orduban adiyo:
gelditurikan iya
etzubela zer jan,
erori zan ta karga
azpiyan lertu zan.
*Onek erakusten du
bizio gureak
eztituztela jaso
bear abereak;
besteren bizkarretik
nai dubenak bizi,
bear dubela azken
tristeia ikusi.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

Etxe bateko zakur-katubak

Otordu segurubak
zituben zakurrak,
katubarentzat ziran
maipeko ezurrak;
oek txupatzen ere
maiz etzion uzten,
begi gaiztoz baitzuben
zakurrak ikusten.
Gisa artan zirala,
eguardi batean
kanpoko katu zar bat
sartu zan maipean;
eta ikusirikan
zakurrak ura an,
bereala tragatu
nairik zitzaion joan;
bota zizkan gañera
zarpak eta ortzak,
nairik atera bere
bizkarreko otzak;
bañan katubak ere
galdurikan lotsak,
gogor zizkan itsatsi
azkazal zorrotzak.
Ala zilipurdika
ibillirik biyak,

zakurrari atera
ziozkan begiyak,
eta bizi guziko
itxu utzirikan,
joan zan saltoka katu
zar ura andikan.
Gero ziran kontubak
eta komeriyak,
nola zakurrak palta
zituben begiyak;
etzuben kazubela
non zegon ikusten,
eta beti katubak
utsa zion uzten.
Otordu itxubari
jartzen zizkatenak,
jaten zituben katu
etxeakoak denak;
orduban zion esan
totoak moxari
txit asko nai ziola
len ta beti ari;
eta bizi zitezen
pakez lagunkidan,
aurrera alkarrekin
bear zutela jan.

Bañan katubak ura
zubenean entzun,
zion erdi parrean
jarririk erantzun
lenago nor izan zan
gogora zedilla,
ia joaten al zan len
lagunaren billa;
bada ark etzeukala
aren bearrikan,
eta joan zeilla arin
aren ondotikan.

Ala gosea zer zan
erakutsi zion,
nai ain jaten bein beren
utzi ez baitzion.
*Ispillu onetan da
ikusten argiro,
kazkarra danari zer
datorkion gero;
gaitz egitearekin
mende daukanari,
allega leikiola
gaitz ura berari.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Arranoa eta buzoka(1)

Arranoa gertatzen
zala erdi miñez,
lenago bezin arin
ibilli eziñez,
buzokak esan zion
beterik arronkaz
geiago zala ura
egoz eta ankaz,
nola begiz, sudurrez,
aboko indarrez,
zentzuz, korputzez eta
lumaje ederrez.
Arranoa izanik
jakintsun azkarra,
aren esankaiari
egin zion parra;
bañan berriro ala
burlatu etzezan,
zion bere pikardi
pentsatuban esan:
"Aizak: orrelakoa
aizen ezkerotz i,
eta nola denbora
gutxiko naizen ni,
utziko diat nere
erregetza iri,

oñazeak gaur kendu
nai banaizkik neri;
ekartzen baldin badek
katu bat biziya,
onekin ziok lan au
egiña guziya;
emen aterarikan
berari larruba,
petxurako egingo
nauk ik pegaruba,
eta nere oñaze
senti ditudanak
lotura orren bidez
joango dituk danak.
Buzoka au entzutez
pozturikan oso,
katu billa segiran
irten zan garboso;
eta ikusirik bat
eguzkitan lotan,
pozez beraren jabe
egin baitzan bertan;
bañan onekin egan
zan denboran asi,
estu baitzuben bere
buruba ikusi:

katubak atzaparrak
sarturik berari,
biyak ziran bueltaka
putzura erori;
eta katu gaxoa
igari irtenik,
buzoka ito zan an,
etzan irten andik.

*Onek ematen digu
lezio bat guri,
au da, ez egiteko
burlik aundiari;
txistuba tiratutzen
dionak goiari,
itsatsiko diola
bere burubari.*

Euskal-Erria, XV, 1886.

(1) *Buitre*. (R. Artolaren oarra)

Azariya eta olloa

Olo bat zeramala
basarri batetik,
preso zan azariya
gelditu zankotik;
eta min emanikan
zepoak gogotik,
min artaz joan zitzaion
olloa abotik;
bada gertatzen zala
penaturik miñez,
zopotikan zankorik
atera eziñez,
olloari zitzaion
itzegiten asi,
esanaz: “Nora zoaz,
olloa, igasi,
ni baldin banaiz zu txit
maite zaitutana,
bear ez dan gauzikan
egin eztetana?
Bada nere tokiyan
beste azari bat
izan bazan, ark jango
zinduben gaur anbat;
bañan nik eztet egin
orrelako lanik,

ez baitet egin maite
zaitutalako nik:
beragatik nai nuke
orain nik zugandik
meseretxo bat, zeren
zor nazkitzun aundik.
Zuaz nere etxera
nere amagana,
esatera etorri
dedilla nigana:
aren bear naizela
bere bear oso,
esan zaiozu nola
nagon emen preso”.
Oloa joaten asi
zan etxera arontz,
eta otsegin zion:
“Nora zoaz orrontz?
Nere amik ezpada
alde ortan bizi,
etzaitzela oker
bidetikan asi”.
“Ez —esan zion ollo
libre zijoanak—;
zuzen egingo ditut
nik gaur nere lanak;

alde oprretan bada
zure ama bizi,
eztet nai zein etxetan
bizi dan ikasi;
ni naiz orain nerera
segiruban joango,
eta an det emen zer
pasa dan esango".
Eta ala esanik
pasa zan guziya,

azariyari kendu
zioten biziya.
*Laguntza nai dubenak
dan denboran estu,
lenaz izan bear du
jarraituba prestu;
gauzak ez bailitezke
egun biyan aztu,
gaiztoak berri onik
aterako eztu.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Barakulloa eta eperra

Barakullo eder bat
zegola intzetan,
aitu zuben eper oin
soñuba txit bertan;
eta berarengana
zanekoz eperra,
kurkullan ondo gorde
zan bare ederra;
ontan eperrak zion
gañetikan esan:
ia ala lasterka
zertako gorde zan;
ia ez al zekien
adardun ederrak
akabatu ziranik
lenagoko gerrak;
zanik lege berri bat
oso ona jarri,
gaitz ez egitekoa
geiago alkarri;
bada bildurrik gabe
azaldu zedilla,
aruntz joan zala ura
adiskide billa;

nai zituzkela egin
itztxo bi arekin,
zitezen adiskide
egin alkarrekin.
Onetan aitu ziran
zakur baten zaunkak,
eta mugitzen asi
eperraren anakak;
igasi nabaiturik
bareak eperra,
atzetik deitu zion:
“Bukatu zan gerra”.
Bañan erantzuteko
betarikan gabe,
joan zan eperra egin
gabe aren jabe.
*Onek erakusten du
etsaiak zer diran,
zer moduz engañutan
ibilli oi diran;
askoren itz eztiyak
sinistu bañan len,
begiratzeko berak
nondikan datozen.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Euskal-Erria, LI, 1904.

Kirkirrak eta igelak

Igelak kejaz joanik
Jupiterrengana,
esan zien: "Kirkirrak
ixil bitza, jauna;
gure kankak izanik
aski itsusiyak,
kirkirrenaz gustatzen
dirade guziyak;
eta ez genduke nai
bestek ondotikan
egitea graziya
obeko kantikan;
gu bagera jaloak
kantari pobreak,
ez ditezela izan
besteak obeak.
Ez al litzake obe
berdintzea penak,
aurrera gu bezela
izatea denak?"

Au ontzat arturikan
entzuten zegoanak,
ixil azo zituben
kantu polit danak;
eta kirkir ziranak
pozgiraren jabe,
gelditu ziran zori-
ontasunik gabe;
igelak berriz poz au
zutelarik izan,
gero segitu zuten
gaizki lengo gisan.
*Gu ere asko gera
antz onetakoak,
penaz kutsutzekoak
auzoetakoak;
ardit zulatu baten
protxurikan gabe,
egitekoak beste
zori gaitzen jabe.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Azariya ardi jantziyan

Azariyak galdurik
isatsa zepoan,
bere lurrak utzirik
bestetara zan joan;
eta lotsatzen zala
isatsik gabe an,
ardi bat il ta aren
larruz estali zan.

Noranai ibiltzeko
ala zuben era,
nola nornai laguntzat
artzeko aukera;
eta arrimaturik
artalde batera,
an asi zan egiten
ardiyen papera.

Iñoren ere beldur
etzala mendiyen,
arkume eta ardi
guziyen erdiyan,
ibiltzen zan egunaz
beti belardiyan,
eta gaba ezkerotz
berriz pikardiyan.

Iñor ere etzala
artaz suspitxatzen,
ollo tokitara zan
illunpetan sartzen;
eta zitubelarik
ollo asko galtzen,
etzan lapurra zein zan
beñere azaltzen.

Orrela zebillela
alditxo batean,
ajolgabetu zan bein
beretzat kaltean;
egunaz ikusirik
ollar bat aldean,
salta ta artu zuben
letagin artean.

Artzaiak nabaiturik
egin zuben lana,
arrimatu zan ardi
lapurrarengana;
bañan ardiyak utzi
gabe zeramana,
arin joan zan zubela
geroko zer jana.

Ongi begiramena
baldin bada jartzen,
etorkirika(1) eztu
jazkerak muratzen;
esan oi dan bezela
da ere gertatzen:
mudatzen da lurpean
dan denboran sartzen.

Euskal-Erria, XVI, 1887.

(1) *Genio*. (R. Artolaren oarra)

Basaurdea eta zakurrak

Basaurdea igesi,
zakurrak ondoren,
ibildurik luzaro
alde txit alkarren,
ler egin zutenean
atzetik ziranak,
nor beren etxetara
jira ziran danak;
bañan bat allegatu
bañan len berera,
erori zan arkaitz gain
batetikan bera,
eta autsirik anka
bat eta besoa,
mugitu eziñik zan
gelditu gaixoa;
ala gertatzen zala
bigaramonean,
lengo basurde bera
pasatutzen zan an;
eta ikusirikan
etzala mugitzen,
esan zion ia zer
zuben an egiten.
“Jauna —erantzun zion—,
gertatzen naiz gaizki,

illunabarra bañon
len illko naiz noski;
ni izanik denari
diotana txit nai,
ez bainion bedorri
atzo segitu nai,
eta ez niolako
segitzen gogorki,
mendekioa egin
ziraten ederki;
jira giñan denboran
etxerontz guziyak,
pozoia jan eragin
ziran nagusiyak;
bada ez dediyela
kutsutu nerekin,
ni ikutzen naubenak
miña du berekin;
sarri gertatuko da,
bai, pozoiz josiya,
eta nere gisan du
galduko biziya”.
Basaurdeak itz aiek
egitzat arturik,
izututa etzuben
egin otordurik;

ezeren ere gaitzik
egin gabe ari,
segitu zion bere
lengo bideari.
Gauza bat mingañean,
bestea gogoan,

onelakoak gutxi
ez gera munduban;
asko izan oi dira
zakurraren gisan:
onak, gaiztoak ezin
diranean izan.

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Otsoa eta bi ari

Bi ari zebiltzala
mendiyan borroka,
alkar puskatu naian
biyak alkar joka,
otso zar itsusi bat
joan zan berakgana,
pozez zuben denboran
ikusit zer jana;
eta galde eginik
zer lan zuten ari,
zergatik zien gogor
egiten alkarri:
“Jauna —erantzun zion
batek segiruban—,
kulpak ditubelako
jotzen det buruban;
nere ardiyetara
maiz da etortzen au,
eta beren burutzat
ezagutzen ez nau;
bada gaur nai nioke
kastigu bat eman,
berriz segi ez dezan
orrelako teman”.
“Teman? —erantzun zion
segiran otsoak—;
eztu temik egingo
berriz temosoak”.
Eta au esateaz
erantsirik ortzak,

kendu ziozkan bere
zintzurreko otzak.
Segiruban nai zuben
ito bigarrena,
bañan ezaguturik
asmo zekarrena,
esan zion: “Jauna, nik
eztet kulparikan,
ez baitet egin bear
eztan gauzarikan”.
“Igual da —esan zion—
egin naiz ez egin,
nik ez det berriketan
ari nai zurekin;
ori ito det kulpa
berak zubelako,
eta itoko zaitut
zu, ez dezulako”.
Eta eldurik oni
ere lepotikan,
ito zuben ta gero
biyak zituben jan.
*Gaiztoaren mendean
eroritzen danak,
beti izango ditu
eskapatzen lanak;
esan oi dan bezela,
dago ikusiya:
gaiztoak nai dun arte
onaren biziya.*

Otsoa eta txerriya

Zijoala ardiyak
janikan otsoa,
ase ta ezin eman
zubela pausoa,
arkitu zuben loitan
txerri bat etzana,
aztalka zebillela
zikinduba dana;
eta piska btean
begira egonik,
esan zuben: "Eztet nai
jan gauza zikiñik;
izan liteke ere
egotea miñez,
eta nik ala dagon
edo ez jakiñ ez.

Noan, noan itsatsi
ez dakidan miñik,
eztet nai gaur zikindu
orrekin agiñik;
eta kaso geiago
egin gabe ari,
segitu zion lengo
bere bideari.
*Zer jana izan eta
gogorik ezpada,
zernai gauzagatikan
aitzakiya bada:
edo dala gaziya
edo dala geza,
eta paltik aundina
da gogorik eza.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Katuba eta saguak

Egun batez sagu bik
izan zuten era
allegatutzekoa
jankaien gelara;
bañan katu zulo bat
bertan egonikan,
buru austeak onek
ziozkaten eman.
Bada pentsatu zuten,
galdu etzitezen,
katu bildurretikan
libratu zitezen,
bat gelditzea zulo
arretan zalantzan,
besteak beldur gabe
naikoa jan zezan;
segiran bat asirik
miratzen baztarrak,
arkitu zuben gazta
bat, zeuzkana arrak;
eta ar zulo artan
sarturik buruba,
asi zuben lanbide
ustez seguruba.
Orretan egin zuben
katubak *mirrimau*,
eta lagunak ziyon
deitu: "Egin din *mau*".
Bañan oso gustora
nola baitzan ari,

etzion kasorikan
egin esanari;
berriz zuben katubak
txit alde *mau* egin,
eta otsegin zion:
"Mañ berriz egin din".
Bañan gaztan sarturik
nola baitzegoan,
oiu otsik aitzeko
moduban etzegoan;
etzuben aitu bere
lagunaren deirik,
eta etzion egin
deiari kasorik.
Garai artan zulotik
pasarik katuba,
atxitu zuben gaztan
barrenen saguba;
eta trukatu nairik
batetik bestera,
gaztatik pasa zuben
bere sabelera.
*Sagubak zuben gazta-
gatikan biziya
galdu izandu, orra
zer dan kutiziya;
gure artean ere
au maiz da gertatzen:
gutxigatikan asko
prankok degu galtzen.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Astoak

Astokume bat miñez
zanean gelditu,
medikubari zion
bere amak deitu;
sendagin au zan asto
zuri bat aundiya,
aundiyagorik etzan
neurrikoa iya;
pultsuba zionean
artu eriyari,
eta egin milla bat
galdera amari,
txilborrean paratu
zion pegaruba,
arekin arintzeko
ustean buruba;
eta zeukaizkilarik
ezin egon aundik,
irten zan medikuba
eriyarengandik.
Bigaramon goizean
berriz zitzaion joan,
bañan ordukoz asto-
kumea illa zan;
zeñen amak zekarren
ondoan negarrez,

esanaz: "Onen miña
senda zeiken errez;
ill ondoren abotik
odola bota du,
eta orrena zuben,
odolak ito du".
Au aitu ta segiran
lukainkak amari,
esan zion: "Zertan ez
au len esan neri?
Len esan bazenidan
orrek zer min zuben,
zortzi egun bañan len
sendatuko nuben;
bañan nola len esan
ez nazun au neri,
ni ez naiz zer min zuben
kontura erori.
*Astoakgandik zer da
atera deikena?
Astakeriya eta
ondorean pena;
ez dezagun abiltzat
tontorikan artu,
ezpaldin badegu nai
bizirik laburtu.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Artza eta mandoa

Mandoa zijoala
ardo kargarekin,
mendi bidean artza
zuben topoz egin;
zeña asto bat janta
jaisten baitzan beera
egarriyak emanik
erreka batera;
mandoak zubenean
ikusi ura an,
esan zuben dardaraz
jarririk beregan:
“Ba onek emen ill ta
nau segiran jango,
eta da gero ortzak
garbitubaz joango”.
Bañan ez, etzan pasa
alako gauzikan,
galdetu zion ia
zer karga zeraman.
“Jauna —erantzun zion—,
daramat ardoa,
eta ler txar egiten
nekaturik noa;
bedorrek tantatxo bat
eran nai baluke,

prest jartzeko moduba
gingo genduke”.
Eta, esan ta egin,
jatxirik lurrera,
ustu zuten zagiya
errolla batera.
Artza nola senti zan
biziro egarri,
zulo artan gustora
zan eraten jarri;
bañan ain ziyon gogoz
berari eraso,
denbora laburrean
mozkortu zan oso.
Orduban ziran lanak
artzarentzat asi,
erori ta zituben
ortz guziyak autsi;
eta aldaroka non
joango zan mendira,
mandoaren atzetik
sartu zan errira;
zeñetan ziozkaten
azkazalak moztu,
eta limaz letagin
zorrotzak kamostu;

eta katez loturik
komerigille an
gertatu zan mozkorra
pasatutakoan.
*Onek erakusten du
zer dan eratea,*

*geiegik nola duben
egiten kaltea;
bada itxuka sobra
dubenak eraten,
dala oso arrisku
aundietan jartzen.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Otsoa eta saguak

Otso batek arkitu
zuben bein mendiyari
sagu bat, umeakin
zegoala kabiyan,
zeña gertatutzen zan
luzaroan miñez,
jankai billa kabitik
atera eziñez.

Otsoak ikusirik
gaixoa ain estu,
esan zuben: "Beregan
aurkez nadin prestu".

Eta, au esateaz
nai ainbat janari
eraman zion miñez
zefon sagubari.

Andikan gero beste
aldiya batean,
tranpa zegoala otso
zuloko atean,
sagukumeetako
bat gertatu zan an,
eta zuben otsoaz
oroiturik esan:
"Gizarajoa or da
egongo zuloan,

irteteko beldurrez
ez edan ta ez jan;
bada on egin zion
bein nere amari,
eta bear diot nik
egin gaur berari".
Eta, esan bezela,
joanik beragana,
arkitu zuben zulo
barrenen etzana,
gosez eta egarriz
auldurik guziya,
denboraz galdu bear
zubela biziya;
eta ikustez ala
miseriz ain estu,
esan zion: "Ez bedi
batere estutu;
nik aterako dizkat
daukaizkien penak,
irikirikan ate
itxita daudenak".
Eta segiran joanik
zuloko atera,
zepoari ziozkan
indarrak atera;

otsoarentzat zegoen
zepo irikiya,
salta erain ta utzi
baitzuben itxiya;
eta artaz bideak
irikirik oso,
libratu zuben otso
zar zegoena preso.

*Esan oi dan bezela,
egin ezazu on,
naiz emen eta naiz an,
eztakizula non;
bada ekar leizuke
ark ona ta poza,
nola gaizki egiñak
kaltea ta lotsa.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Otsezti gozozko kantarien bilkida

Nola animaliyak
ala egaztiyak,
jakintsun ziran jarri
izandu guztiyak:
sari bat zitzaiola
emango nornairi,
otsezti gozoenaz
kantari zanari.
Bada lan ontarako
zirarenak bildu,
izandu ziran lau, ta
lauk zuten kantatu.
Asto zintaz jantzi bat
asi zan aurrena,
eta ongi zan aitu
arrantza arrena;
bada alakoa zan
zubena atera,
par egin zioten ta
lotsatu zan bera;
eta gorde naiean
asirik igesi,
sasiyak ziozkatzen
zinta denak autsi.
Zozoak egin zuben
saio bigarrena,

eta asko gustatu
zan kantu arrena.
Gero erretxiñola
asi baitzan urren,
eta nola graziya
ederra baitzuben,
bukatu zubenean
kantatzea oso,
entzun zutenak txalo
asko zizkaten jo.
Gero allegatu zan
ollo erreala,
arranoa apaidin
ondotik zubela;
eta bere isatsa
zabaldurik oso,
jardun zuben kantatzen
bizi garboso.
Bukatu zubenean
bere kantaera,
etzuben iñork ere
txintikan atera;
bañan andikan sarri
zuben batek esan,
kantaririk onena
olloa zala an;

eta ontzat emanik
denak aren gisan,
ollo errealan zan
sariztuba izan.
*Artaz erretxiñolak
zer zuben esango?*

*Zer zan bere kantuba
aurrera izango?
Len alai bezela
oso penatuba,
edo-ta geldituko
zan txoil mututuba.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Arratoiak eta zakurra

Arratoi bik urdaia
zutelako jaten,
zakurra zan beraren
zalantzan egoten;
eta arratoietan
bat atxiturik bein,
ortzen tartean zuben
puska-puska egin.
Lan artan ikusirik
bere nagusiyak,
eta nola jaun onek
etxeko guziyak;
sariztzat eman zien
otordu eder bat,
artean egin zuben
onena bai anbat,
esanaz bakoitzari
kentzean biziya,
izango zubela zer
jana nai guziya.
Zakurra pozturikan
esan ziotenaz,
eta zegoala beste
arratoia penaz,
onek zion, au ere
triskilla etzezan,

zulotikan buruba
atera ta esan
konpontzio bat bear
zutekela egin,
ongi etor zitezen
biyak alkarrekin;
bada arratoi illak
ark billaturikan,
eramango zizkala
agertu zitzan an;
eta engañaturik
berakin nausiya,
izango zubela zer
jana nai guziya;
bañan onetarako
ark ere zer jana
naiko zubela, egin
ezkeroztik lana.
Zakurrak esan ura
ontzat arturikan,
etzan gertatu izan
aurrera gerrikan;
ala paltso ark eta
arratoi azkarrak
maiz egiten zituzten
otordu ederrak.

Modu artan zirala
gozotoro bizi,
etxeakoak zituzten
bein biak ikusi
ari zirala plater
batetikan jaten,
eta alkarri beren
jolasak esaten.
Orduban igarririk
zerabilten tranpa.
zakurra zuten egin
bertan zanpa-zanpa;

eta emandakoan
eman al guziyak,
etxetikan biraldu
zuben nagusiyak.
*Ispillutxo onetan
begira dezagun,
geren bururik gaizki
arki ez dezagun;
ogi emalleakin
traidorea danak,
emango dizka bere
burubari lanak.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Etxe konejuba eta erbiya

Koneju bat irten zan
etxetik igesi,
esanaz: “Libre nai det
kanpoetan bizi;
aspertu naiz betiko
ukulluko txokoz,
libertade gabeko
bizitza etxekoz;
bada munduban beste
asko diran gisan,
libre nai det nik ere
gaurdandikan izan”.
Ontan topaturikan
erbi bat mendiyen,
zegoala eguzkiya
artubaz zelayan,
esan zion: “Egun on,
menditar gaztea,
atsegin det orrela
onez ikustea;
ni egon izandu naiz
itzalean beti,
eguzkitara irten
eziñik etxeti;
eztegu pasa izan
bizitza iguala,

zu emen onen ongi
eta ni an ala”.
Zeñen erantzun zion
erbiyak berari:
“Bada kanpoa gutxi
gustatzen zait neri;
naiago nuke bizi
nik etxe barrenen,
eta ez egun eta
gau beldurrez emen”.
“Ai! —esan zion—, ori
iristen errez da,
neke aundirik egin
bearrikan ezta;
zuaz ni irten naizen
etxera segiran,
eta beldurrik gabe
biziko zera an”.
Agerkai oek egin
ondoren alkarri,
etxerako bidean
zan erbiya jarri;
eta etxetik arontz
joan zana igasi,
bizi modu berriyan
saiatzen zan asi.

Asi zan, bañan etzan
luzaroko izan,
iru egun bañan len
tranpan erori zan;
eta erbiya berriz
etxera joan zana,
laugarren eguneko
izandu zan jana.

*Eztegu ontzat artzen
izate gerena,
inbiriya degu guk
beti besterena;
eta aren tokiyan
bagerare jartzen,
lengoari diogu
inbidiya artzen.*

Euskal-Erria, XVI, 1887.

Miruba, saguba, zakurra eta otsoa

*(Nere adiskide itz neurlari bikain
Felipe Arrese jaunari)*

Mirubak zeramala
gazta bat zezan jan,
erori ta zitzaion
erriotxora joan;
eta urak indarra
nola baitzeraman,
buelbaka zion zenbait
bidean eraman.

Sagubak ikusirik
urtan gazta ala,
zakur zar bati deitu
zion beriala,
esanaz aren gazta
urak zeramala,
eta arren ta arren
atera zezala.

Ateratzen bazuben,
bere lanagatik
irutik bat emango
ziola gaztatik;
eta, zakurrak pozez
saltarik bertatik,
gazta guriya zion
atera urtatik.

Bañan miruba ere
jatxi baitzan bera,
gazta ura arena
zala esatera;
eta abiyaturik
ezta eta bada,
sagu mirubak zuten
naspilla bat para.

Ezin konponduz ziran
joan otsoagana,
onek zuzen zeikien
zerabilten lana;
eta ondo aiturik
kontu pasa zana,
esan zien: "Da gauza
zuzenduko dana".

Jankaia iru puska
segiran egiñik,
esan zion zakur zar
ari otsegiñik:
"Urtatik dekalako
gazta atera ik,
irutatik bat to ta
joan ari emendik".

Zakurra zan denboran
puska arekin joan,
otsoak beste biyak
berak zituben jan;
eta jabeak nola
begira zeuzkan,
biyori zizkan papur
sobratubak eman.

Esanaz: "Kobraturik
nik neronen lana,
au da emen zuentzat
sobratutzen dana;
eta partizioaz
kontentu ez dana,
keja dedilla beste
otso batengana".

*Nola kejatuko da
indarrik gabea,
jan lezakena bada
indarren jabea?
Beragatikan batek
jo ez dezan bea,
ez okerreratzea
du askoz ohea.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Itsasoko arraiak erriean

Itsasotikan zenbait
arrai erriora
pasaturik, ur ontan
igo ziran gora;
eta noizik bein putzu
txulotara joanaz,
beretan zebiltzala
arrai txia janaz,
sorturik euri paltaz
legorte aundiya,
ur gabe gelditu zan
errioa iya;
eta beren burubak
ezin estalduz an,
itsas arraiak oso
zirala esturan,
Jupiterri zitzaizkan
erreguzka jarri,
arren aska zezala
ekaizte bat sarri,
turmoi soñuz dardaraz
jar zitzala goiak,
eta tximistaz parti
zitzala odoiak;

legorrekoak urtan
galtzen ziran gisan,
ur paltaz berak galduk
etzitezen izan.
Eta ala euriya
jaikirik ugari,
itsasora joan ziran
arraiak igari.
Orduban Jupiterri
makiña bat grazi
emango ziozkaten,
baizitun merezi?
Bai, bear! Bañan zien
mesprezioz esan
ur loitsuba ziela
biderako eman.
*Gure Jaungoikoari
guk ere au bera
egunero egiten
diogunak gera;
zenbait on beragandik
zaizkigun etortzen,
on aiek esker gaiztoz
dizkagu pagatzen.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Zigor txiki iya eta makil gai aundiya

Txaran lerdan arkitzen
zala makil gaiya,
zeren aldamenean
baitzekarren iya,
ark oni esan zion,
azaldubaz parra,
ia zertan zan jaiio
ain gauza ttattarra,
edo zertako etzan
geiago azitzen;
danen parragarri an
zertan zan bizitzen;
lotsagarriya zala
ain gauza txikiya,
desoneratzen zula
makildei guziya;
ez indar, ez balio
eta ez itxura,
zala gauza bear ez
bat jaiio mundura.
Zeñi erantzun zion
iyak seguruban
bearrak gauza denak
zirala munduban;
bada ura zein ta zan
sendo indartsuba,

gizonari sartuko
ziona izuba,
burubak puskatubaz,
ezurrak autsiyaz;
ez bizitzeko gero
sobra pantasiyaz;
ark kontatzen zubena
txiki ezer eztat
gerta zitekeala
aundiya arentzat;
oroi zedilla ongi
onelako makil
nola zuben alkate
baten zigorrak ill;
nola makil txikiya
izan arren iya,
menderatu zuben ain
makilla aundiya;
bada berriz ere gai
artan bazan jartzen,
ikusiko baitzala
mereziyak artzen,
eta artaz jaikirik
makilla kontura,
geroz errespetatu
zuben zigor ura.

*Onek erakusten du
aundi txiki denak
dirala mundu ontan
bear diradenak;*

*bada askotan ezer
ezetzat daudenak,
dituztela azaltzen
lanikan onenak.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Zakur-katubak

Biyak etxe batean
ziralarik bizi,
zakurrik ezin zuben
katubak ikusi;
zarpazoka zekarren
mendean artuba,
betiko pozoikeriz
izuba sartuba;
eta ala zirala
gaizki alkarrekin,
gertatu zan bein oker
bat katubarekin:
bada eltzetik ari
zala lapurretan,
eltzea irauli ta
erre baitzan bertan,
eta itxukan jorik
onera ta ara,
non irtengo zan andik
sartu zan surtara;
an berriz arturik su
triparen azpitik,
atzekitik, burutik
eta bizkarretik,
gertatu zanean ain
estura larriyan,

alderdi danetatik
iya kiskaliyan,
asi zan zakurrari
laguntza eskatzen,
anparatu zezala
arren eta arren.
Bañan zakurrak nola
lagunduko zion,
zegon lekutik altxa
gabe esan zion:
“Kiskal ari nai baden,
erre ari bertan;
ez naun ik len lagundu
izandu ezertan”.
Eta ala abotik
zeriola kia,
kiskali zan katu zar
len saldaz erria.
*Nor nolakoa izan
oi dan besterentzat,
beste alakoa da
gertatzen beretzat;
prutu gozoen jabe
nai dubenak egin,
azi onak len berak
biaitu erein.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Azeriya

Lapurtuta mendiyen
gazta zeramala,
abotik joan zitzaion
tinbili-tanbala;
eta ziolarikan
segitu berari,

leitz zulo txar batera
zitzaion erori.
Euskal esankai zarrak
diona: "Mari Juan,
gure portunak nola
etorri ala juañ".

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Bare kurkulloa, barea eta belarra

Bare kurkuil bat ezin
igoz paretean
zebillela, gertatu
zan barea bean:
eta ark zion oni
esan: "Ai, laguna;
etzan iguala sortu
biontzat portuna.
Ni nabil jaio nintzan
ezkeroz nekean,
etxetzar au detala
beti bizkarrean;
eta zu berriz neke
gabe bizi zera,
kurkullaz kargatuba
ibiltzen etzera.
Ai nork leukaken zure
bizimodu ona!
Ai zein tristea dan ni
bezela dagona!"
Eta bareak ura
zioanean entzun:
"Tristiago bizi naiz
ni —zion erantzun—,
esturan gertatzean
non gorderik gabe,

ez naizelako etxe
kurkuil baten jabe;
noiz bañan noiz piztiyak
nauten eramango,
eta odol guziyak
txupatubaz jango;
itzul egin nai eta
lasterka joan ezin,
urrikalgarrigorik
al da bat ni bezin?"
"Bai, bada —esan zion
belarrak berari—;
okerrago gertatzen
zaigu askoz guri;
arrimatzen badira
gugana ardiyak,
leporik gabe uzten
gaituzte erdiyak;
eta segarik bada
berriz arrimatzen,
ipurditikan gaitu
guziyak pikatzen".
"Ala da —esan zuten
bareak orduban—;
gu bañan gaizkiyago
badira munduban".

Eta ala aitzeaz
pena iñorenak,
bertatik zitzaizkaten
gutxitu berenak.
*Gurekin gertatzen da
beste onenbeste,*

*denok baitegu gaizki
gerarela uste;
eta ikusitzean
gaizkiago beste,
orduban ezta penik
sentitzen ainbeste.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Kobrezko paziya eta burnizko pertza

Paziya lagatzetik
zalako erori,
kolpe batekin egin
zitzaizkan zulo bi;
eta eramanikan
konpontzera bera,
onen tokiyan pertza
zuten lagatzera.
An para zuten bañan
nola burniya zan,
eta luzarotxoan
ibilliya etzan,
erdoiak janik eskin
bat zitzaion ausi,
eta *zar-zar-zar* pixa
egiten zan asi.
Ontan paziya zuten
berriz etxeratu,
eta onek, zanean
sukaldera sartu,
esan zion, kopeta
bezturik, pertzari:
“Ken ari ortik, zikin
zar ipurt beltz ori;
suba itzaldu baizik
eztek ik egiten,

eltzeari eztiok
uzten irakiten”.
Eta kendu eraiñik
zegon lekutikan,
zintzillik bera jarri
zan lagatzetikan.
Jarri bai, bañan sarri
zan gaizki ikusi,
lotsagarri pertzaren
moduban itsusi:
bera zalako gaizki
konponduba izan,
perzaren gisan pixa
egiten asi zan;
eta etzitzan oso
su denak itzaldu,
zuten zanpaturikan
urtutzeko saldu.
*Askotan gertatu oi
dana baita ori:
par egitea parra-
garriyak iñori,
esanaz pazi zarrak
bezela pertzari:
“Ken ari ortik, zikin
zar ipurt beltz ori”.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Azariya eta ollarra

Azari zar bat zala itxitu
baten ondotik pasatzen,
barrunbe artan sentitu zuben
ollar gazte bat kantatzen;
eta egonik nola atzeman
zezaken ura pentsatzen,
itz legunakin asi zitzaion
pallakatzen ta tentatzen.

Esanaz: "Ai, zein ederra dezun
zere kantuko graziya!
Zurekin berdin litekenikan
ezta izango bat iya;
ez naizen gisan ni banitz zure
jabea edo nausiya,
zurekin nuke zu erakusten
jirako mundu guziya.

Bada kantuban orrenbesteko
graziyakoa bazera,
korputzez ere nolanaikoa
noski izango etzera:
ia piska bat azal zaitia,
ia pixka bat atera,
ikus zaitzadan zer korputz dezun
eta zer dezun jazkera".

Itz oek aitu eta jarririk
ollar gaztea kezketan,
erantzuera segiran eman
zion itz bide oetan,
esanaz: “Kanpo ortan nor dagon
nola ikusten ez detan,
irten bañan len nai nuke jakin
norekin naguen izketan”.

Oni erantzun zion: “Ni nazu
auzoan bizi naizena,
oso leiala eta prestuba,
gauza guzitan zuzena;
askoren gisan gaiztakeritan
ibilli oi ez naizena,
mundu guziyak maite naubena,
azariya det izena”.

“Lenaz aitzerak banituben, bai,
ziñala azkar argiya
—erantzun zion—; zendubela zuk
kontzientziya garbiya;
ala, esaten ari zerana
izan liteke egiya,
bañan dezu zuk prestubarentzat
mokoa txorrotxegiya”.

*Itz makur onek azariyari
etzion egin onikan,
bada besterik gabe salta ta
ezkutatu an andikan;
ez, berriz ere fama galduba
daukanak lenaztandikan,
eztu egingo eraro berak
buruban daukan lanikan.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Bi langille lagunak

Bat izanik zapata
zar konpontzalea,
zan oso kontuzkoa
eta langillea;
bere laguna berriz
santu egillea,
azkarra bañan ez txit
fortunagillea.

Onek zekielarik
errez irabazten,
gorputzaren tokiyan
tripa zuben jazten;
bada goizetik nola
zan asetzen asten,
etzuben txanponikan
sobratzen ikasten.

Zapatariya berriz
zintzoro bizi zan,
gutxi beren lanetik
sobratzen ari zan;
eta ala langille
ona naiz ez izan,
azaltzen zan txukunki
onenaren gisan.

Ontan egun batean
zapatariyari
zitzaiola burlaka
langillea ari,
aserratu zanean,
errabiz berari
esan zion: "Zertan aiz
i orrela ari?"

Egiya dek aizela
ona langillea,
bañan ez aiz batere
fortunagillea;
ik dek zillarrezkoa
abillidadea,
bañan urrezko tripa,
au eztek obea".

*Azkartasun aundiyak
asko du baliyo,
berarekin liteke
bat goitxora iyo;
bañan tripari sobra
ematen badiyo,
aren azkartasunak
orduban adiyó.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Txerriya

Au nola maiz ibilli
oi zan ausnarrean,
sudur puntaz egiñaz
zuloak lurrean,
egun batean izan
zuben suertea
billatzekoa eltze
bat urrez betea;
eta pozez berari
begira jarririk,
esan zuben: “Fortuna
gaurdandik daukat nik;
segiruban joango naiz
nagusiyagana,
kontatutzero zer dan
billatu dedana,
esanaz bizitza on
bat nai badit eman,
esango diotala
fortuna non dagoan;
bada nola naizen ni
tripazai jalia,
eman deidala urre
truk naiko alia,
eta ez nazala ill
bigar edo etzi,
biar dirala nere
miñez iltzen utzi”.

Au esan ta segiran
bere pozarekin
salto zion gañetik
eltzeari egin.
Andik sarri berriro
jarririk pentsatzen,
beregana esan zuben:
“Gutxi det eskatzen;
eskatu bear diot
ere nere gisan
bear dubela nere
bi semeak izan”.
Ontan salto bat egin
zuben alakoa,
lengoa bañan ere
aundiagokoa.
Berriz eltze zarrari
jarririk begira,
esan zuben: “Ezta din,
eske au gutxi da;
eskatu bear diot
ni bezel-bezela
illobatxoak ere
izan ditezela;
eta beren seme ta
aien ta aienak
ere ez gaizkiago,
ni bezela denak”.

Au esan ta arturik
eltzea ortzetan,
gordetzeko ustetan
an gaintxoan bertan,
aldaparan igotzen
zan denboran asi,
ortzen tartean zuben
eltze zarra autsi;
eta nola txit bean
baizijoan ura,

pirrilka joan zitzaizkan
urreak putzura.
*Nola geldituko zan
txerriya orduban?
Zer oroimen jaikiko
zitzaizkan buruban?
Gerorako ametsez
ez geiegi poztu,
etorkizunak alde
segururik eztu.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Bi ollarrak

Seta txar bat jabeak
zutelako artu,
ollar biyak borroka
zituzten paratu;
eta gorroto gabe
ziralarik jarri,
oso gogor zioten
eraso alkarri;
bada lan artan ari
zirarela biyak,
kolpeka kendu naian
alkarri begiyak,
bata bestea bañan
lenago aulduta,
eroririk lurrera
indarrak galduta,
onek azpitik esan
zion besteari:
“Ai, lagun, lagun! Gaizki
gaituk ontan ari;
iñoiz guk alkarrekin
ezer izan ez ta
bestegatik egiten
odolezko pesta”.

“Ala dek —esan zion
besteak orduban—;
zenbait buru gaiztoko
bagaituk munduban;
bañan alaz ta ere,
ontara ezkerro,
ez diat barkatuko
naiz damutu gero”.
Eta au esateaz
erasorik berriz,
alkar biyak berriro
bete zuten zauriz;
eta bat azpiyan ta
bestea gañean
illak biyak gertatu
ziran azkenean.
*Onek erakusten du
kulparen jabeak-
gatik iltzen dirala
kulparik gabeak;
eta ala, jasoko
balitz au buruban,
elukela gutxik on
izango munduban.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Otsoa eta igaraba

Otsoak ikusirik
igaraba urtan,
nola bereganatu
zuben arrai bat an,
egonik bera baztar
batean gordeta,
legorrera zanean
esan zion joanta,
etzeukala etxean
ezer zer janikan,
eta arrai uraxe
nai zukeala jan;
eta arrantzaleak,
izuturik oso
ikusitzeaz bere
buruba an preso,
segiran arraia ta
bera jan etzitzan,
esan zion: "Ez deike
ori, jauna, izan;
gaur da nere aixkide
on baten eguna,
eta nola baitetan
bizirolaguna,
lenaz aginduba det
arraia berari,

eta ezin paltatu
neioke gaur ari;
bestetik gauza pixka
da au bedorrentzat,
eta naiko otordu
ederra arentzat;
bada emendik ez da
arkitzen urrian
sare zar bat dagona
legortzen lurrian,
eta mutur batetik
artzen badu ura,
ni naiz bestearekin
sartuko putzura;
eta an biyok, neke
aundirikan gabe,
egingo gera naiko
arraia jabe".
Eta ala arturik
ontzat ark esana,
sarri billatu zuten
sare alde zana,
zeñen otsoak ori
firme el zeikion,
edo zarpatik itzul
egin etzeikion,

trabatu erain ere
baitzion lepotik,
eta prest zan denboran
jarri legorretik,
igarabak saltarik
oso ur aundira,
andikan zion gogor
sareari tira;
eta iraulpeturik
otsoa aurrera,

zilipurdika joana
izan zan urera.
*Gizonak du esturan
egon bear ernai,
bere etsaiak egin
ez dakion zernai;
ala gaiztoarekin
badu zerbait tratu,
aren itzik egitzat
ez bezala artu.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Legoia eta astoa

Uste gabean alkar
topoz jorik biyak,
asto onari zion
agindu legoyak
jo zezala tronpeta
beldur gabe lasa,
egin zezala oi
aundiko arrantza,
otsegin zekiola
bere lagunari,
ia jateko zerbait
biltzen zion ari;
eta ala tronpeta
jorik segiruban,
beriala bi asto
aurkeztu ziran an,
zeñen legoiak biyak
itorik segiran,
bat zuben gorde eta
bestia berriz jan;
eta aurrera ere
tranposoa ala
bizitzen zan astokiz
mantendutzen zala;

bañan bere astoa
denboraz zan zartu,
eta ezin zubela
asnasikan artu,
gelditu zan tronpetik
jotzen etzubela,
bere auspo zarretan
min artzen zubela;
eta orduban legoi
nagusi zubenak,
non arinduko zizkan
zeukaizkien penak,
zintzurritik sarturik
bere letagiñak,
atera zizkan auspo
zarretako miñak.
*Ez degu joan bearrik
legoiarengana,
au da gure artean
maiz gertatzen dana:
zartu ta ezin egin
dan denboran lana,
esker gaiztoz iltzea
langillea zana.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Basaurdea eta txori izutzallea

Negu batez emanik
elurte aundiak,
zuriz estali ziran
zelai ta mendiyak;
eta zenbait denboran
segiturik ala,
lur apurtxo bat beren
ikusten etzala,
basaurde bat gertatzen
zan oso esturan,
amorratzen gosez ta
etzubela zer jan.
Bada ain gaizki joanik,
egun goiz batean,
iruriturik zerbait
gauza apartean
zelai baten erdiyan
mugitzen etzala,
pentsatu zuben ura
gizonen bat zala;
bañan ark zala uste
zubena gizona,
zan makil gizonaren
jantziyan zegona;
bada pizti gaiztoak
menditik jetxirik,

eta makurka bera-
ganontz iritxirik,
salto bat egin zion
ura alakoa,
non jota bota zuben
ain gizon plakoa,
eta sartu ziozkan
agiñak berari;
bañan nola itsatsi
zizkan egurrari,
esan zion: "Barkatu,
ez artu gaitzera;
ez naiz etorri zuri
gaitzik egitera".
Eta penaz emanaz
burubari jira,
berriro zelaitikan
igo zan mendira.
*Modu onetakoak
beti dira asko:
onak gaiztoak ezin
izan diralako;
leku txarrean sartzen
badute agiñik,
ez dutenak eman nai
izaten an miñik.*

Euskal-Erria, XVIII, 1888.

Ollo-erreala eta antzara

Ollo-erreala txit
ederra nola zan,
antzarak gustaturik
maiz oi zion esan
aren edertasunaz
amurusten zala,
bere berdingarririk
beste bat etzala;
ain loreztuba zala
bere aitsarkiña,
irurizten zubela
pinturaz egiña,
eta ain zala bera
lustratu apaña,
dizdiratzen zubela
eguzkiyak aña;
kantatzeko graziya
berriz ark zubena
zala munduban beste
iñork etzubena.
Azken itz au pallakaz
esaten baitzion,
bañan alaz ta ere
olloak etzion
artzen gaizki, ezpada
parrez aitzen zion,

zeren itz gozo ura
gustatzen zitzaion:
eta bere truk egin
nairik zerbait grazi,
zitzaion kantatutzen
erakusten asi,
noizik bein bere lumaz
apaintzen zubela,
ark ere txukunkiro
luzi zezan ala.
Geroago kantari
piska bat ikasi,
eta luma politez
zan denboran jantzi,
antzarak artu zuben
urgullu aundiya;
eta erakutsiyaz
bere pantesiya,
egun batean zion
esan olloari
etziola grazirik
arkitutzen ari;
lenago eman izan
oi ziozkan famak,
gezurrezko pallakak
baitzirala danak;

bada jakin zezala
ederra etzala,
askoz ederragoa
ura bera zala.
Oloak esan artaz
zularik egin far,
penaz bere barrenak
zion egin negar,
eta damuturikan
egin bide lenaz,
denbora joan ondoan
gelditu zan penaz;
bañan andikan sarri
antzara zarrari

zitzazkan luma polit
postizak erori,
eta itsusituta
zakarturik dana,
antzara gelditu zan
len antzara zana.
*Onek erakusten du
urgullua zer dan,
gauza zatarragorik
bestarik ezer dan;
txiki aundi naiaren
pauso itsusiyak
azkenik bea jotzen
dutela guziyak.*

(1) *Pavo real*. (R. Artolaren oarra)

Aingira

Maiz sartzen zan arroka
bateko zuloan,
iñoiz zala gelditzen
irten gabe lo an;
eta aldi batean
gizendurik oso,
gelditu zan egotei
estu artan preso;
bañan ainbesterañon
saiaturik bera,
nolabait zan arroka
zulotik atera;
ura ala pasa ta
andik gero sarri
berriz zion jira bat
eman leku ari;
eta tentazioak
jaikirikan ala,
eta ikusirikan
kabi zitekeala,
berriz sartu zan lengo
arroka zuloan,
eta uste gabean
gelditu zan lo an;
bada lengo kontuba
gertatu zitzaion,
nonbait egotei arrek
on egiten zion,

eta lenaz gañera
txit gizendurik an,
arkitu zan atera
eziñik andikan;
eta bere buruba
ikusteaz ala,
zulo artan kabitu
ezin zitekeala,
negarrez zion oiurik
egin zerubari,
arren laguntza biral
zeikiola ari;
eta an gertaturik
Erkules orduban,
kontuz arroka milla
puska egin zuban;
bañan pusketan batek
jorikan muñetan,
aingira tzarra illa
gertatu zan bertan.
*Onek erakusten du,
batek galbidea
ikusten badu, truka
dezala bidea;
uts orde ez dedilla
irriskura jira,
bera gerta ez dedin
kontuko aingira.*

Azari ama umeak eta mediku astoa

Intzirika zegoala
azarikumea,
nabaiturikan amak
ain penaz umea,
joan da galdetu zion
ia min non zuben,
ia zerbait jankai txar
tragatu al zuben;
eta erantzun zion
baietz, ala zala,
luma ta guzi ollar
bat tripan zeukala;
ezin janik buruba
utzi zubela an,
gañerako guziya
zekarrela tripan.
Eta amak arturik
buru ark utziya,
pitsarrik utzi gabe
jan zuben guziya.
Segiran billaturik
medikuba non zan,
umeagana asto
zar batekin joan zan;
eta onek zintzoro
arturik pulsuba,
esan zion zeukala
oso min pisuba;

menenokiya zala
zerbait jan zubena,
eta abotik bota
bear zala dena
bada ura ezpazan
egiten lenbait-len,
illko zala umea
ordu bi bañan len.
Amak esate ura
zubenean aitu,
beretzat ere igual
baitzuben aditu,
eta zion mediku
astoari esan
berak ere zubela
jankai ortatik jan.
Orduban medikubak
meneno denak an
bota zitzaten, zien
ur zuri bat eman;
eta umea goika
asirik lenbizi,
bota zuben ollarra
lumaje ta guzi;
eta amak nola zer
botarik etzeukan,
este denak zituben
bota abotikan;

eta sendaturikan
lenaz min zubena,
itota gelditu zan
miñik etzubena.
Orain ere badira
zenbait onelako,

sendagai bat dutenak
min guzientzako;
zeren ez duten gaitzik
ere ezagutzen,
eta indarra artzen
dienak laguntzen.

Bi kanpaiak

Biyak ziralarikan
torre batekoak,
etziraren biyak lan
bide batekoak;
batek jotzen zituben
erlejuko orduk,
eta ager erazten
noiz ziran otorduk;
besteak berriz, nola
zan gazte berriya,
buelbaka zuben gortu
arazten erriya;
ezagun zan aboan
etzeukala miñik,
ezin zuben ixillik
iruki mingañik;
nabaitzen baldin bazan
festaren usairik,
etzan aitzen beraren
danbadak besterik,
maiz esaten ziola
bere lagunari
ia zertan etzion
segitutzen ari,
dantzan eta oiuka
erriya jolasten;
zertan etzuben pauso
mantzar ura uzten.

Bañan zarrak kasorik
egin gabe ari,
segitzen zion bere
zekarren lanari.
Modu ortan gertatzen
zirarela biyak,
bein izanik eguna
erriko patroyak,
kanpai gaztea dantzan
asi zan torrean,
eta ain zebilela
gogoz indarrean,
abotik joan zitzaion
mingaña aidean,
gutxienaz bi torre
ain altu bidean;
eta kanpaia bera,
oso artesirik,
ill zan, eta zarra zan
gelditu bizirik.
*Oner erakusten du
amaika gazteri
gertatutzen zaiola
beren paltaz ori;
lasterka nai dubenak
mundu ontan bizi,
lasterka joango dala
mundutik igesi.*

Euskal-Erria, XIX, 1888.

Animali eskolatubak

Jabeak eman zuben
aitzera erriyan,
ikusiko zirala
plazaren erdiyan
tximuba, legoi zarra,
zaldiya ta artza,
egiten komeriya
moduko jolasa;
eta bildurik zenbait
jende ikustera,
esan bezela ziran
guziyak atera;
atera ziran bañan
legoirik etzan an,
onen larruz jantziya
astoa irten zan;
eta jarririk bata
bestien urrena,
tximuba asi baitzan
lanean aurrena;
onek palanganean
arturikan ura,
abiatu zan bizar
eballe modura,
atzaparka egiten
jaboi ur aparra,
legoiari beratu
zeikion bizarra;
eta kokotz azpiyan
pararik zapiya,

zuritu zion bizar
zekarren guziya;
bada segiran asi
zezan bere lana,
atera zuben kana
bateko labana;
eta kendurik bizar
zekarren erdiya,
afarretan zeukala
beste alderdiya,
asto lasaia asi
zan tronpeta jotzen,
ingurutako denak
zitubela gortzen;
eta izuturikan
zaldi atzekoa,
salto batez tiratu
zuben ostikoa,
eta arekin jorik
kopetean artza,
bota zuben ta agur
asi zan konpartsa!
*Tontoari ez eman
baliozko lanik,
zeren ez dezaken ark
egin gauza onik;
eztubenak nai irten
gero parragarri,
tontoarekin ezer
lanetan ez jarri.*

Euskal-Erria, XIX, 1888.

Otsoa, auntza eta artaldea

Ardiyak zebiltzala
ur eskin batean,
beren ariyagandik
zerbait apartean,
auntza ikusi zuten
alde beretatik,
otsoak segitutzen
ziola atzetik;
eta izuz beterik
ikusteaz ura,
beren burubak bota
zituzten putzura.
Auntza ere jetxi zan
ur baztar artara,
bañan etzuben sartu
nai izan urtara,
ezpada saltatubaz
arritik arrira,
pasa zan errioan
beste alderdira;
andik egonik otso
zarrari begira,
ikusi zuben joaten
oso urrutira;
eta zegoan tokiya
izanik kaskarra,

berriz lengokora zan
paza auntz azkarra.
An topoz egiñikan
ariya ta biyak,
galdea egin zion
segiran ariyak
ia zekiyeen ango
ardiyak non ziran,
eta erantzun zion
nola galduk ziran;
otso bat jatxirikan
menditikan ara,
aren igesi salto
zirala urtara,
eta zilipurdika
ibillirikan an,
itota nola urak
zituben eraman;
bera ere ezpalitz
azkartxoa izan,
antxen itoko zala
gaixo aien gisan;
bañan salto emanaz
arritik arrira,
pasa zala urean
beste alderdira.

“Zer azkartasuna dan
zuk egin dezuna!
—esan zion ariyak—.
Zer gauza! Zer lana
urian pasatzea
arkaitz gañetatik!
Ori begik itxuta
egingo nuke nik”.
Eta ala zeudela
biyak jarduketan,
berriz zuten otsoa
ikusi txit bertan;
eta abiyaturik
beraren igasi,
errioan pasatzen
baitziraren asi;

bañan erdi parean
ziranean biyak,
txirrist egiñik arkaitz
gañean ariyak,
pitipun erori ta
ito zan urian,
eta auntza pasa zan
lengoko bidian.
Urgullu geiegirik
ez da bear izan,
ez dedin bat gertatu
ariyaren gisan;
guk maiz besteren lanak
errezak ditugu,
eta gaizten zaizkigu
artan jartzean gu.

Euskal-Erria, XIX, 1888.

Ontza eta satorra

Egunaren erdiyan
ontzak nabaiturik
zebillela satorra
bideak galdurik,
etxea non zekarren
ezin asmatu-rik,
burlaz galdetu zion
nai zuben argirik.

Zeñek erantzun zion
bera burlatzeko:
“Nik ez diat argirik
bear neretzako;
ekar zak eguzkiya
bañan iretzako,
ura dek argi ona
itxubarentzako”.

*Esan oi dan bezela
da ere gertatzen;
gaitza askok dubela
beretzat ekartzen;
burla iñori egin
naian danak jartzen
emanaren ordañak
ditubela artzen.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Otsoa ta artzaiak

Otso bat sarturik bein
txabola batera,
izan zuben zer jana
arkitzeko era:
surtan egoskaiakin
tupi bat zegona,
buruba sarturik an
ustu zuben dana;
bañan ustutzeaz bat
larritu zan bera,
bururik ezin zula
tupitik atera;
bada ain zalapartan
asirik igasi,
mendiz bea jo zuben
tupi zar ta guzi.
Toki artan gertatzen
ziran bi artalde,
beren artzai mutillak
zituztela alde;
eta biyak joanikan
otsoarengana,
galdetu zien zer zan
zerabillen lana.
“Jaunak —erantzun zien
txapela ta guzi—,

txabola zuenean det
otso bat ikusi,
zeña ari zan jaten
tupi ontatikan;
eta tupiya bera
ere ez dezan jan,
ezpañetatik diot
tiraka atera,
eta au ekartzera
jatxi naiz onera”.
Artzaiak igarririk
ura zer txori zan,
eta ark zitubela
tupiko gauzak jan,
kendutzen ari gabe
tupiya burutik,
beste aldera zuten
biraldu mundutik.
*Otsoak gaizgandeak
zituben aundiyak,
bañan bai eta ere
artzai gazte biyak;
berriz ere gaiztoak,
izketan naiz jakin,
maiz ditu arkituko
lan txarrak berekin.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Bi gabiraubak

Bein biyak zebiltzala
atxitzen txoriyak,
alkar jo ta erori
ziran goitik biyak;
eta mugituzeko
gauza etzirala,
iya azkenekotan
arkitzen zirala,
batak besteagana
jirarik buruba,
esan zion: "Ai, zabar
tzar asto itsuba!
Ere bidean kontuz
ez aizelako joan,
orra zer lan on petral
orrek egin naukan".
"Ez nauk batere egin
obea ik neri

—erantzun zion—; ai zer
argiya enguen i,
ez begiratuzeko
nondikan ijoan!
Obe ukan zintzogo
baldin baintzan joan".
Eta ala zeudela
leian edo teman,
azken asnasak biyak
eman zituzten an.
*Atsekabeak lenaz
daude prest guretzat,
guk egin arren kulpak
beti besterentzat;
bada ala kolerak,
gerrak nola gaitzak
beti izango dira
itzuritzen*(1) gaitzak.

Euskal-Erria, XX, 1889.

(1) *Evitar*. (R. Artolaren oarra)

Otsoa eta beorrak

Beorrak zebiltzala
belardi batean,
ikusi zuten otso
bat aldamenean;
eta ziralarikan
berataz izutu,
etzuten izuz iges
biderikan artu,
ezpada bildu ziran
guziyak batera,
otsoari arpegi
atzez ematera.
Otsoak, ikustez
zirala elkartzen,
eta ziozkatela
atzeak ematen,
bati zion siñu bat
egiñaz otsegin,
esanaz nai zubela
arekin itzezin;
belarrira gauza bat
nai ziola esan,

iñork bestek zer gauza
zan jakin etzezan.
Zeñi erantzun zion
segiran beorrak,
arrek bi belarriyak
zitubela gorrak,
eta obe zubela
berak argana joan;
aituko ziola zer
esan nai zion an;
eta ez izanikan
otsoa aien din,
jira ta joan zan senti
zubela tripan min.
*Onek erakusten du
dala txit bearra
txikiyak alkartzea,
au dala indarra;
zenbat balio duben
iñoiz latztasunak,
salbatzeko nor bera
ta bere lagunak.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Zaldiya eta astoa

Biyak jabe bat izanik
astoak eta zaldiyak,
etzuten egiten lanik,
ongi bizi ziran biyak.

Indar pantesiya zuben
astoak, gutxi izanik;
zaldiyak berriz etzuben
erakutsi nai zubenik.

Ala bein nairik progatu
bien indarrak nausiyak,
gurdi bati zizkan lotu
atze-aurretatik biyak.

Eta ziranean asi
indar leian edo teman,
astoak zaldi ta guzi
zuben gurdiya eraman.

Bañan zan ura zaldiyak
zergatik ala nai zuben;
bestela tonto aundiyak
menperatuko etzuben.

Segiran astoa pozez
saltoka dantzan zan asi,
bere lagunari errez
ziolako irabazi.

Bañan poz arrek etzuben
bildu ezpada negarra:
aurrera izandu zuben
nekoso bizi bearra.

Nola indartsuna nor zan
jabeak ikusi zuben,
gurdi arekin lanean
bera paratu baitzuben.

Eta ibilli erazten
zuben nekeko lanean,
goiz zubela asi azten
eta libratzen gabeen.

Etxera zanean joaten
txoil nekaturik astoa,
zaldiyak zion esaten:
“Ai, tonto gizarajoa!”

Eta modu arretan zan
ibiltzen arronkosoan,
neke pean pasa izan
baitzuben bizi osoa.

*Indarraren pantesiyak
gaizki asko ditu artzen;
indartsubaren erdiyak
beren paltaz dira galtzen.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Kastora, trikuba eta erleak

Kastora izanikan
kutiziosoa,
egun batez nai zuben
jan ezti gozoa;
eta zerbait denboran
pentsatzen egonik,
esan zuben: "Trikuba
billatu biet nik".
Sarri billatu ere
egin zuben bera,
eta biyak igorik
mendixka batera,
erakusten ziola
etxolatxo bat an,
zion engañatzeko
itz modutan esan
ezti tokiya zala
etxe txiki ura,
eta amil zezala
goitikan putzura,
bada erleak eltzen
asiyagatikan,
etziotela ari
egingo gaitzikan;
eta ala egiña
zeukaten eztiya

bien artean jango
zutela guztiya.
Trikubak arturikan
ontzat ark esana,
segiran arrimatu
zan etxolagana,
eta bizkarrarekin
amildurik bera,
erle guziyak ziran
kanpora atera,
eta asi zitzaizkan
kozkaka berari;
bañan nola baitzan gaitz
miñ ematen ari,
zeñen berak geiago
baitzien ematen,
igasi ziran denak
asi andik joaten;
eta billaturikan
kastora bidean,
zebillela sasiyan
gorde eziñean,
denak batean eldu
zioten berari,
eta eziñ ziena
egin trikubari

arekin egin zuten,
ura zuten autsi,
zauriturik baitzuten
begi gabe utzi.
*Gauza berriyak askok
sortu oi dituzte,*

*beretaz on aundiyak
dituztela uste;
eta egin ondoren
iñoiz zenbat kalte,
baliatutzen dira
beren partez beste.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Zaldi esker gabea

Oso gaizki moldatzen
zuben jabe zurrak,
kolpeka maiz berotzen
ziozkan ezurrak,
jaten gutxi emanaz
makillazo pean,
ibilli erazotzen
baitzuben lanean.
Modu orretan zala
oso gaizki bizi,
jabeari zioten
zaldiya erosi,
eta eragin gabe
nekerik berari,
jabe berriyak zuben
jarri oso guri.
Ala ederturikan
indartu zanean,
nagusiya jarri zan
beraren gañean,

zeñak joan bear zuben
periya batera,
bañan gaizki zitzaion
ametsa atera.
Zaldiya asperturik
jasotzen jabea,
goroinka batez zion
jo arazo bea;
eta ala egiña
mesedeak milla,
lerturik ankapean
utzi zuben illa.
*Gure artean ere
eskerrik gabeak
onela tratatu oi
dituzte jabeak;
on egillearentzat
bieitu gizonak
izan naitasuna ta
begiramen onak.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Tximuba eta arranoa

Negu bat gertaturik
bizi gogorra,
tximubak artu zion
berari beldurra;
igarri zuben gaizki
zala ibilliko,
bere umeak otzak
ziozkala ilko,
zeren larru gorriyan
baitziraren bizi,
eta ala zan aien
jantzi billa asi;
bada joanik ardi lo
zegoan batengana,
esnatu gabe moztu
zion ille dana
eta au arturikan
bere bizkarrean,
zijoala noizik bein
gordeaz bidean,
goi-goitik ikusirik
arranoak ala,
iruritu zitzaion
ardiren bat zala,
eta joan ta itorik
bertan beriala,

gertatu zan itoa
ardiya etzala;
bada jateko ere
nola etzan ona,
tximu txar petral ardi
jantziyan zegona,
beregana esan zuben
korajez beterik:
“Orain zertarako det
jostallu txar au nik?”
Eta eramanikan
arbol gain batera,
jarri zuben zintzillik
adarretik beera,
esanaz: “Len zubena
maiz egiten burla,
orain guziyen burla-
garri or dagoala”.
*Ill arren ez dirade
ezkututzen denak,
oraindik gelditzen
dira oroimenak;
ala, gero aundiya
nai dubenak izan,
lan onak erakutsi
bieitu bizitzan.*

Euskal-Erria, XX, 1889.

Artzaia eta artaldea

Artalde onek zuben
bere jantokiya
uraren eskintxoan
leku egokiya:
aize txar gordelari
zubela mendiya,
zelaitxo bat, ezpazan
ta ere aundiya,
beti berde ikusi
oi zan belardiya.

Bañan alaz ta ere
au etzan erdiya
ederrez, nola urez
beste alderdiya;
bada ain zan paraje
apain ta alaya,
an ikusten zan gauza
dena zan galaya,
itz batez zan kutizi-
garrizko zelaya.

Ala ardiyak aruntz
botarik begiya,
guziyak erakusten
zuten aruntz naya;
eta nola errio
ark zuben zubiya,
nairik atzeman ain lur
on txoragarriya,
asko ziran ziranak
pasatzen abiya.

Bañan lur ain on ura
ez baitzan egiya,
ezpada baitzuben ark
beste arpegiya,
alderdi bat etzana
biziro argiya,
pizti gaitoen toki
ardi galgarriya,
zein non ezkututzen zan
sartzen zan ardiya.

Artzaiak ikusirik
ango pikardiya,
zubiyen zan otso bat
pintatzen abiya;
bada ain pintorea
irten zan artzaya,
ain antzez egin zuben
ardiyen etsaya,
ontaz estutu zuben
zubi zar lasaya.

Alakoa zekarren
pinturak graziya,
ezin zan ezagutu
pintura zan iya;
bada nola ematen
baitzuben biziya,
eta ikusteaz ain
pizti itsusiya,
jiratzen zan zubira
joaten zan guziya.

*Ardi zaia gertatu
zalako argiya,
artaldea salbatu
baitzuben erdiya;
bada ain izanik lan
au miretsgarriya,
saiatu da antzezten
artzai bere giya,
euskal ipuitxo oben
egille berriya.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Dama eta lorea

Lorerik ederrena
baratza guzian
arkitzen zala erdi
gordea sasiyan,
damak zion eskuba
luzatu berari;
eta bereganatu
eziñikan ari
zala, zion bañan len
loreari eldu,
sasiyak zion esku
polita odoldu;
eta arkitzen zala
erdi negarrean,
gertaturikan bere
aita orduban an,
galdea egin zion
negarrez zer zuben;
eta erantzun: “Jauna,
kutiziz nai nuben
egin sasiyan daguen
lorearen jabe,
eta min arturikan
gelditu naiz gabe.
Zertan landatu zuben
arantza tartean!

Librean zergatik ez
bestien artean?”
“Nik ez nuben landatu
—esan zion aitak—;
sasiya bizi leku
artu zuben berak”.
“Ai zer tokiya zuben
autu bizitzeko
—erantzun zion— grazik
erakutsitzeko!
Librean egon balitz
bestearen gisan,
zori onaren jabe
bear nuben izan.
Nik nere apaingarri
artuko bainuben,
eta dantza lekura
eramango nuben,
non salan milla argi
ederren erdiyan,
perlaz apaindutako
urrezko gurdiyan,
erregin bat gertatu
liteken moduban,
nere lore ederrak
argituko zuban.

Begi guziyak ziran
izango beretzat,
eta grazi bereak
ongarri neretzat;
ala an ederrena
nola zan izango,
lorien erregiña
zala zan esango”.

“Bai —esan zion aitak—,
ala izango zan,
erregin baten gisan
maitatuko baitzan;
bañan argituko zan
urrengo eguna,
non etzan gertatuko
gaba bezin ona;
orriyak zitzaiozkan
asiko legortzen,
eta indarrak joanik
lurrera erortzen,
urrengo egunean
maskaldurik bera
itxura gaiztoan zan
joango ankapera,
eta segirukoan
eder dagona gaur,
bazarren batean zan
ikusiko simaur.
Bada ez al du obe
bizi or sasiyan,

eraso beldur gabe,
Jaunaren graziyan?
Inbiri gabe, bestek
inbiriatuba,
amets gozoz laztantzen
dubela zeruba,
egunaren sentiko
intz presko eztiyak
kentzen dizkala bere
egarri guztiyak,
eta gero segiran
berriz eguzkiyak
zabaltzen diozkala
kolkoko orriyak?
Ez al du obe orla
goititu buruba,
erakutsiyaz bizi
bide seguruba?”
Tristeturikan oek
aitzeaz alaba,
esan zion aitari:
“Aita, bai, ala da”.
*Onek erakusten du
dabillena zoro
eztala modu artan
biziko luzaro;
eta ohea dala
erokeri gabe
egitea bizitza
berdin baten jabe.*

Euskal-Erria, XVII, 1887.

Esneduna

Uda berriyan neixka
bat txit goiz atera,
eta marmitarekin
aldaparak bera
jaisten zan oin utsikan
erreka batera.

Pasatzen zubenean
errekaxo ura,
egunero jaiotzen
zitzaion burura
zeraman esnari
ematea ura.

Zeren zan lan aretaz
baliatu zedin
zapata pare baten
jabe egin zedin,
aurrera oin utsikan
ibilli etzedin.

Eta ala loturik
zeukala buruba,
osaturik pixkaka
pixkaka diruba,
zapataz jabetu zan
neixka kottaruba.

Bueltan zeramazkila
marmitan etxera,
pasatzen asirikan
errekaxo bera,
burutik joan zitzaion
marmita urera.

Eta urak indarra
nola baitzeraman,
eta portuna dena
neixkarena zan an,
urak ekarri zion
ta urak eraman!

*Dana bide txarrezko
gauzaren jabea,
askotan gertatzen da
portuna gabea,
urte gabean jotzen
dubelako bea.*

Euskal-Erria, XIV, 1886.

Erbiñudea eta arranoa

Erbiñudea, eiz pausoetan
baserri baten ondoan
zebillela, zan bi zankotatik
preso gelditu zepoan;
eta arrano batek goi-goitik
ikusirikan ala an,
jatxita bere zepo ta guzi
zuben aidean eraman.

An zeramala, erbiñudeak
esan zion; “Ai, au lana!
Bestetzat artu nau ni bedorrek,
kulpik ez baitet nik, jauna;
nere denboran naiz izan gaitzik
egin izan ez dedana,
azeriya da olloak galtzen
beti ibilli oi dana.

Nik ondo dakit dala bedori
errege egaztiyena,
ez dubela nai beren galkerik,
daukala kontu denena;
bada onez gain berrizten diot
aurretik esan detana:
ni beti izan naizela ona,
gaitzik egin ez detana”.

“Ori ez dakit —erantzun zion—
zeran gaiztoa edo ez,
testigurikan gabe ez baita
erabakitzen txit errez;
nik dakitana da zu zepoan
zeundela preso beldurrez,
eta denbora txarrean jartzen
zenazkidala negarrez”.

*Presondegiyan ondutzen dira
lenaz gaiztoak diranak,
galdetu eta “Nik ez tet ezer”
esan oi dute dianak;
itzez ez dute kulpik izaten
obraz ez izan naiz onak,
siñale txarrak ematen ditu
lotuta dagon gizonak.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Saguba eta katuba

Goiko sola zulotik
begiraka beera
zegoala bein saguba
gelatxo batera,
apalean ikusi
zuben jankai ona:
manteka maskuri bat
asiya zegona;
eta jatxi naiean
zebillela aruntz,
atxaparrakin zerbait
koixka egiñik uts,
erori ta portunak
emanikan ala,
zuzen buruz sartu zan
maskuri artara.
An zala gertatutzen
oso guriturik,
eta pasa zitzaion
gauzaz arriturik,
esan zuben: "Bañan zer
gertatzen zait neri?
Egiyetan ote naiz
ni onuntz erori?
Ezin sinist liteke
amets bat eztanik,
onelako portunik
gaur egiterik nik;

eroritzia etzait
gertatu kaltia,
ai au nere poza ta
nere suertia!"
Eta oek esanaz
berriro jan ta jan
ari zala sarturik
buruz manteketan,
katuba pasarikan
zulo atekotik,
saguba artu zuben
isats atzekotik;
eta galdetu ere
gabe "Zu nor zera?",
manteka maskuritik
kanpora atera,
eta an bertan zuben
egin otortuba,
janik sagu mantekaz
gozo gurituba.
*Kolpez egiten dana
portunaren jabe,
kolpez geldi liteke
portunarik gabe;
poz iraunkorrik ezin
bailiteke billa,
zeñen poz batentzako
penak dauden milla.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Azeri setosoa

Olo toki batera
bidea ikasi
zubelako, zan andik
lapurretan asi;
eta eiz onarekin
joanaz maiz igasi,
zan goserik pasatzen
etzubela bizi.

Ala zan gau illun batez,
askotako gisan,
betiko tokitikan
sartutzen asi zan;
bañan ez ikusirik
zegonik ezer an,
isatsetik zan preso
erori zepoan.

Erori zan an bañan
eskapatu zuben,
ontarako isatsa
an utzi baitzuben;
alaz guziyaz ere,
seta nola zuben,
berriz joan gabe etsi
izandu etzuben.

Ala, joan zan denboran,
zan bañan len sartu,
lenengo zuben begiz
tokiya miratu;
eta zubelako an
zepoa billatu,
bere gañetik salto
egiñik zan sartu.

Bañan beste zepo bat
ere nola zegoan,
erori zan ikusi
etzuben zepoan;
eta onek agiñak
loturik zankoan,
moztu zion ta itzul
anka paltan zan joan.

Geroagoan ere
leku berberera
joan zan ta izan zuben
sartutzeko era;
eta erori gabe
zepoetan bera,
zan ortzetan olo bat
zubela atera.

Bañan jabea nola
zalantzan zegoan,
aizkorarekin atez
kanpotik baitzegoan,
irten zanean jorik
aizkoraz lepoan,
moztu zion ta etzan
aruntz geiago joan.

*Debekatuba dagoan
tokira sartutzen
asten danak ederrak
maiz ditu artutzen;
eta bazaizko berriz
artubak aztutzen,
azkenekoz du bere
biziz pagatutzen.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Astoa eta idiya

Mendi egal batean
topozturik biyak,
esan zion alkar jo
bañan len idiyak
jira ta ken zedilla
bide artatikan,
bada biyak kabitu
etzitezkelan;
eta asto muskillak,
zalarikan zarra,
bañan lenaz izana
panparroi samarra,
erantzun zion irten
zitekela bera,
bada ark etzubela
nai andik atera.

Eta idiyak gauza
ikusteaz ala,
eta setan astoa
ainbeste etzala,
adar aundiyarekin
tripapean jota,
zuben goitikan beko
errekara bota.
*Arrazoi igualetan
gogoragoari
kontra egiten seta-
gatikan ez ari;
zein baileioken egin,
okertzera biyak,
asto zarrari egin
ziona idiyak.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Animali eta beste piztiyen batzarrea

Pizti aundik txikiyak
zituztela jaten,
kejak legoiagana
ziralako joaten,
deitu zituben denak
batzarre batera,
an zitzan denen gauzak
argira atera;
eta batean galde
egiñik denari,
iñork kejian zuben
agertzeko ari,
saguba irtenikan
guzien erdira,
esan zion: “Jauna, bai,
kejak asko dira;
nik neronak baitauzkat
zenbait esan naian,
eta gaur gertatutzen
naizelako gaian,
poz aundiz baitiozkat
esango guziyak,
kastigu bat banatu
dezan justiziyak;
nere famili dena
izanikan ona,

katubak ito zigun
lengoan amona;
eta maiz sagu txikik
ito oi dituzte,
eta kastigu aundik
merezi dituzte”.
Arratoiak segiran
esan zion: “Jauna,
egiya da sagubak
kontatu diona;
gu ere beti bizi
gerare beldurrez,
ez gera beretatik
espakatzen errez”.
Segiruban olloak,
saltarik erdira,
esan zuben: “Gaiztonak
azariyak dira”.
Ardiyak berriz asi
ziran otso billa,
esanaz oiek galtzen
zituztela milla.
Otsoak berriz kejaz
bullan ziran asi,
zituztenean ala
ardiyak ikusi.

Eta besteak ere
asirikan ala,
iya alkarren itzik
aitutzen etzala,
onetan egin zuben
idiyak marru bat,
artean an egin zan
aundiena anbat,
zeñen bere izkeran
esan baitzuben *muu*;
bañan nola etzion
iñork entenditu,
zeren jaiotzetandik
baitzan itzdun txarra,
aundi-txikik, guziyak,
egin zien farra;
eta artaz errege
asarreturikan,

bota zituben denak
bere aurretikan,
non andik ankapean
paseaz txikiak,
beren lekuetara
joan ziran guziyak.
Ala ezin egiñik
ezer erregeak,
lengo oñean ziran
gelditu legeak.
*Onek erakusten du
bear dala jakin,
entenditutzen bullik
gabe alkarrekin;
izketan ezpazaio
alkarri utzitzen,
eztala gero gauza
onik ikusitzen.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Katuba eta espilluba

Kazubela batetik
esnea txurkatzen
ari zala katuba
tripa guri jartzen,
espillu bat egonik
zutikan aurrean,
bere irurindea
ikusi zuben an;
eta oroitu gabe
ura bera zala,
sinisturik an beste
katuren bat zala
ari zana gozoro
esnea txurkatzen,
inbiriya jarri zan
deabrubak artzen;
eta berriz esnerik
ark eran etzetzan,
zion kopeta beltz-beltz
jarririkan esan
ezpazan joaten andik
esnea utzita,
gaitzez irtengo zala
ark eragotzita.

Bañan nola egin ez
baitzion kasorik,
eta etzuben ere
mugitzen pausorik,
errabiz salta zion
gañera berari,
bera azkazalakin
jarri nairik eri;
bañan buruz jorikan
espillu aundiya,
kristala egin zuben
milla puska iya,
eta guziya joanik
beraren gañera,
azpiyan lardatuba
izandu zan bera.
*Espillu ontan bertan
begira dezagun,
guk beste onenbeste
egin ez dezagun;
utzi deiogun jaten
guziok alkarri,
ez dezagun norik geren
kalterik ekarri.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Kotorra eta katuba

Katubak jipoirikan
eraman etzezan,
bein zion belarrira
kotorrari esan,
aren pikardik ixill
iruki zitzala,
eta jankai onak maiz
emango zizkala;
eta eraturikan
biyak itz arretan,
katubak segitutzen
zuben lapurretan.
Etxekoak etzuten
ontan arrapatzen,
zeren etzien ezer
kotorrak kontatzen;

bañan leiora irten
ordukoz asten zan
kontatutzen barrenen
zer pasatutzen zan;
eta sarri jakiñik
beak eta goiak,
katubak eramaten
zituben jipoiak.
*Itzontziya danari
kontatu ez dezan,
ez al bada balio
duben gauzik esan;
zeren bera iguala
dan non kanpan zarra,
biyak dira dutenak
jotzen soñu txarra.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Uda eta uda berriya

Udak bein zion uda
berriyari esan
martxoan zeudela ta
ia nola etzan
kanpoa pizkortutzen
au oso ill al zan,
edo bere lanean
jarduten ez al zan.

Negu ona joan zala
Jaunari graziyak,
eta alaz ta ere
lurpeko aziyak
lo asko zeudela, ta
arbol ta sasiyak
ere gutxi zirala
loratzen asiyak.

Ekatzex ta jelatez
erre eta oztu
izan balira ere
baitzala txit justu.
Bañan neguba joanik
ain gozo ta prestu,
nola ziran baztarrak
orrela zapuztu.

Uda berriyak ortaz
oso penaturik,
eta aren puntara
puntutzat arturik,
esan zion: "Ez galdu
lan ortan bururik,
orreatikan ez da
galduko mundurik.

Uda azkena nola
gozoa joan baitzan,
eta segitu zuben
luze uda gisan,
kanpoa txit berandu
lotara jausi zan,
eta au da beraren
nagiera izan"

*Gizonari au bera
baitzaio gertatzen,
oiera zenbat eta
geroago sartzen
dan, deskantsuba baitu
nekezago artzen,
eta oñen gañean
berandu da jartzen.*

Otsoa eta akerra

Otsoa amildurik
bein mendi gañetik,
zintzillika gelditu
zan arkaitz batetik;
eta gertatzen zala
txit neke aundiyan,
itsatsirik azkazal
zorrotzak arriyan,
gertatu etzediyan
bea jota illa,
orrubaz abiatu
zan laguntza billa.
Ontan aker bat alde
gertaturik andik,
eta aiturik aren
negarrak ain aundik,
urrikaldu ta joanik
beraren gañera,
nai izan zuben larri
artatik atera.
Ala luzaturikan
adar bat berari,
otsoa goititu zan
eldurikan ari;

artaz on iritzirik
otsoak orduban,
ziozkan milla esker
on segiran eman;
eta pentsatu zuten
naitasun batekin
aurrera bizitzea
biyak alkarrekin.
Bañan luzaro izan
ez baitziran ala,
bada egun batean,
gose samar zala,
otsoak zintzurretik
ortzak sarturikan,
ill zuben akerra ta
segiran zuben jan.
*Onek erakusten du
gaiztoa danakin
kontu aundiz ibiltzen
bear dala jakin;
ez izatekoz lagun
fin edo onikan,
ez izatea obe
dala lagunikan.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Artzai mutilla eta okillak

Egun batean zuben
somatu mutillak
zein arboletan zeukan
kabiya okillak;
eta jakiñik ere
ume biziya an
zeuzkala, nai zukenak
egan kanpora joan,
asi zan artu naian
eskuba zulzoan
sartutzen; bañan nola
kabiya tronkoan
zeguen, ta eziñikan
berak nairik egin,
iltzen asi zan ume
aiek ziriyakin.
Bañan nonbait portunak
nai izanik ala,
urrikal gabeko lan
artan ari zala,
kolpez izugarrizko
euriyak asirik,
itzul joan zan mutilla
botarikan zirik.
Ordukoz zirika bi
ume il zituben,

bañan nola opillak
iru baitzituben,
bizi zanak zanean
indarretan sartu,
ziyona mutillari
len irriya artu,
gau batez egin zion
bere bordan tranpa:
mokoz puskatu zion
leioaren tranka;
eta utzirik leio
ura zabalikan,
otsoak sartu ziran
gau artan andikan;
eta urrikal izan
etzanaren ardik,
gau artan paltatubak
izan ziran erdik.
*Kottarubari gaitzik
ez egin, al dala;
pentsatu bera ere
kottaru bat dala;
uste eztuben miñik
ezpadu nai bildu,
beti bear du berak
onradu ibildu.*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Ollo taldea eta katuba

Talde onetan baitzan
ollar bat azkarra,
bañan zana jenioz
biziro kaskarra;
beti baitzuben beste
ezin ikusiya,
berak bakarrik izan
bearra guziya;
eta ala bein danak
pakean ibildu
eta ziran denboran
lotarako bildu,
bide gabe nai izan
zizkaten dollorak
ollo denari kendu
buruko gallorak,
esanaz koroï aiek
zertako zituzten,
zertan aren aurrean
kentzen etzituzten;
an ainbeste koroïren
bearrik etzala,

bat diña zala ta bat
bera ark zeukala;
goian agintari bat
bakarra zan gisan,
bean ark agintari
bear zula izan;
eta artaz borroka
eta zalapartan
zebiltzala, etxeko
katu ona lotan
zegoana, esnatuta
joanik beretara,
berari zion bere
gallorra atera.
*Onek erakusten du
panparroi askori
gertatutzen zaiola
kontu modu ori;
eta beste ez dedin
gai ontan gertatu,
pasarte au gogoan
bear dala artu.*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Otsoa eta zakurra

Mendiyen zijoala
artalde osoa,
bere ingurutik zan
pasatu otsoa;
eta aren zakurrak
ikusirik ura,
esan zion: “I aiz, i,
emengo lapurra:
ik ukan gure ardi
on bat lengoan jan,
eta nere beldurrez
itzan itzuli joan”.
“Ez nauk berriz esango
orlakorik neri”
erantzun zion otso
zarrak zakurrari.
Eta zakurrak berriz
ari segiruban:
“Bai; ik lapurtu ukan
eta ik ukan jan;
eta agerkaitzeko
dala au egiya,
ara nondikan emen
testigu ariya”.

“Testiguba nik ere
ekarriko diat
—esan zion otsoak—;
dakina badiat,
erabakiko duna
justuba naizela,
lapurra egundañon
izan ez naizela”.
Eta joan ta segiran
testigu birekin
jira zan: katamotza
eta artzarekin;
eta zakur-ariyak,
arrazoi ta guzi,
joan ziran andik pixti
txar aien igasi.
*Onek erakusten du
arrazoia ona
dala, bañan indarrez
jantziya dagona;
utsetik dala jartzen
oker inorekin,
eta ez fuyatzeko
geiegi arekin.*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Tximuba, zakurra, artza eta beren jabea

Erriz erri zutela
diru asko biltzen,
ziraren komeriyak
egiten ibiltzen;
eta etziralarik
ala gaizki bizi,
tximuba zan bein itzul
egin naian asi;
eta beroturikan
berak lagun biyak,
irurak korritzera
joan ziran mendiyak.
Nagusiya irtenik
segika berari,
urrutira otsegin
zion tximubari;
bañan non jirako zan,
aldaparak beera
jetxi ziran irurak
erreka batera;
an pasa nai zuten ta
komeriyak ziran,
zakurra ez bestiak
izutzen baitziran.
Tximubak, igaldari
ona nola etzan,

zion beldurrez dar-dar
zakurrari esan
pasa zezala ura
bere bizkarrean,
nagusiyak etzezan
ill an legorrean;
eta ala asirik
pasatutzen biyak,
ur ondolik otsegin
zien artz aundiya:
“Zuek joan ta bakarrik
zer egin biet nik?”
Zeñi tximu txatarrak
erantzun zion: “Ik
egin zak nai dekana,
or konpon, or konpon,
igari ezpadakik
ill arte or egon”.
Eta jabeak an eiz
emanik aieri,
bere izenez deitu
zion zakurrari;
eta au ain izanik
leial ta umilla,
beriala jira zan
jabearen billa;

bañan nola tximubak
aruntz nai etzuben,
zakurrak, libre geldi
zedin, egin zuben
bere buruba sartu
murgillean urtan;
eta nola tximuba
etzeiken egon an,
libraturik zakurra
tximubarengandik,

au itota eraman
zuben urak andik.
*Emen ikusten dira
tximubaren lanak,
zer bidetan paratu
zituben lagunak;
gaitzik nai ez dubenak
beretzat ekarri,
ez belarririk lagun
gaiztoari jarri.*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Trikuba eta ur-atea

Trikuba zijoala
aldaparan gora,
amildurik, bueltaka
joan zan erriora;
eta ito ez ito
zebillela urtan,
portunaz ur-ate bat
gertaturik bertan,
onek lagun egiñik
al zuben guziya,
triku on ari zion
salbatu biziya.
Geroz beste batean
triku ura bera
jankai billa aldapan
jatxirikan beera,
bazterka zan denboran
ira ureratu,
zuben pixti txikiyen
negar otsa aitu;
eta arrimaturik
ikustera zer zan,
billatu zuben ate-
kume pilla bertan,
zeñen gaixoak oso
txikiyak baitziran,
eta jaberik gabe
arkitutzen ziran:
Ollo berak berotzen
gañean egona,

zan nonbait zerbait izuz
andik itzul joana;
eta oroimendurik
ume aien amaz,
ark urtan beragatik
egin zuben lanaz,
eta nairikan esker
on bat erakutsi,
esan zuben: "Oek nik
ez nitzake utzi;
nik ditut berotuko,
nik ditut aziko,
ni naiz beren zalantzan
aurrera biziko".
Eta on naian joanik
beraren gañera,
ollo orde estalkai
gelditu zan bera;
bañan, o!, bero paltan
iya il ziranak,
arantzaz triskatubak
izan ziran danak.
*On egitea on da
ezer eta bada,
beti egin bedi on
iñola al bada;
bañan jakin bear da,
egiterako on,
egin bide ark gaitzik
ekarri leikion.*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Otsoa eta astoa

Mendiyari jabeturik
astoaz otsoa,
etzuben ill nai izan
jankai ain gozoa;
bada ito bañan len
asto umil ura,
beste gauzarik jaio
zitzaion burura;
esan zion: "Asto bi
ageri dituk an,
eta ia ekarri
erazten ditukan;
jo zak gogor tronpeta,
egin zak arrantza,
deitu eiek igana
datozen onuntza".
Bañan astoa nola
izuz illa zeguen,
nai arren arrantzikan
ezin egin zuben;
eta otsoak ura
ikusteaz ala,

aren tronpetazorik
aitutzen etzala,
bera asi zan asto
papera egiten,
beste bi astoari
aruntz otsegiten;
bañan gizarajoa
ortan ari zala,
artzaiak nabaiturik
otsoren bat zala,
eta armak artuta
joanik bere billa,
an izan zan otso zar
tranposoa illa.
*Onek erakusten du
zenbait zentzu gabe
egiten dirarela
txapelaren jabe;
eta batekin ezin
tapatuz bi buru,
gelditzen dirala ez
txapel ta ez buru.*

Euskal-Erria, XII, 1890.

Astoa eta jabeak

Astoa gaizki bizi
etzala errotan,
itzul joan zan bein denak
zeudenean lotan;
eta egiñalean
korrika errira
zijoala, gizon bik,
zeudenak begira,
joan ta eldu zioten
belarrietatik,
batek batetik eta
besteak bestetik;
eta biyak batean
zioten galdetu
ia noren mendean
nai zuben gelditu.
Astoak esan zien
arrek nai zubena
zala lanik ez egin
ta mantenu ona;
eta ura zeñek nai
zuben artu ala,
bertatik aren mende
geldituko zala.
Orduban gizonetan
batek zion esan;

ark emango ziola
nai zubena zer jan,
eta biziko zala
nai eran eroso,
libre beti nekerik
gabe gozo-gozo.
Besteak jarri zion
gogibena(1) bera,
eta agindu zion,
aretaz gañera,
etzedin au nekatu
geiegi bidean,
etxera eramango
zubela aidean;
eta eskeñi ura
arturikan ontzat,
alper tzar ozkilla zan
gelditu arentzat.
Bañan onetarako
beste gauzik baitzan:
astorikan errira
ezin sartuko zan,
ezpaldin bazituben
pagatzen bi diru;
eta nola jabeak
etzituben iru,

asto tzarra arturik
bere bizkarrean,
ukullurañon zuben
eraman aidean;
an segiruban jaten
zerbait emanikan,
etzion egun artan
eragin lanikan;
bañan urrengo goiza
argitu zanean,
gogorki zuben asi
erazo lanean;
zeñen orduban alper
tzarrak jabeari
esan zion ez lanik
emateko ari,

ia ez al zekiyen
zer itz zuben eman.
Bañan nola etzuben
itzak balio an,
maiz dantzatzen ziola
gañean makilla,
asto tzarra izan zan
makilpean illa.
*Onek erakusten du
min gutxi dubenak
ixillikan eraman
bieitula penak;
atsekaberik gabe
nai dubena izan,
gertatu litekela
astoaren gisan.*

Euskal-Erria, XII, 1890.

Adierazgarria(1)

Ramon Artola Larrañaga	7
Oar batzuk	9
Itz neurtuak	14
Astoa eta tximuba	19
Azariya zakur jantziyan	21
Zaldiya, gizona eta astoa	23
Zakurra eta euliya	25
Zakurra eta otsoa	27
Gabirabaren eiza	28
Ardiyak eta legoia	29
Oll oak eta arrautzak	31
Azariya eta azari-zakurra	33
Azariya eta zakurra	34
Asto alperra miñez	35
Baserri zakurra	36
Astoa eta zaldiya	38
Arratoiak eta katuba	39
Tximuba	41
Gabiraba, zozo-kumeak eta arranoa	42
Ontza, mirotza eta txoriak	44
Azariya eta zakurra lagunkidan	45

Astoa eta zakurra	47
Armiarma eta enara	49
Otsoa eta zaldia	50
Katamotza eta otsoa	52
Zaldia eta eulitzarra	53
Igelak eta beleak	54
Erbiñudea	55
Otsoa eta ariya	56
Kukuba eta mirotza	57
Eskoba eta bere kirtena	58
Arratoiak, katuba eta zakurra	59
Otsoa eta legoia	61
Egaztiyak errege billa	62
Artzaia	64
Igelak eta Marte jaungoiko paltsoa	66
Usoak eta mirotza	68
Gizona eta astoa	69
Etxe bateko zakur-katubak	70
Arranoa eta buzoka	72
Azariya eta olloa	74
Barakulloa eta eperra	76
Kirkirrak eta igelak	77
Azariya ardi jantziyan	78
Basaurdea eta zakurrak	80
Otsoa eta bi ari	82
Otsoa eta txerriya	83
Katuba eta saguak	84
Astoak	85
Artza eta mandoa	86
Otsoa eta saguak	88
Otsetzi gozozko kantarien bilkida	90
Arratoiak eta zakurra	92

Etxe konejuba eta erbiya	94
Miruba, saguba, zakurra eta otsoa	96
Itsasoko arraiak erriean	98
Zigor txiki, iya eta makil gai aundiya	99
Zakur-katubak	101
Azeriya	102
Bare kurkulloa, barea eta belarra	103
Kobrezko paziya eta burnizko pertza	105
Azariya eta ollarra	106
Bi langille lagunak	108
Txerriya	109
Bi ollarrak	111
Otsoa eta igaraba	112
Legoia eta astoa	114
Basaurdea eta txori-izutzallea	115
Olo-erreala eta antzara	116
Aingira	118
Azari ama umeak eta mediku astoa	119
Bi kanpaiak	121
Animali eskolatubak	122
Otsoa, auntza eta artaldea	123
Ontza eta satorra	125
Otsoa ta artzaiak	126
Bi gabiraubak	127
Otsoa eta beorrak	128
Zaldiya eta astoa	129
Kastora, trikuba eta erleak	130
Zaldi esker gabea	132
Tximuba eta arranoa	133
Artzaia eta artaldea	134
Dama eta lorea	136
Esneduna	138

Erbiñudea eta arranoa	139
Saguba eta katuba	141
Azeri setosoa	142
Astoa eta idiya	144
Animali eta beste piztiyen batzarrea	145
Katuba eta espilluba	147
Kotorra eta katuba	148
Uda eta uda berriya	149
Otsoa eta akerra	150
Artzai mutilla eta okillak	151
Olo taldea eta katuba	152
Otsoa eta zakurra	153
Tximuba, zakurra, artza eta beren jabea	154
Trikuba eta ur-atea	156
Otsoa eta astoa	157
Astoa eta jabeak	158

(1) *Arkibidea* esan bearrean, *adierazgarria* itza artu zuan Ramon Artolak, bere ipuien zerrenda egiterakoan. Itz ori onartu egin bear dala derizkiogu.



Ramon Artola

Ramon Artola Larrañaga (1831-1906), Tolosan jaio eta Donostian bizi izan zan bertso jartzaille egoki eta oparoa degu.

Aren bertsoetan, gaur irakurleari eskeintzen dizkiogun auek toki berezia eskatzen dute. Ipuiak baitira, erderazko *fabulak* alegia, garai artan oso modan zebillen literatur jeneroa.

Baiña Artolak, beste askok egin etzuten, berak somatuak ditu, bertso jantziera ez-ezik, ipui geien-geienen gaiak eta argumentuak ere. Ala, ipui bilduma au aren izena gure goimaillako ipui egillenen zerrendan idaztera dator.



Donostiako Euskararen
Udal Patronatuaren
laguntzarekin argitaratua




Euskaraz Bizi

ISBN 84-89080-18-6




Ramon Artola

Ipuiak edo kontutxoak (II)



9330

GAS-128/85-II



EUSKALIZAINI

Arabako Oñetza

Ipuiak edo kontutxoak (II)

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Ramon Artola

**Ipuiak edo
kontutxoak
(II)**

1896-eko urtean Donostian

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-20-8 (Idazlan Osoa)

ISBN: 84-89080-19-4 (II. Tomoa)

Legezko Gordailu: S.S. 449/95

Arranoa, subea eta miruba

Arranoa etxetik
kanpoan gertatu
zan batian, zitzaion
subea an sartu;
eta lotsagabeak
nairik zerbait artu,
ume bat zion gero
jateko lapurtu.

Arranoak etxera
zanean gero joan,
ume bat palta zala
nabaitu zuben an;
eta besten bat berriz
an galdu etzezan,
zekaikinak artu ta
andikan irten zan.

Kargaturik nekoso
gabaz zijoala,
miru bat ikusirik
zuloan zegoala,
eta ezin segitu
zubelako ala,
joan zitzaion ostatu
billa beriala.

Esanaz mesede bat
egiten bazion,
ume aien din toki
emango al zion;
eta mirubak ere
nairikan egin on,
zekarren toki pixka
paltatu etzion.

Umeak an utzi ta
irten baitzan ama,
bañan sarri jira zan
berriz berakgana,
eramanaz abere
este bat zer jana,
lengo bere etxean
gordeta zeukana.

Berrizko jira ere
etzan utsa izan,
bere etxeko oia
an sartzen asi zan;
eta nola zuloan
kabitu ezin zan,
asarratutzen bera
lenengo asi zan.

Bekoki beltzarekin
mirubari esan
zion joateko andik,
traban zegola an;
eta mirubak izuz
bertan ill etzezan,
ixil-ixillik irten
ta andikan joan zan.

*Au da non esatea:
"Utzi nazu sartzen,
non gero naizen joango
zure tokik artzen;
eta naizen denboran
nai eran an jartzen.
ikusiko nazu zu
kanpora bialtzen".*

Euskal-Erria, XXII, 1890.

Gizona eta arkakusoa

Gizona ari zala
belarra pikatzen,
arkakusoak zuben
an emen tentatzen;
eta ziolarikan
kolpe maiz botatzen,
etzuben lardakatu
zezan arrapatzen.

Modu artan penatzen
jardunik lanean,
belar sorta egin ta
jaso zubenean,
gertaturikan pizti
txarra bizkarrean,
paratu zion sorta
belarra gañean.

Orduban azpikoa
gertaturik larri,
erreguzka zitzaion
gizonari jarri,
esanaz karga ura
ken zeiola arri,
bestela berak lertu
bear zula sarri.

Egin bazion edo
ez ark len gaitzikan
erregutzen ziola
biotz osotikan;
beraz ezpazan ere
umeakgatikan,
arren libra zezala
gertoi artatikan.

Artan gizonak ura
ikusteaz ala,
umeakgatik ama
penatutzen zala,
esan zion ark berez
barkatzen ziola,
bañan gañeko kargak
galduko zubela.

Eta ala erreguk
egin arren milla,
pizti txar saltakari
burloso abilla,
jaiki zitzaiolako
justiziya billa,
beraren kargapean
izandu zan illa.

Gaitz egilleak ordu
segururik eztu,
berak bere buruba
jar lezake estu;
bada kulpak nai arren
gizonak barkatu,
justiziyaren kargak
lezake urkatu.

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Arana eta intxaurra

Aranak intxaur zar bati esan
zion bein burla moduban,
amaika gauza alperrikako
baitzirarela munduban;
ia zertako zuben estalkai
jan ezin zeiken azala,
albait protxurik gabeko gauzaz
apaindu bear etzala.

Egiya zala erantzun zion
intxaurrak arek ziona,
bazekiela azal ezurra
etzekarrela txit ona;
bañan ark ere aitu zezala,
ezpaldin bazan ta gorra,
berak barrenen zeukala ezin
jan zeiken ezur gogorra.

*Ala, bista ta sudur onakin
izan liteke bat gorra;
bai eta ere, gorra ez izan naiz,
mutuba edo txalkorra;
bada bizierak nola joan bide
igualikan ez dakarren,
guziok gera anken batetik
degunak egin oi erren.*

Euskal-Erria, XIII, 1890.

Errioa eta erreka ziztorra

Errioak ezere
gaitzik etzubela,
garbi bere bidean
segitzen zubela,
ur berri bat ikusi
zuben apartera,
loiturik nola jaisten
zan mendiyak bera;
eta nabaiturikan
zala arrimatzen,
zubela joan bidea
beraganontz artzen,
esan zion zanean
zerbait arrimatu:
“Aiskidea, ez gero
lur nerera sartu;
eztit egiten paltik
neri ur zikiñak,
zikiñetikan sortzen
baitira ta miñak”.
“Bai; ala da —erantzun
zion ur loitsubak—;

badakit eztizula
on nere kutsubak
egingo; bañan nola
ziñu au baitetan,
itsasoraño bide
au baizik eztetan,
ementxen, al dan gisan,
estu edo lasa,
alkarrekin bearko
degu biyok pasa”.
Eta ala ur txarra
onean sarturik,
utzi zuben errio
garbiya loiturik.
*Gisa ontan baikera
gu ere ibiltzen,
gaitz gaiztoak zaizkigun
denboran urbiltzen,
itzul egin nai eta
non gorderikan ez,
ezta azoteari
eskapatzen errez.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Zezena eta subea

Zezen bat mendiyetan
zan beti ibiltzen,
arrapatzen zituben
pizti denak iltzen,
segitzen bnaitzubela
lan artan txarkeriz,
beretzat ezer protxu
gabe gaiztakeriz;
bada ala beldurrak
zeukazkila artzak,
otsoak, azeriyak,
nola katamotzak,
subeak esan zuben
ark zubela ilko,
etzala luzaro an
ala ibilliko;

eta joan ta loturik
gogor adarrean,
azkar pozoia sartu
zion sudurrean,
eta ibiltzen zana
pizti aundik iltzen,
ikusi zan txikiya-
gandikan umiltzen.
*Asko lezakela ta
ainbestez iñori
gaitzik egiten ezta
bear albait ari;
ez sobra pantesiya
iruki indarrez,
zeren gutxi dubenak
gal lezaken errez.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Artalde bateko bi ardi

Beren txaoia ona
zutela aldean,
ongi ziralarikan
bizi artaldean,
leku obien billa
ziran bein atera,
eta joan itzul beste
artalde batera;
bañan denbora txarrak
sartu ziranean,
ez izanikan gorde
lekurik aldean,
ezin irozorikan
elur ta otzari,
eta zirala oso
biyak galtzen ari,
damaturikan zion
batak besteari
esan baldin segitu
nai bazion ari,
lenengo arkitzean
itzultzeko era,
berriz joango zirala
lengo artaldera;

bada makurtutzeaz
artzai onagana,
barkatuko ziela
gaizki egin dana.
Bañan besteak zion
ezezkoa eman,
esanaz etzubela
nai lotsik eramán;
naiago zubela an
supritzen ibildu,
eta ez artzaiaren
oñetan umildu.
Eta ala, txit ongi
arturik joan zana,
otzak garbitu zuben
umildu etzana.
*Ezta iñor egiten
eztubenik utsik,
bada konpesatzeko
ezta bear lotsik;
gaizki egiña damuz
dubenak agertzen,
eztu merezi duben
kastigurik artzen.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Errioko arrantzalea

Itsasotik arraiak
pillan erriora
sarturik, zebiltzala
ezin igoz gora,
sarearen billa zan
joan arrantzalea,
bete zezan arrai on
aiekin sarea;
bañan lagun bat topoz
egiñik bidean,
sobra denbora pasa
zuben jardunean,
eta sarearekin
zanerakoz jira,
arraiak jatxi ziran
itsaso aundira.
Segiran jarri zuben
sarea urean,

bañan non aiek ziran
sartuko sarean,
allegaturik aruntz
itxas otso mota,(19)
zion sarea milla
puska egin jota,
eta lenago zana
sarearen jabe,
gelditu zan geroko
sarerikan gabe.
*Gaur egin bear danik
ez utzi bigarko,
non bera bigar eztan
agiyan biarko;
urak joan ta sareak
botatzen badira,
arrai gutxi sarean
etxerako dira.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

(1) *Tiburón*. (R. Artolaren oarra)

Bi errekatxoak

Errekaxo zanari
menditikan jaisten,
pasa bidea zion
arkaitz batek isten,
eta lertu bearrik
nora edo ara,
ur ura banatzen zan
alderdi bitara.
Segiran bat errio
aundira zan sartzen,
zeñetan zan joan bide
erosoan jartzen;
eta bestea sartzen
zan baztar batera,
leku txar iya ezin
zanera atera;
eta, ala zirala,
bat leku eztiyan,
trabes bea ikusten
zan kristal garbiyan,
eta bestea tarte
lokaztuban oso,
ematen zula pauso
guziyan penoso,
onek esaten zuben:
“Bañan zer da lan au?”

Ni leku oetara
zeñek ekarri nau?
Len bat izanikan gu
anaia ta biyak,
gaitubelako egin
arkaitzak bizkiyak,
zergatik bear det nik
onen gaizki izan,
edo zergatikan ez
ondo aren gisan?”
Bañan zuten patuban,(1)
nork bere joanera
eginiñik jaisten beti
bera eta bera,
bukatu zan denboran
patuen denbora,
biyak batean sartu
ziran itsasora.
*Guri gertatzen zaigu
urari zer bera,
patu dakargunaren
jabe ez baikera;
ala penaz pasatzen
dunentzat munduba,
ondoren izango du
norbaitek kontuba.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

(1) *Destino*. (R. Artolaren oarra)

Artzaia

Bi kaiku esnerekin
gain bera mendiyen
jeisten zala, tratuba
sal zezan erriyan,
euriyak emanikan
iritxi bañan len,
esan zuben: “Allega
nadiyen lenbailen;
estalkairikan gabe
daramat esnia,
eta ontaz gertatu
bailitzaiket mia.
Bañan ez —esan zuben
berriro segiran—;
nere esnea nola-
nai liteke eran;
utzi deiodan euri
gozoari sartzen,
ur pixka batek eztu
esnerikan galtzen;
ortaz nere tratuba
zait ugarituko,
eta diru geiago
det beraz artuko”.

Bañan ala iritxi
zanekoz errira,
ardi esne lodiya
ur zitzaion jira;
eta zuben denboran
jarri plazan saltzen,
eta zanean asi
jendea azaltzen,
denak jardun zitzaizkan
esaten ark ura
zubela eta esne
txarra zala ura;
eta non ustez bear
zuben irabazi,
iñork etzion tanto
bat ere erosi.
*Esan oi diran denak
eztira gezurrak,
maiz baitira gertatzen
modu ontan zurrak;
euskarazko esan zar
batek dion gisan,
zurraren poltsak zulo
bi oi ditu izan.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Otsoa eta zakurra

Otsoak urrutira
bere zulotikan
ikusirik zakurra
eguzkitan lotan,
iruritu zitzaion
zegoala illa,
eta segiran joan zan
jankai aren billa;
eta belarritikan
arturik segiran,
zeramala zulora
zezan gero an jan,
zakurrak, zalapartan
altxarikan, ekin
zion esanaz: “Zer dek
ik emen nerekin?”
Eta otsoak, ura
ikusteaz ala,
bizirik eta oso
indartsuba zala,
esan zion: “Ez artu
egin au gaitzera,
ni naizen tokiyan zu
galduko etzera;
bada nola luzaro
eguzki berotan
zeunden, nonbait aztuta
geldituba lotan,

nai zinduztan eguzki
berotik atera,
eta eraman leku
preskogo batera;
ni ez bainaiz zure gaitz
ustean ibildu,
ezpada ez dezazun
min txarren bat bildu”.
Eta ziolarikan
zakurrak igarri
gezurra zula esan
bere edergarri,
alaz ere “Eskerrik
asko” zion esan,
an borrokarik artaz
moldatau etzezan;
eta biyak ziarka
alkarri begira,
ziran andik nor beren
tokitara jira.
*Aundiyak aundiyari
kozkarik eztiyo
egiten, naiz arkitu
biyak txit seriyo;
txikiyakin okertzen
badira aundiyak,
orduban dira kontuk
eta komeriyak.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Auntzak

Etzutela jan gabe
osto puntik uzten,
auntzak baztar guziyak
larrutzen zituzten;
eta baztar beraren
jabeak, mindurik,
maiz botatzen zituben
bizardunak andik.
Artaz auntz bati jai
zitaion burura
tranpaz engañatzea
nausi etsai ura;
eta mozturik bizar-
adarrak ondotik,
eta otso larru bat
arturik gañetik,
joanik jabeagana
esan zion: “Jauna,
nik zuzenduko diot
darabilen lana;
utzitzen badit bere
lurretan ibiltzen,
nik jardungo det ango
bizardunak iltzen;
ni naiz otso gaiztoa,
etsaia aiena;

nik garbituko diot
bere baztar dena”.
Eta ura aitzeaz
pozturik jabeak,
utzi ziozkan libre
goiak eta beak,
esanaz arengana
fiyatutzen zala,
eta ark auntz angoak
akaba zitzala.
Artan joan zan otsoa
mendira segiran,
bañan auntzakin bera
bat egiñikan an,
pozez otsoa denak
zutela erdiyan,
lasai segitu zuten
gero pikardiyen.
*Au da zalantzaririk
bear dala artu,
ondo bear zaiola
nor dan begiratu;
itxupetan fiyatzan
danak nornairekin,
gal lezakela bere
buruba arekin.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Azariya, olloak eta txerriya

Azari lotsagabe
zar bat baserriyan
sartu zan ollo billa
gabaren erdiyan;
eta guriyena zein
zan begiz jotzen an
zebillela, artu ta
itzul egin zezan,
txerriyak sartu zizkan
ortzak zankotikan,
eta nola etzion
egin ark onikan,
zizpuru bat emanaz
ziyon txerriyari
esan: “Zein zera emen
zu, petral txar ori,
modu ontan eltzeko
zankotikan neri?”
Bañan non ezer zion
erantzungo ari,
txerriyak zanko ura
ortzetan zeukala.
asi zan kurrinkaka
gogor beriala;
eta piztiyak ura
ikusteaz ala,
eta argandik ongi
irtengo etzala,

esan zion: “Ez egin
orlako kurrinkik,
etzazula atera
arren emen kinkik;
gu alkarren etsaiak
bein izan ez gera,
eta ixilxiago
konponduko gera”.
Bañan txerriyak sarri
ollo lo zeudenak
esnatu ta asirik
kakaraka denak,
jaiki erain zituzten
etxeko guziyak,
eta arturik makil
tzar bat nagusiyak,
eta billaturikan
azari lotuba,
an izan zan bizkarra
ongi berotuba.
*Lapurrak ditu oso
alderdi txikiyak,
ezin iruki alde
denetan begiyak;
ditubelarik berak
azkazal zorrotzak,
berari normaik sartu
oi diozka ortzak.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Astoa eta otsoa

Astoa arrantzaka
aztalka lurrean
jostatzen zala mendi
baten egalean,
otsoa aruntz joanik
arrantza soñura,
billatu zuben asto
tronpetero ura,
zeñek begik itxita
baitzebillen ala,
zilipurdika ero
bat ziruriyela;
eta arrimaturik
belarrira, esan
zion ala norbaiti
deika ari al zan.
“Ez; eztiot nik deitzen
arrantzaz iñori
—erantzun zion—; pozez
naiz kantari ari;
aurten aboztu ona
dala det jakindu.
eta poz onenak nau
onela arindu”.
“Ala dek —esan zion—,
txit dek urte ona,
aurten gizenduko dek
len plako dagona:
kanta zak, kanta berriz,
kantatu zak lasa,

nik eramango diat
ederki konpasa”.
Eta begi bat erdi
irikirik ontan,
astoak otso zarra
zuben ikusi an;
eta izuturikan
an ikustez ura,
estura artan jaio
zitzaion burura,
ark lasai kantatzeko
agindu ziola,
eta kantari ari
obeko zubela;
eta ala berriro
asirik kantari,
zala aztalka eta
arrantzaka ari,
otsoak zuben bere
artean esaten:
“Laster asiko nauk ni
i ito ta jaten.
Ai lasaitzar aundiya
gizarajotzarra,
eztiat gaizki iri
egiten nik farra”.
Eta ura esanaz
algara begira
zegoala, emanikan
astoak bi jira,

otso zarra ostikoz
tripapean jota,
zuben goitikan beko
errekara bota.
*Burlatu ta nairikan
ito otso zarrak,*

*artoak bera il ta
zizkan egin farrak;
ez artu ezerezak
ezerezagotzat,
onek balio beza
gure leziotzat.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Otsoa eta akerra

Otsoak ikusirik
mendiyan akerra,
gaixoari segika
egin zion gerra;
eta luzarotxoan
ibillirik ala,
igeskakoa ezin
eskapatu zala,
bere zoramenean
errio batera
salta zan, nairik beste
aldean atera;
bañan ez jakiñikan
gaixoak igari,
sarri zuben itoko
zala an igarri,
eta berriz jirarik
lengoko aldera,
al zuben moduban zan
irten legorrera.
Otsoari au esan
zion beriala:
bertatik bere mende
gelditutzen zala;
bañan arren ta arren
etzezala ill an,

ezpada beste leku
bat gordekogoan,
amak etzizan aren
ezurrak ikusi,
etzedin aren penaz
ama gero bizi.
Otsoak ez arturik
itz ura gaitzera,
eta zijoazela
beste lur batera,
bidean billaturik
zulo bat aundiya,
akerrak esan zion:
“Ona, nagusiya,
nai banau ill, jateko
leku egokiya,
ni oso ezkutatu
niteken tokiya;
ia begira beza
barren-barrenera,
ezurren gorde leku
ona al dan bera”.
Eta luzaturikan
bere lepo tzarra,
begira zan denboran
jarri otso zarra,

atzetik adarrakin
ipurdiyan jota,
zuben jira-bueltaka
goitik bera bota.
*Umilla dana ere
bada estu artzen,*

*zernai gauzetara da
umil ura jartzen;
ala onenak ere
eman ezkeroz min,
zer egin lezakean
ez derike jakin.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

Tximuba dantzarako sala aundiyan

Sedaz apaindurikan
zebillela dantzan,
iñork ezagututzen
etzubela nor zan,
bat-batez begiraka
jarririkan gora,
salta zuben argitei(1)
zintzillikakora,
eta an komeriyak
asirik egiten,
bere ibillerakin
parrak eragiten,
arropak zu artubaz
zebillela ala,
iraulkan dantzan txoro
bat ziruriyela,
alako batez goiko
lokarriya autsi,
eta goiz bea zuben
jo argi ta guzi;
eta itzaldurikan
ala argi denak,
illunpean zituben
utzi an ziranak.

Galdeturik orduban
batek ura nor zan,
goiz bea jo zubena
tximuren bat al zan,
erantzun zien, ura
zubenekoz esan,
nor izango zan bada
tximuba ezpazan;
nork bestek aruntz ala
saltatuko zuben,
eta alako lanak
egingo zituben;
eta denak, esanaz
tximu txar bat zala,
ziran joan, illunpean
utzirikan sala.
*Au da, batek dakarren
berezkiko griña
gaitz baitala kentzen, naiz
egin alegiña;
tximubagatik esan
oi dana erderaz:
mona izango dala
naiz apaindu sedaz.*

Euskal-Erria, XXIII, 1890.

((1) *Araña.* (R. Artolaren oarra)

Asto zuriya eta asto beltza

Mendiyan ikusirik
alkar apartera,
eta bildurik biyak
zelaitxo batera,
zuriyak esan zion
beltzez jantziyari:
“Ai zer poza zaidan gaur
igarotzen neri,
jantzi mudatuko bat
billatzeaz emen!
Bada gure aldean
ez orain ta ez len,
ezta ikusi izan
zuriyak besterik,
eta ezta espero
ere ikusterik;
ala gogaitutzen nau
ni an abizitziak,
beti zuriyak baizik
ez ikusitziak;
eta det nik egunen
batian igasi
egingo, beltzak diran
tokin nadin bizi”.
“Ala da —esan zion
besteak orduban—;

desberdin bizi gera
guziok munduban;
guri gertatzen zaigu
kontu ori bera:
zuririk bat ez gera,
denok beltzak gera;
eta ni ere bizi
naiz asperturikan,
pozik eskapatuko
nukela andikan”.
“Orduban egin zagun
segiran trukara
—esan zion besteak—:
zu orruntz, ni ara”.
Eta artapendurik
biyak itz arretan,
trukara egin zuten
egun artan bertan;
bañan sarri baitziran
oartutzen asi,
etzirala lenago
bezin lasai bizi,
maiz oroitzen baitziran
umeaz ta amaz,
anaiaz eta beste
lengoko lagunaz;

bañan jiratzen nola
ez baitzan txit errez,
zeren lenaz jarriyak
zeuzkaten beldurrez,
alaz ere nork bere
aldetik igasi
egin naiean sarri
ziran biyak asi;
bañan beren jabeak
ikusirik ala,
dantzan kutizi utsa-
gatik zebiltzala,

estaka banarekin
irtenik bidera,
izan zuten kostillak
berotzeko era.
*Onek erakusten du,
astoaren gisan,
kutizioso asko
oi gerala izan;
kutizi utsagatik,
beste bide gabe,
maiz egin oi gerala
zenbait gaitzen jabe.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891

Beorra eta otsoa

Beorra amildurik
aldapadak bera,
zilipurdika joan zan
erreka batera;
eta ito ez ito
urak zeramala,
otsoak ikusirik
menditikan ala,
salta ta joan zitzaion
bere baztarrera;
eta nairik jateko
urtatik atera,
isatsetik tiraka
zitzaiola ari,
kopetean ostikoz

kolpe bat berari
emanikan beorrak,
bota zuben bertan;
eta artaz otsoa
itorikan urtan,
biyak zituben urak
andikan eraman.
*Otso zarra mendiko
eiztariya bazan,
arrantzara zertako
erriora joan zan?
Mendiko eiztariyak
dira mendirako,
eta arrantzaleak
berriz urerako.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Kirkirrak eta igelak

Nola kirkirrak ala
igelak kantari
ziralako egiñal
guziyan maiz ari,
kejak joan zitzaiozkan
legoi erregeri,
ain gogor kantatzen ez
uzteko aieri;
eta ontzat arturik
erregeak ura,
eman zioten urte
beteko denbora,
lur ura libratzeko
irteteko andik,
aren mendean ziran
alderdietatik.
Bañan nola ibai bat
pasa bear baitzan,
eta an pasatzea
kirkirrentzat gaitz zan,
alaz ere denboraz
zezaten pasatu,
zubi bat egitea
zuten an pentsatu;
eta arturik lagun
egiteko lanak,
oso zubi egille
onak armiarmak,
utzirik kantak eta
kanta kontuk oso,

zioten denak gogor
lanari eraso.
Igelak ezertara
saiatu etziran,
non beren indarretan
piyatzen baitziran,
esanaz: "Gu igari
dakigunak gera,
eta noiznai ur ortan
pasako baikera".
Bañan azken eguna
iritxi zanean,
eta denak urtara
sartu ziranean,
bukatuba zegola
ordukoz zubiya,
etorririk ur-alde
bat izugarriya,
kirkirrak ziran pasa
zubiyan eta joan,
eta igelak urak
zituben eraman.
*Onak erakusten du
langillea danak
geldi beren egingo
ditubela lanak;
bañan bada alperra,
naiz azkarra izan,
gertatu litekela
igel aien gisan.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Bi zakurrak

Biyetan txikiyenak
bi belarrik motzak
zituben, bañan oso
letagin zorrotzak;
besteak letagiñak
onak etzituben,
bañan oso belarri
ederrak zituben;
eta ala zirala
gertatutzen biyak,
bein topozturik, zion
belarri aundiyak
esan, pasatzekoan:
“Agur, lagun zarra;
eztaramak kaskezur
ori gauza txarra.
Zein merkatutan saldu
dituk belarriyak,
bat beren iretzako
gorde gabe, biyak?
Eltze kirten gabe bat
dirurik buruban,
ai zer gauza ederra
abillen munduban!”
Eta besteak, ura
penaz aitu arren,
nola ustez ark ainbat
indar etzekarren,
etzion nai izandu
itzikan erantzun,

ixill-ixillik zion
esan dena entzun.
Bañan alako batez
azpitikan gora
begiraturik ari
parrezko abora,
ikusi zion arma
onik etzubela,
ortzadura guziya
galduba zubela,
nonbait lenaz borroka
asko egiñetan,
eta ontaz eldurik
aundiyari bertan,
asi ziran borroka
oso gogor biyak,
eta itsatsirikan
agiñak txikiyak,
aundia ezin elduz
zan artean ari,
belarriyak atera
zizkan aundiyari.
*Txikiya gelditu zan
ortz ederren jabe,
aundiya ortzik eta
belarririk gabe;
irakurtze onek du
kontu au esaten,
panparroi burlosoak
entendi dezaten.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Katuba eta txakurra

Katubak atxaparra
eltzean sartu ta
atera lukainka ta
ortzetan artuta
zeramala, etxeko
txakurrak galdetu
zion nondikan zuben
jankai ura artu;
zeñi erantzun zion
eltzekoa zala,
eta iguala beste
bat ere bazala;
ark buruba sartuta
ortzakin atera
zubela, eta egin
zezala lan bera.
Eta txakurra joanik
sinisturik ala,
eltzea irakiten
gar gar gar zegoala,
eta begiramenik
ezer para gabe,

presaz egin nairikan
lukainkaren jabe,
kolpez muturra sartu
zuben an eltzean,
bañan non billatuko
zuben iguala an,
muturra kiskali ta
dar dar eltzeari
eragiñik, eltzea
baitzuben irauli;
eta saldaz berriro
errerikan bera,
zan itzul karraxika
kanpora atera.
*Tontoa asko aldiz
du abillak galtzen,
dalako bere esan
paltsotara jartzen;
ala, tontoak begik
bieitu argitu,
ez dedin txakurraren
gaiean arkitu.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Azariya eta olloak

Oллоaren etxera,
bere pikardiyari,
joanikan azeriya
gabaren erdiyan,
danba danba atea
kolpatzen asi zan,
ollo lotan zeudenak
esna erain zitzaiz;
eta leiora joanik
bat lo etzegona,
otsegin zion: “Nor da
atean dagona?”
“Ni naiz —erantzun zion
boza mudatuta—;
mugi zaitezte azkar
etxeak su du ta;
ate zuloatik dira
nabaitutzen garrak,
denok sarri zerate
kiskali bearrak”.
Eta ura aitzeaz
ollo leiokoak,
jaiki erain zitubena
beste lotakoak;
eta izuz utziririk
lo toki berenak,

zebiltzala muturrak
autsi naian denak,
ollarrak bati esan
zion: “Nor da bian?”
“Azeri bat —erantzun
zion— da atian”.
“Orduban esan zaizu
azeri jaunari,
ez dedilla alperrik
ate joka ari;
olloak aspaldiyan
denak lo daudela,
eta ni ere aien
gisan lo nagola”.
Eta ura esaten
aiturik betikan,
su kontubak laja ta
gorde zan andikan.
*Onek erakusten du
kolpeko izuba,
ageri dan bezela,
dala txit pisuba;
bañan ura pasa ta
gogor bada jartzen,
ark diola izuba
besteari sartzen.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Astoa

Onek etzubelarik
nekezkoa lana,
gutxi zioten ere
ematen zer jana;
eta ala zalako
gose samar bizi,
bein zuben egin bere
etxetik igasi.
Serbitzen jarririkan
txit urruti andik,
an zituben billatu
mudantza txit aundik:
zer jana nai ainbeste
izaten baitzuben,
baña nekea ere
neurri artan zuben:
egun guziyan etzan
lanetik gelditzen,
egur karreo zuten
beti erabiltzen;
azpazan pizkor asten
esatean arre,
nagusiya jaikitzen
zitaion asarre;
eta ala, pausoa
laburtzen bazuben,
makillazoa aren
truk gañean zuben;

nola zeraman egur
lerdena berekin,
kostillak berotutzen
ziozkan arekin.
Eta astoak gauza
ikusteaz ala,
len bañan gaizkiago
askoz bizi zala,
esan zuben: "Lenago
kontentu ez nintzan,
gaizki bizi nintzala
kejatutzen nintzan;
bada orain norabait
mugitutzen banaiz,
an igual gaizkiago
berriz izango naiz;
eta nola ez dagon
bizitzerik lasa,
naiago ditut emen
nere penak pasa".
*Au da ispillutxo bat
argiro dagona,
onetan dedin jarri
begira gizona,
ikusi ditzan bere
barreneko penak,
eta beste alderdi
askotan daudenak.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891

Ur olloa eta igela

Ur olloari galdez
jarri zan igela,
nola bian ta goian
ibiltzen zan ala;
noiznai ikusten zala
ur pean gordetzen,
nola noiznai aidean
ederki egatzen;
eta erantzun zion
ur olloak ari,
segitu nai bazion
aurrera berari,
eramango zubela
berekin aidean,
eta egan ziola
erakutsiko an;
eta ura aitzeaz
pozturik igela,
goitituzeko prest zan
jarri beriala.

Orduban ur olloak,
anketikan bera
arturik, zuben putzu
zulotik atera;
eta zintzillik buruz
bera zeramala,
goititu zan denboran,
zion berak ala:
“Guri-guriya dago
preso dakartana,

onek badauka ordu
beteko zer jana;
gorago igotzean
utzirik erortzen,
ikusiko det bea
jota porrokatzen;
eta an egingo det
nere otorduba,
jan on bat egiteko
bainuben orduba”.
Eta ura esanaz
goitituzen zala,
jankai on artaz baizik
oroitzen etzala,
gabiraba sarturik
zart bere gañera,
zarpaz lotu zituben
igela ta bera;
eta ezkutaturik
segiran andikan,
etzan geroztik jakin
beren berririkan.
*Ur olloak zuben nai
izandu gaitz egin,
bañan tiroak zion
eiz ura utsegin;
askok, paltsiyan galdu
nairikan auzoak,
beren kontra ematen
dituzte pausoak.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Azeriya eta trikuba

Alkarren lagunkidan
biyak bein basoan
zijoazela, ziran
erori lazoan;
eta artzai bat andik
pasatutzen zala,
ikusirik an preso
bi piztiyak ala,
zigor bat segiruban
billaturik bertan,
bere arekin biyak
zatitzen asi zan;
bañan geiena zuben
azeriya jotzen,
oni zion bizkarra
gogorki berotzen;
eta, au ezin gordez,
trikubarengana
arrimatzen zan, bañan
an ere zan lana,
arantza zorrotzakin
baitzuben zulatzen,
eta korputz guziyan
min zubela artzen;
erdi negarrez zion
esan artzaiari
ez ainbeste kastigu
emateko ari;
trikubak ainbat kulpa
ark ere zubela,

eta trikurik ala
jotzen etzubela.
Zeñen erantzun zion
baietz, ala zala;
biyak kulpa berean
gertatzen zirala;
bañan arrek orduban
ematen zizkanak
baitzirala pagu lan
len egiñarenak;
trikubagandik kejik
izaten etzala,
kulpa zubena beti
azeriya zala;
ark baitzubela beti
gaizkirako griña,
ura zala tranposo
gaitz asko egiña.
Eta libre utzirik
an triku umilla,
azeriya izan zan
zigorpean illa.
*Onek erakusten du
nor zer dan len izan
gainduko dala gero,
piztiyaren gisan;
egin badu lenaz lan
txar edo onikan,
neurtutzeko eztala
faltako kanikan.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Artza eta lapurrak

Artza dantzan jarriyaz
zerbait diru biltzen,
erriz erri zan bere
jabea ibiltzen;
eta bein zijoala
batetik bestera,
gabaz allegaturik
baserri batera,
gau artarako zuben
tokiya eskatu,
eta nola etzien
eskerik ukatu,
sartu zan barrenera
bere artzarekin,
bañan kontubak ziran
ondoren onekin:
jarri ziran pentsatzen
beraren tokiyaz,
gau artan etzateko
bear zuben oyaz;
eta ez irukirik
leku egokirik,
etxean artzarentzat
moduko tokirik,
zerriya kendurikan
zegon tokitikan,

an sartu zuten, guri
egin zezan lo an;
eta gabaz lo bete
betian zegoala,
nonbaitetik portunak
emanikan ala,
lapur bi ziran etxe
arretara sartu,
nai zutekenak ango
zerriya lapurtu;
eta ustez joanikan
bere lo tokira,
ziran an zegoalako
sartu biyak eira;
eta batek zakarki
esnatu etzezan,
zion gilbor berean
igurtziyaz esan:
“Zer potxoloa zauden,
adiskide ona!
Ez dirurizu zuk maiz
goseak agona”.
Eta ura esanaz
soka lepotikan
jartzen ari zirala,
artzak, lotatikan

jaikirik, eldu zien
zarpakin biyari,
eta otsegiñikan
etxeko jaunari,
entregatu ziozkan
aiskide bi onak,
pasaportetik gabe
zebiltzan gizonak.

*Esaera zarretan
begira dezagun,
guk ere bide txarririk
artu ez dezagun;
ez ille eske sartu
iñoren tokira,
ezpadegu nai andik
muskildurik jira.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Kamelluba

Au berez oso jibosoa ta
molde gabea izanik,
ederragorik munduban uste
etzuben uste bat zanik;
otsoagatik esaten zuben
itsusi puska bat zala,
leporik jira ezin zubena
litxarrero bat baitzala;
astoagatik baldar bat zala,
belarri luze ta guzi,
eta tontoa bere igualik
etzala beste ikusi;
artzagatikan berriz zubela
korputz trakets ta zatarra,
muturra oso itsusiya ta
jenioz zala zakarra;
eta onela guziakgatik
zubela beti zer esan,
bera ederra zala ustean
panparroikiro bizi zan.
Bada onela zala eta bein
bere joaneran mendian,
bide zior bat pasa eziñik
oso irrisku aundiyan,
arkitzen zala artu naiean
beste bide bat ohea,

anka batekin irrist egiñik
 jo zuben mendiz goi bea;
 eta kolpeaz gelditurikan
 zentzu gabe ill moduban,
 gisa arretan egon zan korde
 gabe iru lau orduban.
 Aldi txar ura etzanta egin
 eta kontura zanean,
 bere buruba arkitu zuben
 zutik ur eskin batean;
 eta ur artan ikusirikan
 erreñu bere iguala,
 sinistu zuben erreñu ura
 animaliren bat zala;
 eta begirik ezin zubela
 ura ikusi ta jira,
 esan zuben: "Ni non nabill emen?
 Ni zeri nago begira?
 Gure lurretan ezta ikusten
 modu ontako gauzikan,
 animalirik orren zatarrik,
 orren itsusi puskikan;
 bere burubak diruri eltze
 bat belarririk gabea,
 eta lepoak uztai oker bat,
 korputz neurriyan du mea;
 gañera berriz konkorra dauka,
 jiba du eta aundiya,
 orren bizkarrak dirudi dala
 Akelarreko mendiya".
 Eta onela egon ondoren
 begira zangar zar ari,
 "Aiskidea, zu, nor zera? —zion
 galdetu gero berari.
 Bañan erreñu bereak nola
 etzion ezer erantzun,
 "Ba, au gorra da dudikan gabe
 —bere artean esan zun—,

falta geiago ditubenikan
danik ez nuke esango,
munduban patu gaiztogokorik
ezta beste bat izango”.
Eta aupean oek esanaz
asi zanean mugitzen,
ikusi zuben animalari ark
ere ziola segitzen;
eta zain txarrak emanik artaz
proga gisan zan gelditu,
eta besteak ere etzuben
ankik aurrera mugitu;
arretaz oso sinisturikan
ura erreñu bat zala,
ark an ikusten zubena bere
itxura baizik etzala,
esan zuben: “Ai! Patu txar nerez
ni neroni naiz gauz ori,
nerau zer naizen kontura ez naiz
orain artean erori;
falta guziyak gañean dauzkat,
au da martiri gogorra,
gelditzen zaidan poza bakarrik
da ez naizela ni gorra”.
*Burlosorik aundinak
burlagarrik izan
oi gera, kamelluba
gertatu zan gisan;
gerok izanik jiba
klase denen jabe,
ez baikera pasatzen
burlik egin gabe.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Tximuba eta astoa

Tximuba zijoala
gazta on batekin,
bidean topoz egin
zan astoarekin;
eta ikusirikan
negarrez zegoala,
esan zion zer zuben
malkazturik ala.
Astoak anka zion
altxa segiruban,
esanaz zerbait sartu
baitzitzaiola an;
eta alako miña
zubela sentitzen,
etzala mugitzia
andik atrebitzen.
Tximuba kupiturik
ikusteaz ala,
esan zion segiran
saiatuko zala
zer zeukan billatutzen
edo ateratzen,
luzarogoan egon
etzedin penatzen;
eta gazta lurrean
utzita, berari

eldurik zankotikan,
an baitzala ari,
zeukan arantza puska
atera eziñik,
noizik bein galdetubaz
artzen zuben miñik,
atera zionean
esan zion: "Orra
kanpoan degu zure
arantza gogorra".
Eta ura esanta
bere gaztagana
makurtu zan segiran,
bañan o zer lana!
Ura arantza ezin
aterarikan an
ari zan bitartean,
astoak zion jan.
*Tximubak miña kendu
asto lasaiari,
lanaren truk lasaiak
gazta jan berari.
Zer liteke espero
lasaiarengandik?
Gauza zuzenik edo
onik ez iñondik.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Akerra eta otsoa

Akerra zala beti
beldurrean bizi,
ezin egiñik otso
zarrari igasi,
Jupiterri zitzaion
erreguzka jarri,
arren truka zeizkala
adar aiek arri;
nai zituzkela aundi
bi zezenarenak,
nola indarrak ere
igual berarenak;
eta ontzat arturik
entzuten zegoanak,
graziz eman ziozkan
eskatu zizkanak.
Bada osaturikan
bere kutiziya,
berekín zekarrela
naikera guziya,
irten zan baserritik
zezenaren gisan;
bañan ozta jankaia
bazkatzen asi zan,
ikusi zuben otso
zarra urrutira,

eta dardar jarririk
berari begira,
esan zuben: "Zertako
ditut nik adarrak,
eta zezen aundiyak
dituben indarrak,
oek izan ta falta
bazait balorea?
Ai au zori gaiztozko
suerte nerea!"
Eta asi zanean
otsoa argana,
non bera saltako zan
otsoarengana,
izutu ta itzuli
asirik negarrez,
etzuben baserriya
arrapatu errez.
*Eskatu al guziyak
eman arren bati,
zer eskatuba zaio
geldituko beti;
ala, gure kontuko
akerraren gisan,
gustoz osatzen danik
ez derike izan.*

Euskal-Erria, XXIX, 1891.

Tximuba, azeriya eta otsoa

Tximubak lapurtuta
gazta bat guriya
zeramala, topoz jo
zuben azeriya;
eta gaztagatikan
okerturik biyak,
indarrez kendu zion
gazta azeriyak.
Tximuba segiran zan
joan otsoagana,
kontatutzera zer zan
egin zion lana;
eta otsoak zezan
justiziya egin,
biyari zien bere
aurrera otsegin.
An kargu arturikan
azeri zarrari,
zertan gazta atera
zion tximubari,
“Jauna —erantzun zion—,
nik diot atera,
jabea gaztarena
etzalako bera”.
“Bai, jauna —esan zion
tximubak orduban—;
gazta kendu dirana
neronena nuban;

txabola txar bateko
leiotik det artu,
eta ala gaztikan
eztet nik lapurtu”.
“Eta ori ez al da
gazta lapurtzia
—esan zion otsoak—:
leiotik artzia?
Ia zuaz orrekin
artzaiarengana,
ia esan zaiozu
eztala arena.
Bañan ez; falta dagon
ezkeroz egiña,
zuzentzera biegu
egin alegiña.
Biyok zeratelako
igualtxu portatu,
gazta bear dezute
erdi bana artu;
bañan ezta onekin
bukatzen guziya;
nola naizen ni juez
edo justiziya,
berriro ez dediyen
lapurretik egin,
eta kulpa dubena
kastigatu dedin,

ematen det bertatik
nere sententziya,
egin dezazutela
gaur penitentziya;
presondegiyan biyok
sarturik segiran,
zautela biyok bigar
eguardi arte an;
eta bestela gaztak
balio dubena
ematearekin gaur
oso neri dena,
segiran litekela
zuzendu kontuba,

barkatuba izango
dala pekatuba".
Bañan nola sosikan
biyak ez baitzuten,
otsoaren mendean
gazta utzi zuten.
*Espillu ontan ongi
begira dezagun,
onelako pausorik
eman ez dezagun;
batek bere ustean
naiz ondotxo jakin,
gertatu bailerike
pizkorragoakin.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

Artza eta otsoa

Artzak zanko bat preso
zeukala zepoan,
otsoari otsegin
zion zeikion joan,
esanaz arrimatu
zedilla argana,
ark emango ziola
txit gustoko lana;
an arkitu zubela
oslankai(1) eder bat,
ederragorik iñon
ez baitzana anbat;
“ara bera”, kalkatu
zeiola eskiña,
eta aituko zula
zeñen soñu fiña
joko zuben; etzala
alakorik aitzen,
aitzen zuben guziya
dantzan zala jartzen.
Bañan otsoak sarri
igarririk zer zan,
nola soñu jotzeko
oslankaia etzan,
artzak zeuzkazkiela
estutasun aundik,

ark txantxaz libratzea
nai zukela andik,
eta nola naiago
zuben au iltzea,
eta ez gero bere
kontra ibiltzea,
jankai billa noranai
lotsik gabe joanaz,
beretzako txit onak
ziran gauzak janaz,
esan zion: “Ai, nere
aiskide aundiya!
Biotz nerea penaz
urtu zait gaur iya;
bi seme nituben ta
bat gaur bertan zait il,
eta neroni ere
oso gaizki nabil;
ala, ezin nezake
gaur nik jo soñurik,
ezin kalka nezake
oslankaien oñik”.
Eta artza penatzen
utzirik zepoan,
zan maiz txistuz begiyak
bustiyaz andik joan.

Gurekin ere maiz da
gertatzen au bera,
ez alkar salbatzea
irukirik era;

nor geren artekoen
aiskide ezkera,
lau ankakoak bezin
baldarrak baikera.

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

(1) *Instrumento de música*. (R. Artolaren oarra)

Tximuak

Euristalak(1) saltzera
gizon bat ferira
zijoala, zegoala
tximu bat begira,
onek, gordeka presaz
jatxirik menditik,
lapurtu zion euri-
estal bat mandotik;
eta bere arekin
itzul zijoala,
topoz egiñik lagun
bi an beriala,
esan zien: “Ara nik
emen gauza ona:
euristala, gizonak
ibiltzen dutena”.
Eta gustaturikan
lagunari ura,
bertan segiran jaio
zitzaien burura
lapurtzea beste bi
ere modu artan,
berriro mandozaia
an pasatzen bazan;
eta, artan zirala,
emanik euriyak,
bik zabaldu zuten ta,
kirtenetik biyak

elduta zeukatela
aize bat sarturik,
eta ark azpitikan
aidean arturik,
igo zuben bi tximuk
zintzillik zitula,
eta zan itsasora
joana izan ala.
Orduban azpitikan
begira zegonak,
esan zuben izuz: “Ai!
Adio, lagunak!
Izan litezke euri-
estalkaiak onak,
bañan tximubak nola
ez geran gizonak,
orlako gauzik eztet
nai orain neretzat;
etziran konpitiak
egin astoentzat”.
*Onek erakusten du
kontu aundiz jakin
bear dala ibiltzen
zenbait gauzarekin;
guretzat ere denak
eztirala onak,
ongi begiratzeko
gauzari gizonak.*

Euskal-Erria, XXIV, 1891.

(1) *Paraguas.* (R. Artolaren oarra)

Arbola eta arrosa

Arbolak inguruban
zeukan arrosari
esan zion: "Adartxo
bat ortikan neri
luza zadazu, lotu
dezadan gerriyan,
arkitu nadin beste
itxura berriyan;
uztai zaitia nere
gorputz ederrian,
or egon gabe zauden
bezela lurrian;
grazi geiagoz zera
emen agertuko,
eta bidez ni nazu
berriz edertuko".
Eta gustaturikan
ura arrosari,
segiran zion bota
besoa berari.
Ala joan zan edertzen
arbol lirain ura,

gustatzen zan moduban
txit bere itxura;
bañan ainbesterañon
zan lorez estutu,
edo lore arantzak
lotu zuten estu,
abiatu zitzaion
estutzen asnasa,
etzubela artutzen
bear bezin lasa;
eta asirik ere
ostoa igartzen,
martiri lorepean
ikusi zan iltzen.
*Gazteak begiratu
ispillu onetan,
egon gabe denbora
joanean penetan;
edertasuna bañan
len da osasuna,
au da billatu bear
degun ondasuna.*

Euskal-Erria, XXV, 1891.

Bi katu eta mika

Kaiola bat egonik
egaztiz betea,
bi katuk nai zioten
iriki atea;
eta artan zirala
estu ari biyak,
askatzearekin bat
ateko ziriyak,
gertatu zitzaioten
inguruban mika,
eta eraman zien
zeukaten birika.
Ura ikusitzeaz
lapurretan ala,
aien birikarekin
eskapatzen zala,
presaz saltatu zuten
biyak beragana,

azturikan kaiolan
ari zuten lana;
eta bitarte artan
an ziran egaztik,
kaiolatik irten da
egaturik guztik,
bi katuk ez egazti
eta ez birika
gelditu ziren, egan
goitituta mika.
Kontuko katubaren
moduban gera gu,
iñoren gauza asko
gustatzen baitzaigu;
eta gauza areta
egin nairik jabe,
iñoiz gelditzen gera
gerenikan gabe.

Euskal-Erria, XXV, 1891.

Erbi ama-umeak

Erbi umeak ama
tentatzen zuben maiz,
esanaz: “Denboraz ni
emendik joango naiz;
nik eztet kabi zulo
onetan nai bizi,
munduba nolako
dan nai det ikusi”.
Bañan amak jakiñik
zer gerta zeikion,
kabitik mugitutzen
utzitzen bazion,
esanaz arteraño
arentzako mendik
zirala bizitzeko
gaitzurri(1) txit aundik;
ark esango ziola
noiz utzi kabiya,
eta noiz bear zuben
kanpoan abiya.
Bañan pazientzirik
diña ez izanik,
umeak egin izan
etzuben esanik;
atxitu zuben
itzultzeko era,

saltoka zan zulotik
kanpora atera.
Lego erdi bat bide
zubenearan pasa,
esan zuben: “Au poza!
Orain nago lasa.
Oek mendi aundiyak,
oek gauza onak,
eztaki oen berri
kabiyan dagonak”.
Eta ala gozoro
gora eta bera
zebillela, jatxirik
erreka batera,
an billatu zituben
igelak kantari,
ziranak eguzkitan
ur eskiñan ari;
eta ikusitzeaz
allegatzez ura
denak segiran salta
zutela putzura,
esan zuben beregan
oso arriturik:
“Izutiya nintzala
uste nuben len nik;

bañan ikusten danez
jende emengoa
da oraindik ni bañan
izutiagoa;
eta berak dabilizan
tokiyan ni ere
ibil nindeke noski
beldurrikan gabe".
Eta pasa nairikan
igari ur ura,
salta zuben ark ere
segiran putzura;

bañan egin etzuna
amaren esana,
izan zan itoa ta
urak eramana.
*Kontu onek ematen
diguna aitzera
da ongi esanik ez
artzeko gaitzera;
ongi lumatu gabe
egatutzen danak,
arkituko ditula
gero bere lanak.*

Euskal-Erria, XXV, 1891.

(1) *Peligro*. (R. Artolaren oarra)

Kurrilloak eta olloak

Sort alderditik jaiki
ziran kurrilloak,
pasaran ikusirik
zelaian olloak;
goitik otsegin zien:
“Agur, aizpatxoak,
ongi neguba pasa
zazute gaxoak;
gu guaz otzetikan
berora igasi,
sort alde ortan negu
txarra du ta asi;
agur, agur, adiyó
uda berri arte,
negubari egin petx,
bizi fuerte-fuerte”.
Zeñei erantzun zien
olloak segiran:
“Ai, zuekin egan or
nor litezkean joan!
Ai nork leukaken zuen
abillidadea,
orren errez joateko
orlako airea;
bañan nekatu gabe
geiegi bidean,

egon bat egin obe
zerutika bean;
atozte, aizpatxoak,
onuntz guregana,
emen ezta faltako
zuentzat zer jana;
bidez nola dezuten
egariyen fama,
nai genduke guk artu
leziotxo bana,
ikasi ta zuekin
egatu dezagun,
negu gaiztorik emen
pasa ez dezagun”.
“Bai —esan zien—, pozik
giñake jetxiko,
bañan or gu gizonak
ginduzteke ilko”.
“A, orduban zuazte,
zuazte ortikan”
erantzun zien ollo
onak azpitikan,
esanaz: “Bagenduke
ongi egatuko,
zuen jipoia bera
genduke artuko;

eta guk obe degu
bildur gabe bizi,
eta ez egan zuek
bezela ikasi".
Eta ala penakin
joanik kurrilloak,
penikan gabe ziran
gelditu olloak.

*Gu ere asko gera
inbiriz bizitzen,
beste degun denboran ,
ongi ikusitzen;
bañan badiogu gaitz
txarren bat nabaitzen,
orduban eztiogu
inbiririk artzen.*

Euskal-Erria, XXV, 1891.

Bi nekazariyak eta aitzurrak

Lurrak igualak eta
ala baserriyak
zituztelarik auzo
ni nekazariyak,
baten lurrak ematen
zuben laborea,
bestearenak bañan
askozaz ohea,
eta ugariyago
bi alako iya,
naiz nola artoa ta
ala naiz gariya.
Besteak ikusirik
bere miseriya,
lurrak ezer ematen
etziola iya,
esaten zuben: "Ezta
falta lurrarena,
ezpada nere aitzur
arlotearena;
nik banu nekazari
auzokoarena,
ark bai nei egingo
lirakela lana;
gozo jartzen du arrek
jotzen duben lurra,

gallandituba(1) baita
ark duben aitzurra;
ni nere txar onekin
ez nedike bizi,
ernegatzen nago ta
jota biet autsi".
Eta porrokatzeko
asmoan altxatu
zubenean, aitzurrak
esan zion: "Kontu,
etzazula jo gogor
nerekin paretik;
zuk uste dezun kulpa
modurik eztet nik".
"Zeñek dik bada?" zion
erantzun gizonak.
"Zuk, eztu bestek kulpik,
zuk dituzu denak;
maizter auzokoaren
gisan egillea
danak aitzurra izan-
go du langillea;
bañan zure moduban
maiz alper dagonak
eztitu ikusiko
bere lurrak onak".

Eta artaz kontura
jaikirik gizona,
esan zion: "Ala dek,
dek lezio ona".
Onek erakusten du
gure zori ona

*jaikitzen dala gogor
egitetik lana;
bearrik egin gabe
nai dubenak bizi
ez dezakela pozik
etxean ikusi.*

Euskal-Erria, XXV, 1891.

(1) *Privilegiado*. (R. Artolaren oarra)

Tximuba eta farola

Tximubak izanikan
bere griña dena
egin naikoa bestek
egin oi dubena,
bein pintatzalle baten
lan tokira sartu
eta zizkan pinturak
ta brotxak lapurtu;
eta bere aiekin
pozez zijoala,
topoz egiñik eskin
batean farola,
onek pintore berri
ari esan zion
ia pintura mañu
bat emango zion;
sarri zirala festak
egin bearrak an,
eta txukunki ager
zediyen festetan.
Eta gelditu gabe
tximuba pentsatzen,
segiruban asi zan
farola pintatzen;
zeñen bere nai dana
artarako baitzan,
bañan lan artan asi
bazan ta asi zan,
non farola txukunki
pintatuko zuben,

goiz be guziya oso
ondatzen baitzuben,
malko tantoen gisan
kristaletan beera,
zeriyola pintura
guziya lurrera;
eta ala nolabait
bukatutakoan,
zan aruntz joan zan bezin
arin andikan joan.
Piztutzen ziranean
gerogoan asi,
da ain zatar planta
arretan ikusi,
etzubela ematen
argirikan iya,
ziruriyela argi
il ipurtargiya,
non apainduko zuten,
egur batez jota,
zuten porrokaturik
baztarrera bota.
*Nornai langillerekin
fiatutzen danak
eman leizkake bere
burubari lanak;
bere aldeari zer-
bait on egin naian,
gerta deike denak far
egiteko gaian.*

Euskal-Erria, XXV, 1891.

Suba eta tupiya

(*Nere adiskide eta neurlari gazte*
Felipe Kasal Otegi-koari)

Maiz ziralarik alkar-
gana arrimatzen,
etziran biyak beti
gozoro konpontzen;
subak esaten zion:
“Zertan aiz, tupiya?
Gañean zertan jartzen
dirak ipurdiya?
Zertan ago or beti
zintzillik nere zai?
Gora bidea zertan
uzten ez nauk lasai?
I berotu eziñik
dek nere biziya,
tonto tzar tripa aundi,
trakets, itsusiya”.
Tupiyak: “I zertako
aiz ni gabe, suba?
Kedarrak erretzeko?
Gaintzeko izuba?
Ire izaera dek
egun bererako,
indarrak joaten zaizkik
beti gaberako;
or egoten aiz gero
muskilki austuba,
aldamenean lotan
dekala katuba;

ni berriz, non goizean
ala arratsean,
beti zintzo egoten
bainauk lagatzean;
nere tripak mantentzen
baitik familiya,
ik berriz egurretan
ondatu dek iya”.
Eta, ala zirala
tripan tupiyari
emanik bein kolpe bat,
jarri zuten eri;
eta urrengo surtan
zanean berotu,
eritasun artatik
zart oso zan lertu;
eta tripako saldak
joanik su gañera,
suba itzali ta il
zan tupiya bera.
Gizonari gertatzen
zaigu ori bera:
alkarren kontra minki
maiz leiatzen gera:
eta ustez gogorren
noiz geran arkitzen,
igual gaitu fu aize
txar batenak iltzen.

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

Arbola bat

Arbola bat zan oso
begiragarriya,
ederrez igualikan
etzubena iya;
bere sasoian indar
alakoa zuben,
negurik gaiztoenak
mellatzen etzuben;
bañan egun batean
denborale oso
gogorra sarturikan,
ark zion eraso;
eta adar batzubek
botarik lurrera,
zerbait okerturikan
laja zuben bera;
orduban esan zuben:
“Zer zait pasa neri?
Nor da onuntz ni ontan
jartzera etorri?”
Eta ura pasa ta
beste denborala
jaikirik, eta ala
okerka zegoala,
aizeak emanikan
bulkaera berrik,
len bañan okerrago
jarri zizkan gerrik;
eta andik aurrera,
denborak gogortzen

ziran bakoitzean, zan
gaizkiago jartzen,
non esaten asi zan
bere burubari:
“Aundiya da gertatzen
zaidan gauza neri;
on egiten zidaten
len legor, bustiyak,
elurteak, aizeak
eta eguzkiyak;
eta gaur berriz kalte
denbora eztiyak,
eta len on egiten
ziraten guztiyak;
nere indarrak dira
eskastu, au lana!
Bañan zer da ordean
gertatzen zaidana?”
Eta boz batek zion
erantzun itz ari,
esanaz: “Edadia
da zure gaitz ori”.
*Gizonari au bera
baitzaio gertatzen,
dijoan gisan bere
urteetan sartzan;
edadiak mendean
dubenean artzen,
zernai gauzak du gaizki
jartzen ta okertzen.*

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

Azariya eta buzoka(1)

Este bat jaten ari
zala azariya,
urrutitik botarik
buzokak begiya,
jatxi zan beragana
egiñal guzian,
nairik ere ark zerbait
este artatik jan;
eta arrimaturik
zerbait beragana,
esan zion: “Ai, nere
adiskide ona;
ezin egiñik ezer
jatekoren jabe,
iru egun onetan
nabil ni jan gabe;
eta uzten banazu
zerbait estetikan,
estimatuko dizut
biotz osotikan”.
“Ez —esan zion—, eztek
ontatikan jango,
goseak jetxi baaiz
goseak aiz joango;
ai zer kontubarekin
atorren nigana,

or konpon dediyela
goseak dagoana”.
Eta an ari zala
punta batetikan
tiraka esteari
gozoro jan ta jan,
buzokak esteari
beste puntatikan
kozka eldurik asi zan
goititutzen egan;
eta utzi nai ezik
azariya ari,
zala tira ta tira
bere esteari,
buzokak zintzillika
altxa zuben gora,
eta saltatutzeko
galdurik denbora;
egariyak segitzen
baitzuben goititzen,
gero este ta guzi
uzteko erortzen;
eta ala utzirik
sarri esteari,
azariya zan este
ta guzi erori;

eta jatxi zanekoz
berriz este billa,
azari bea joa
arkitu zan illa.
Goseak dagoanari
ez egin burlikan,

eta are gutxigo
mespreziorikan;
etziran batentzako
egin gauza denak,
ez dunari lagundu
beikio dubenak.

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

(1) *Buitre*. (R. Artolaren oarra)

Dama eta osiña

Dama etzana senti
osasunaz sendo,
bere aiskide batek
jarri zuben ondo;
eta lan beragatik
nairik grazik eman,
edo ongarri zerbait
oroitza eraman,
jatxi zan baratzara
lorearen billa,
baizeuren eta oso
ederrak lau milla,
sorta bat emateko
adiskideari;
eta an ederrenak
artzen zala ari,
osiñak errerikan
esku polit fiña,
esan zuben: “Ai! Zerk dit
eman neri miña?
Belar txarren bat dago
or; bai, da osiña,
sortu zubenak zori
gaiztoan egiña”.

Eta segiran zion
erantzun osiñak:
“Bai; nik dakit ematen
eta kentzen miñak;
oroit zaitea nitaz,
zenubenean min
nola zizuten nere
ur miñak on egin;
odolak itotzera
ekarririk ala,
nere urakgatikan
sendatu ziñala”.
Eta aretaz dama
jaikirik kontura,
esan zuben: “Bedeinka
bedi zure ura”.
*Txartzat mespreziatu
bear ezta ezer,
txarrak izan lezake
ona zer edo zer;
mundu ontan bearrak
baikerare guzik,
etzuben Jaunak egin
bear etzan gauzik.*

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

Paziya eta eltzea

Paziyak goitik bea
jo ta arturik miñ,
eltzeak su ondotik
burla zion egiñ;
bañan pazi ederra
konpondurik sarri,
zuten lustraturikan
apalean jarri.
Andikan laster eltze
far egin zubenak,
zart egiñik itzali
zituben su denak;

eta konpondutzeko
nola gauza etzan,
segiruban putzura
botea izan zan.
*Ez bearrak dirare
guretzat egiñak,
ezin libratu egin
arren alegiñak;
iñoren nai-ezari
ez farrikan egiñ,
non Jaungoikoak artzen
duben far artaz miñ.*

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

Bi euli eta armiarma

Bi euli alkargana
ziranak juntatu,
nairik alkarri beren
kontubak kontatu,
bat asi zan esaten:
“Ni bein kazubelan
sartu nintzan, ta sartu
nintzanakin bat an,
tapa para zioten
kazubela ari,
eta atea itxi
zizkidaten neri;
nik ura ikustez
preso nintzala an,
esan nuben: “Naiz gaur ill,
tripa bete zadan”;
eta erasorikan
ango jankaiari,
nintzala gisaruba
jaten gustoz ari,
nuben denboran zerbait
kazubela ustü,
ainbesterañon nintzan
ase edo puztu,
kazubelaren tapa
altxarrik bizkarrez,

kanpora irten nintzan
andik oso errez”.
Besteak esan zion:
“Ni bein marmitara
erori nintzan buruz
beera esnetara;
eta bera betea
zegoalarik oso,
ain nion gogoz esne
ari nik eraso,
zurrutaka marmita
txukatutakoan,
nere buruba nuben
arkitu ondoan;
eta segiran andik
irtenik gañera,
joan nintzan andik beste
alderdi batera”.
Ontan armiarma an
zelatan zegoanak,
zulotikan entzunik
biyen jolas onak,
joanta zarpazoz preso
egñikan biyak,
galdetu zien ziran
esanak egiyak.

“Jauna —erantzun zion
gisaru zaleak—,
gu ez gera euliya,
ez, orren jaleak;
nere esan guziya
txantxa baizik etzan,
eta barkatu bizait
gaizki badet esan”.
“Nere goienak eztu
gezurrik barkatzen
—esan zion—, ta zaitut
jango gaur bazkaltzen.
Eta zuk zer diozu?
—gero besteari
galdetu zion— “Nola
zan zure lan ori?”
“Nerea egiya zan
—esan zion—, jauna;

ni naiz marmita esne
osoa erana”.
“Bada orduban, zure
lagunaren gisan,
panparroi gezurtiya
zeralako izan,
zurekin egingo det
gaurko apariya”.
Eta biyari kendu
baitzien biziya.
*Gure artean, nola
kontuko euliyak,
ezer ez asko izan
oi gera aundiyak:
eta iñork bagaitu
estu samar artzen,
orduban gera euli
gu ere biurtzen.*

Euskal-Erria, XXVI, 1892.

Bi karnaba

Bat zebilela otzak
naikoa jan gabe,
ezin egiñik zerbait
jatekoren jabe,
arrimaturik kaiol
batekoagana,
esan zion: "Ai, lagun,
au pena, au lana!
Denbora txar oekin
nabill erdi illa,
eta zugana nator
zerbait jankai billa;
eman bazenirake
orain dezunetik,
nik ordaña jirako
nizuke menditik.
Ai, nork leukaken zure
bizimodu ona!
Zorionekoa da
kaiolan dagona".
"Bai? —esan zion—. Uste
ez nuben nik ori,
kanpoa geiago zait
gustatutzen neri;
itzul baneza egin
noizbait nik emendik,

gustora jiratuko
bainituzke mendik".
Eta besteak ura
ikusteaz ala,
bere bizimodubaz
kontentu etzala,
kaiolari atea
al zuben moduban
irikirik, presoa
libre para zuban;
eta presaz an zeuzkan
jankaiak janikan,
biyak zuten itzuli
egatu andikan.
Egatu zuten bañan
egun asko onak
etzituben pasatu
kaiolan egonak;
sarri emanik oso
gogorki elurrak,
eta estalirikan
arbol gain ta lurrak,
otzak egoetatik
jarri zan elbarri,
eta ala zanean
ain ikusi larri,

lengo kaiola billa
menditik jatxi zan;
bañan ez arkiturik
kaiolarikan an,
eta ezin egatuz
zebillela billa,
otzak eta goseak
izandu zan illa.

*Txarragatik askotan
utzi oi da ona,
gaizkiago jarri oi
len ongi dagona;
gaizki izatea zer
dan ez dakiyenak,
ez dezake jakin zer
balio dun onak.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Azeriya eta artzaia

Azeriya txabola
batera zan sartu,
eta zituben iru
arrautza lapurtu;
eta segiran nola
nai baitzituben jan,
an gertatutzen zala
artzai bat zelatan,
autsi zuben denboran
lendabizikoa,
arkitu zion zilla-
rrezko zuringoa;
segiran zubenean
lertu urrengoa,
urrezkoa billatu
zion gorringoa;
eta bestea zuben
denboran kaskatu,
zizkan urrea eta
zillarra topatu;
eta ez irukirik
iya zer janikan,
ernegatu ta bota
ta joan zan andikan.
Artzaia segiruban
txabolara billa

joanik, erosi zuben
ango arrautz pilla;
eta sinisturikan
zala aberastu,
zitzaizkan mendik eta
artaldeak aztu;
eta segiran joanik
errira, an lasa
zituben zenbait egun
eder guri pasa;
gero zanean zillar
ta urrez biartu,
arrautzetan bat zuben
kaskatzeko artu,
eta ari barrenen
billatu ziona
izan zan urre zillar
truk jankai txit ona;
kaskatu zubenean
gero bigarrena,
ustela zion ari
billatu barrena;
eta irugarrena
zubenean lertu,
ari zion txito bat
biziya billatu;

eta negarrez denak
bertan utzirikan,
presaz berriro joan zan
mendira andikan;
bañan otsoak lenaz
egiñikan jabe,
artzaia gelditu zan
ardirikan gabe.

*Begi itxutan sobra
fiyatutzen danak,
maiz billa bailitzake
gaizki bere lanak;
bai eta ere gerta
ez dedin negarrez,
ez utzi eskutik len
daukan gauzik errez.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Gizonak eta aitzurrak

Gaizki bizirik gizon
pobre bi erriyan,
zijoazela penaz
lotubak, mendiyen,
aitzur bi billaturik
lur zelai batean,
pentsatu zuten bertan
jartzea lanean,
lurrari kendu zeien
beren biziera,
bertan bizi moduba
zezaten atera;
bañan sarri baitziran
kontura erori
etzirala bi lankai
igualakin ari,
batek zubena zala
aitzur urrezkoa,
zubena kirten lodi
on zillarrezkoa,
eta bestearenak
zurezko kirtena
izanik, zala bera
burni utsa dena;
eta, ala zirala,
on ura zubenak,

kolpez sendatu nairik
zekaizkiyen penak,
lur lanari laga ta
errira joanikan,
aitzurrareen kirtena
saldu baitzuben an,
esanaz: "Zurezkoa
jarririk ordaña,
lana egingo det nik
beste batek aña".
Bañan non lur lanera
berriz igoko zan,
kirtena urtu arte
arrimatu etzan.
Orduban tentaturik
saltzera aitzurra,
esan zuben: "Burnizko
zakar batez lurra
igual moldatuko det
eta dirut nadin,
gero ere egingo
det bai nik nere din"
Eta ala saldu ta
beraren diruk jan
zitubenean, berriz
zan lur lanera joan;

bañan: “Ai —esan zuben—,
falta zait aitzurra,
maneatzeko sasiz
lotu zaidan lurra”.
Eta lagunarena
labore ederrez
jantziya ikusirik,
jira zan negarrez.

*Eztira fortuna dun
fortunoso denak,
askori berritu oi
baizaizkate penak;
beragatik ez laga
nolanai lanari,
non fortunik onena
kentzen zaion ari.*

Euskal-Errta, XXVII, 1892.

Zezena eta astoa

Gozoro belar jaten
nor bere partean
ari zirala biyak
barruti batean,
pixkaka bildurikan
iya alkargana,
ala zeukatelako
ere an zer jana,
biyak buruz alkar jo
zutenean iya,
lur mugan irukirik
belar on guriya,
zezenak esan zion:
“Ken ari, astua,
nere jankaia dek au
eta ortik ua”.
“Ez —esan zion—, ezta
belar au zuria,
ni goizago jeiki naiz
eta da neria”.
Eta zezenak ura
ikusteaz ala,
tonto tzar muskil aundi
bat baizik etzala,

esan zuben: “Diyona
egin deiodan bai;
eztet nai au itxura
txarrian para nai,
tripakiyak zintzillik
ageri zaizkala,
far geiegi egingo
litzaioke ala;
eztet nai galdu nere
aurrekoen famik,
jarrai nadiyen noble,
eztet nai au il nik”.
Eta ala, zulako
utsegitzat artu,
etzion nai izandu
adarrikan sartu.
*Aundiyak txikiyagan
zerbait begiramen
gorde bear dubela
ikusten da emen;
mendeko-egiya auts
egiten dubenak,
ez litzakela izan
sentimentu onak.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Tximuba

Tximubak bere seme
bat luzaro miñez
zeukala, iñontara
sendatu eziñez,
egun batez jarri zan
erreguz zerura,
arren senda zeiola
ari seme ura;
bañan erreguk ere
ez ezer egiñik,
ez sendaturik aren
semearen miñik,
pentsatu zuben tokik
andik trukatzea,
osasunaren billa
lekuz aldatzea;
eta seme eriya
bere bizkarrean
artu ta zijoala
mendiyan bidean,
Merkurio jaungoiko
paltsoa birautzen, (1)

etziolako seme
maitea sendatzen,
fletxa eder bat zuben
altxatu lurretik,
eiztariren bati len
galduba zorrotik;
eta bere arekin
zerura begira
jarririk, zion fletxa
zerubari tira;
bañan non joko zuben,
zanean erori,
kaskezurretik sartu
zitzaion berari.
*Onek erakusten du
oso aundiyari
gaitz egin naian obe
baitala ez ari;
zeren non mengatuko
dion ustez ari,
menga leikiokela
bere burubari.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

(1) *Maldecir.* (R. Artolaren oarra)

Dama eta loreak

Ainbesterañon dama
zan gustatzen lorez,
beren usai ta beren
grazizko kolorez,
goizero jetxirikan
sarjin ederrera,
an izaten baitzuben
gozozteko era.
Gisa onetan zala
egun goiz batean,
lore sortatxoakin
etxeke atean
sartzen zala, musu ta
usai arras gozo,
ezpain politak erre
zizokan ark oso,

lorearen tartean
zalako osiña,
eta ziolako ark
eman ala miña;
segiran sortatxoa
botarik lurrera,
errabiz anka pean
pasa zuben bera.
*Gaiztoa sartzen bada
onaren tartean,
lan bera gertatuko
da onen kaltean;
kontu bera gutxitan
ez baita gertatzen,
maiz du onak gaiztoa-
gatikan pagatzen.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Arbola bi, sagarra eta indiya-gaztaña

*(Nere adiskide jaun Karmelo Etxegarai
euskal izkribalari bikañari)*

Arbola luzea zan
indiya-gaztaña,
iñork atzeman ezin
zeikiona gaña;
sagarra ere txarra
etzan berez, baña
nola bestia baitzan
lerden ta apaña,
motx makurak etzuben
luzitzen ark aña.

Aundiyak txikiyari
asko aldiz ala
esaten zion txatar
bat baizik etzala,
beti makurturikan
ikusten baitzala,
nornaik gañetik frutak
kendutzen zizkala,
ari gaztañak iñork
kentzen etzizkala.

Bizitokiya ere
leku sakonian
zeukala, lur, askotan
urtan egonian;
besterik zala berak
zeukana gañian,
basarri eder txuri
on baten oñian,
mendixkan, eguteran,
toki bikañian.

Ala beti egiñaz
burla eta parra,
penaz tristeturikan
zeukala sagarra,
gertaturik urakai
bat oso zakarra,
eta amildurikan
urakin malkarra
goiz bera joa izan
zan arbol zangarra.

Ez aundiya izatez
urgullurik izan,
non lur jo bailezaken
arbolaren gisan;
au ere uste berez
beste denen gain zan,
galaiagorik etzan
modukoa baitzan,
bañan amildurikan
lurra jo ta il zan.

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Iru auntz eta otsoa

(E. S. Dodgson jaunari berak emanikako euskal izkribu ederraren ordaintzan)

Ur eskiñatik auntzak
zerbait apartera
ikusirik otsoa
jaisten mendik beera,
eta gorde naiean
argandik igasi
erriotxo pasan
naian ziran asi;
bañan indar aundiya
eramanik urak,
izutu ta biurtu
ziraren irurak.
Andik alde egur me
bi eta lodi bat
billaturik, zeudenak
zubi orde anbat,
jarriyak egaztiyak
an pasa zitezen,
esan zuten: "Oetan
gu pasa gaitezen".

Eta irurak egur
lodi artan lasa
zitezkenak irrisku
gabetanik pasa,
izuz zoramenean
gorde nairik larri,
ziran egur banetan
iru auntzak jarri;
eta lodian zanak
pasarik ur ura,
mien gañetakoak
joan ziran putzura.
*Zernai gauzetara du
bat izubak jartzen,
eta ikarak ez du
lan onik ekartzen;
petxu pixka bat iñoiz
baldin bada artzen,
berak du galdu bear
zubena libratzen.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Bi zakurak

Bat ari zala bide
baten baztarrean,
ogi puska norbaitek
boteak jan da jan,
besteak joan ta zizkan
eskatu erdiyak,
esanaz aiek bear
zituztela biyak;
bañan lengoak nairik
beretzat guziyak,
esan zion —gezurrez—
bere nagusiyak
eman ziozkala ta
ala guziyak an
berak bakarrik bear
baitzitubela jan.
Artaz asarraturik
joan zana eskera,

eta indartsubena
izanikan bera,
ozkazo batez kendu
zion belarriya,
eta artaz sarturik
izuzko larriya,
belarriya ta ogi
puskak utzirikan,
zan belarri batekin
arrantzaz andik joan.
*Onek erakusten du
gogorragoakin
kontu aundiz ibiltzen
bear dala jakin;
opatzen ezpadiyo
zerbait dubenetik,
ark kendu leiokela
gaildorra gañetik.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Antxeta, olagarroa(1) eta igaraba

Antxeta ur gañean
loak arturikan,
ologarroak eldu
zion zankotikan,
eta txiliyoz zala
ari preso zana,
igarabak, lasterka
joanik beragana,
tiraka zuben kendu
andik baztarrera,
eta legorrera an
baitzuben atera.
Ikusi zubenean
ologarroa an,
antxetak itsatsiya
zeukala zankoan,
esan zion: “Zer dek or?
Zer darabilek ik?”
Zeñi erantzun zion:
“Darabiltana nik
da saiatzea oni
on egin naiean,
ikusirikan lotan
uraren gañean;
putre zarren bat ontaz
jabetu ez dedin,
zankotikan tiratzen
nion esna zedin”.

“Ez, jauna —esan zion
antxetak orduban—;
ni berekin urpera
sartu nai ninduban;
eta berriz ez dedin
kontu au gertatu,
bear luke txit estu
zatar tzar au artu”.
“Bai, kastigatuko det
faltatu dulako
—esan zion—, lan txar au
egin dubelako;
bañan zuk ere lo an
dezulako egin,
beste orrenbeste det
egingo zurekin”.
Eta biyak itorik
bertan segiruban,
biyakin otordu on
bi egin zituban.
*Tranpiyan dabillena
iñor galdu naian,
bera arki liteke
galdutzeko gaian;
bai ere zer gaitz egin
nai dion besteri,
gaitz bera leikioko
gertatu berari.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

(1) *Pulpo*. (R. Artolaren oarra)

Eskalubak eta txalburubak

Eskaluk txalbururi
egun batez ala
zien burlatzat esan
itsusik zirala;
zertan etziran joaten
beren ondotikan,
buru aunditzar aiek
zertako ziran an.
Zeren erantzun zien
itz ari txalburuk:
itsusik eta aundik
bazituzten buruk,
beren naiez sortubak
etzirala ala,
ezpada modu artan
gertatuk zirala;
eta eskaluk ere
zerbait etzutenak
etzirala izango
noski bertan denak.

Eta, ala zirala,
sare bat sorturik,
eta berak barrenen
guziyak arturik,
ateriak izandu
ziran urtatikan;
eta nola txalburuk
ez baitziran nai jan,
aiek bizirik denak
botarik urtara,
eskalubak paderan
joan ziran surtara.
*Eztituzte ederrak
portuna guziyak,
iñoiz baitituzte ta
ere itsusiyak;
gaur bat inbiriz bizi
bada bestearen,
bigar bestea gerta
liteke beraren.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Asto belarri bakarra

Asto baldarra arto
soroan sarturik,
ari zala jan ta jan
artaburu aundik,
soroaren jabeak
ikusirik artan,
kiñu bat egin zion
andikan zedin joan;
bañan ez ikusiya
egñik astoak,
jale ajolakabe
lasai tximosoak,
aurrera ere zion
segitzen lanari,
kasorik egin gabe
kiñu kontubari.
Berriz alderagora
jabea joanikan,
otsegin zion irten
zedilla andikan;
bañan astoak nola
ez nai baitzuben joan,
ezpada lan arretan
ari, artoa jan,
esan zion belarri
bat gorra zubela,
eta beste motzetik
aitzen etzubela;

eta ura aitzeaz
jabea suturik,
eta bertan egur bat
lodiya arturik,
presaz joan bertara ta
esan zion, gorra
bazan, ark alde joko
ziola tanborra,
aitzera emateko
aren artorikan
etzubela iñongo
astok an bear jan;
eta estakarekin
autsak ateratzen
asirik, bizkarrean
kostillak berotzen,
aitzen zubela bere
gañeko tanborra,
nai bañan nekezago
zan joan itzul gorra.
*Gorrikan txarrena da
gorreri gabia,
bada aitzeko askoz
da gorra obia;
ala nai dubenari
izan txantxaz gorra,
bizkar berean bear
zaio jo tanborra.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Artzaia eta otsoak

Maiz egiñik otsoak
beren pikardiyak,
artzaiari paltatzen
zitzaizkan ardiyak;
eta zekiyelako
lapurrak nor ziran,
eta zein baztarretan
ezkututzen ziran,
egun batean jaio
zitzaion burura
egitea pareta
batean pintura;
au zan, artalde dena
pintatutzea an,
iruriz otso zarrak
engañatu zitzan;
eta ain pintaturik
iruri iguala,
sinistu zitekena
artaldea zala;
lan on aren aurrean
jarririk lazoak,
joan zan andik, an eror
zitezen otsoak.
Denboraz ziran aruntz
bildu otso aundik,
non pinturara joan nai
izan baitzuten bik;
bañan irugarrenak,
maliziyak jorik,

esan zien: “Ez joan, ez;
ez eman pausorik;
lur artan jabe gabe
artalde guriya
arkitutzea ezta
izango egiya”.
Eta orduban zuben
laugarrenak esan
gauza bat nabaitutzen
zubela arrek an:
eguzkiya non zegon,
alde aruntz zala
ikusten artaldeak
zekarren itzala.
Eta artaz guziyak
jaikirik kontura,
engañuren bat izan
bear zula ura,
nai zituzkealarik
ardi guriyak jan,
burubak makurturik
ziran andikan joan.
*Onek erakusten du
nola duten begik
ikusten batek bañon
askoz geiago bik;
ala, balio duben
gauzen bat danean,
ongi begiratuta
asteko lanean.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Erbiñude ama-umeak

Arrautzak nabaiturik
zulotik aldean,
billa biyak joan ziran
gau illun batean;
bañan zeuden etxolak
tarte bat izanik,
eta kabitu ezin
zalako an amik,
umea zuben sartu
oso barrenera,
eta ark baitzituben
arrautzak atera,
andikan segiruban
zulora joanikan,
gau artan txit gustora
zituzten biyak jan;
eta ala, jakiñik
berrizko bidea,
eta irukirikan
abilidadea,
gabero ziran gero
asi lan arretan:
umeak lapurtu ta
zuloan biyak jan;
bañan, ala zirala,
gau batez arrautz bi
zitzaizkan tarte artan
lertu umeari;

eta alaz ta ere,
lertubak arturik,
lasterka ziran biyak
zulora joan andik.
Arrautzaren jabeak
lenaz nabaitutzen
zularik zitzaizkala
arrautzak faltatzen,
eta ezin zuelarik
atxitu lapurra,
zikin billaturikan
goiz arretan lurra,
eta segiturikan
an zeuden marketan,
topatu zuben zulo
pixtiyena bertan;
eta jarririk lazo
bat segiruban an,
eroriyak izandu
ziraren lazoan.
*Jarroagatik duna
izkuntzak esaten:
iturrira maiz baldin
bada eramaten,
autsi egiten dala,
eta da egiya;
gaizki dabillenenentzat
espillu garbiya.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Gizon portunosoia

Nekazari, zana maiz
ikusten kejatzen,
esanaz etziola
portunak laguntzen,
eta zeuzkala bere
baztar eder guzik,
alperkeriz moldatu
gabe oso utzik,
auzoko batek zion
erreguz itzegin,
esanaz nai zukela
zerbait an erein,
eta uzten bazion
lur pixka bat ari,
pagatuko ziola
errenta berari;
eta ontzat arturik
aren eskaera,
eman zion baztar bat
landu zezan bera.
Segiran asirikan
moldatutzen lurra,
ari zala gogorki
sartubaz aitzurra,
topatu zuben bertan
zegona gordea:
arruzki lusulla(1) bat
zillarrez betea;
eta an zebillela
ura etxeratzen,

bidean zitzaizkala
dirubak erortzen,
jendeak zer pasatu
zan an jakiñikan,
aitzurakin bertara
asko baitziran joan;
bañan lur guziyaren
jabeak segiran
esan zien, lanean
ari nai zunak an,
lenengo dukat bana
eman gabe ari,
etziola aitzurtzen
lagako iñori;
eta ala guziyak,
dukatak segiran
emanik, aitzurketan
gogoz asi ziran;
bañan non joko zuten
diruba aitzurrak,
ateratzen zituzten
lur petik ezurrak,
len an lurpetutako
animaliyenak;
eta ernagaturik
lan aretaz denak,
lur zekenduk zeudenak
arroturik oso,
jabe alperrarentzat
jarririk txit gozo,

aldendu zuten andik
protxu onik gabe,
gelditurik alperra
lur ta dirun jabe.
Diruba errez artu,
bestek egin lana,

lurra mamitsu jarri
ar zezan zer jana;
iñoiz portunak ala,
duben gisan fama,
baitaki saltatutzen
alakoengana.

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

(1) *Tinaja.* (R. Artolaren oarra)

Gizon ernegatuba

Gizonak nairik bere
biziz akabatu,
sokaz estuturikan
lepoa, urkatu,
arbol baten gañetik
saltatu baitzuben,
bañan bere nairikan
osatu etzuben;
arbola gertaturik
berez oso zarra,
saltatu zubenean
autsirik adarra,
bere arekin joan zan
purrungillan beera,
mendi egal batetik
erreka batera;
eta nola an irten
naian asiko zan,
bere buruba galdu
naiean asi zan;
bañan an gertaturik
artzai bat orduban,
ark nolabait urtatik
legorrera zuban.
Orduban esan zuben
negarrez gizonak:

“Eztira izan nere
ibillerak onak;
ni saiatu naiz nere
buruba galtzera,
bañan kontubak zuzen
etzaizkit atera;
eta au dala bide
lan oek utzirik,
eztet jarriko berriz
galgaian bizirik”.
Eta ontan mendiyen
zijoala gora,
arrimatu zitzaion
zezen bat ondora;
eta bere itzuli
goiturik mendiya,
bere puntatik zuben
beste alderdya
ikusi, mendiskarik
gabe oso berdin,
itsasoa iruri
zula urdin-urdin;
eta gorde nairikan
zezenarengandik,
saltatu zuben ustez
itsasora andik;

baña liño zelaia
izanik be ura,
eta ez arrek uste
zuben gisan ura,
salta zuben denboran
iges bide billa,
artu zuben kolpez an
izandu zan illa.

*Jaunaren beldurrean
bear degu bizi,
ez eskurik berari
artu naian asi;
geralarik "au nai det,
au ez" gu ibiltzen,
Jaunak nai duben arte
ezta iñor iltzen.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Gizon txarrak eta zakur ona

Lagun batek bestea
engañuz lapurtu,
eta itzul bidea
zubenean artu,
arkiturik ol zar bat
pasatzeko ura,
ol zarra autsita zan
erori putzura;
eta iya itoan
urak zeramala,
ikusirik ur zakur
batek ura ala,
salta ta arturikan
bere gerrikotik,
biziyarekin zuben
atera uretik.
Segiruban gizonak,
erropa bustiyak
legortzeko, kendurik
soñetik guztiyak,

diru ta guzi para
zituben sasiyan,
eta bera gorde zan
lar aren azpiyan.
An kurkuxturik larru
gorriyan zegoala,
iñork ikusitzeaz
lotsatutzen zala,
gertaturik gizon txar
bat garai artan an,
zizkan ditu ta guzi
erropak eraman.
*Nork zer gaitz modu dion
egiten besteri,
maiz gertatuko zaio
gaitz bera berari;
au da, nola maiz esan
oi dana: "Mari Juan,
gure fortuna nola
etorri ala juañ".*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Arbola baten adar bi

Bat zan oso zuta ta
bestea makurra,
au zan egoten zana
iya jua lurra;
anai lerdanak burlaz
maiz zion esaten,
ia zer bular zion
amari eraten,
batengandik jaiok
izanikan biyak,
ala irukitzeko
ark beti gerriyak;
lurretikan arra bi
goititzen etzala,
ia pentsatzen zuben
bizitzea ala;
bere ingurutako
denen parragarri,
gauza bapoa zala
mundura etorri;
eta makur tristeak
entzuteaz ala,
negar egiten zuben
lotsatutzen zala.
Ontan emanik oso
aboztu aundiyak,

sagarrez bete ziran
kolkorañon biyak;
eta oek azitzen
zijoazen gisan,
makurra makurrago
egiten asi zan:
eta sarri jorikan
puntarekin lurra,
autsi gabe gelditu
zan bertan egurra.
Beste adarra ere
nola bete baitzan,
karga geiegirekin
okertzen asi zan;
eta alako batez
autsirik ondolik,
kolpez joan zan lurrera
arbola gañetik.
Orduban esan zuben
lurrean etzanak:
“Penatutzen ninduten
len orren esanak,
bere inbiriz beti
bizitzen bainintzan,
bañan gaur naiago det
naizen gisan izan;

biyok lurrean gaude,
ori dago illa,
eta ni jaikiko naiz
frutu berri billa".
*Txikiya aundiyaren
inbiriz bizitzen*

*da bian, aundi ura
dagoanean goien;
erortzean bekoak
min gutxi du artzen,
eta goikoa bea
jotzeaz da lertzen.*

Euskal-Erria, XXVIII, 1893.

Otsoaren ametsak

Otsoak egin zuben
amets txit gozoa:
artzaia illik, bere
artalde osoa
gelditu zala jabe
gabe agerian,
nornai jabetu zedin
moduban mendian;
eta arrimaturik
artaldeagana,
esan zuben: “Badaukat
ementxen zer jana.
Lenengo ariyari
nai diot eraso,
au jan biet ezur da
mami dena oso;
bañan ez; onen zanko
ta adar aundiyak
ez ditu iritsiko
nere eztarriyak;
obeko det lenengo
ito nik ardiya;
bañan ez; zertan egin
biet pikardiya?
Egun gutxi barru du
umea egingo,

eta orduban puska
biyak ditut jango;
bildostxo bat jan zadan
guri bikañena,
au da ona, bai, auxen
jan biet aurrena;
bañan ez, ez, beste au
guriyago dago,
emen dan ontxoena
bildotx au baitago”.
Eta ura esatez
itsatsirik ortzak,
atera zizkan ustez
zintzurreko otzak;
bañan esnaturikan
kolpe egin artan,
non arkituko zuben
bildotxa ortzetan,
billatu zubena zan
arbolaren puska,
zeren ari erantsi
baitzion ta ozka;
eta ura ikustez
oso penaturik,
esan zuben: “Ai! Eztu
bestek kulpik, det nik;

egin naizen denboran
ariyaren jabe,
adarrakgatik utzi
detala jan gabe;
eta orain baneuka
naiz igual zezena,
bere adar da guzi
jango nuke dena”.

*Gure artean ere
gertatzen da bera,
daukagunean gauza
guzitik aukera;
“Au nai det, au ez tet nai”
ibiltzen baikera,
eta gero ainbestez
jabetzen ez gera.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Olloak eta azariya

Olloak lo zeudela
ganbara batean,
zeñen zuben etxeak
matsa paretean,
azariya mats artan
igorikan gora,
arrimatu zan leio
zar ganbarakora;
eta sartu naiean
zebillela andik,
bidaditurik ollo
gazte bat barrendik,
kakaraka asi zan
esnatzen lagunak,
esanaz: "Jaiki jaiki,
nere lagun onak;
leioan norbait dabil,
jaiki ai, au lana,
pizti gaiztoaren bat da
leioan dagoana".
Ontan sallarik denak
txit izuturikan,
ala zebiltzala an
denak zalapartan,
batek otsegin zuben;
"Ez mugitu iñor,

gezurra da piztirik
dala leioan or;
aizeak mugitu ta
egin du soñuba,
eta ori zan dena
jartzeko izuba".
"Bai, ala da, bai —zuben.
beste batek esan—;
aizearen kontuba
besterikan etzan".
Eta besteak, presaz
zulotik irtenik,
esan zuben: "Jende au
zer dan eztakit nik,
modu ontan muturrak
aurten ibiltzeko;
ondo beldur zerate
beñipin iltzeko;
onak zaute ni jardun
nintzan bezela bein,
izketan egoteko
gabirabarekin".
"Zer gauza oril! —zion
beste batek esan—;
nerekin pasa zana
gogorragoa zan:

erbi-iñudeakin
bein topoz egiñik,
izututa aurrean
eraman nuben nik”.
“Zer gauza ori ere!
—lagunak segiran
esan zion—; zer gauzak
denak ere diran!
Datozela nigana
azari zar denak,
ez naute izutuko
ni mutur berenak”.
Eta ura esatez
etzula bukatu,
berriz zuben piztiyak
leioa bulkatu,
eta muturra pasa
aren zulotikan;

eta zuten denboran
ikusi ura an,
izuz ezin zutela
billatu non sartu,
igesbide berriyak
baizituzten artu,
nolapait irtenikan
tellatu gañera,
ill edo bizi andik
salta zuten bera.
Beldurrik ez danean,
olloaren gisan,
balienteak asko
oi gerare izan;
bañan estutaldirik
bada gertatutzen,
orduban beste moduz
baikera portatzen.

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Igelak eta arbola ostoak

Igelak ur ertzean
eguzkitan lasa
ari zutela beren
kantuko jolasa,
kolpez sarturik aize
bolara aundiya,
altxatu zuben arbol
ostozko mendiya.
Igelak osto aiek
ikusteaz ala,
aidean egaztiyak
iruri zutela,
eta jaisten zitzaizten
ustean gañera,
denak saltatu zuten
buruz be urera.
Mugitzeko beldurrez
zeudela gordean,
ustez zeuzkatelako
etsaiak gañean,
bat asi zan esaten
atiak zirala,
edo txikiyagoko
gauzak etzirala;
besteak esan zuben
zirala antzarak,
egari lepo luze
aundik oso zarrak.

Eta, artan zirala,
arriskaturik bat,
irten zan ikustera
zer ziran ta zenbat,
eta otsegin zuben:
“Ezta egaztirik,
putzu ontan ez gaude
igelak besterik;
ur gañeko gauz oek
egaztik eztira,
arbolaren ostoak
orbelak baitira”.
Eta ura aitzeaz
ur pean zeudenak,
zalapartan gañera
irtenikan denak,
jardun zuten esaten
txantxetan zirala
egon izu papera
egiten an ala.
*Izuba dan denboran,
begitatik sartzen
ez diran gauzak dira
begiyetan jartzen;
eta beste itxura
badu gauzak artzen,
orduban ezta iñor
izuti gertatzen.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Bi tximu eta astoa

Animali batzubek
ausardi aundiyen
beste batzuben kontra
gerrara mendiyen
zijoazela, tximu
bi atzen ziranak,
balore aundikoak
nonbait etziranak,
gorde naiean ziran
bazarretan asi,
zulorik zulo eta
sasirikan sasi;
eta asto zar batek
txabolan zegoanak,
zulotik ikusirik
tximu aien lanak,
buruba atera ta
asi zan burlatzen,
gorde naian zebiltzan
biyak toriatzen.
Ontan beretako bat
ezkutaturik an,
gordeka astoaren
ondorañon zan joan;
eta garai berean
beste tximu txarrak,
eragiñazi nairik
astoari parrak,

asi zan jostaketan
engañatu zezan,
jirabueltak emanaz
saltoka ta dantzan;
eta ala astoa
txoraturik errez,
zeukala irrintzika
ito naian parrez,
lagunak astoari
saltarik ertzetik,
eldu zion gogorki
sudur mintzetatik;
eta ala loturik
arkitutzen zala,
beste tximuba aruntz
joanik beriala,
lukainkari atera
zizkan belarriyak,
eta dantzan joan ziran
belarrikin biyak.
*Onek erakusten du
burla eta parra
egiteko etzala
sortu asto zarra;
bi ankekoak ere
azkarrakin ala
uste gabean gerta
bailitezkeala.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Zakurra eta ganadu estea

Estea tiñakuban
uraren ertzean
egonik, eta zakur
bat gertaturik an,
esan zuben: “Ementxen
badaukat zer jana,
ai zer gozoro egin
bear detan lana!
Bañan ez —esan zuben—.
ez det bear, ez, jan,
lenbailen zurrutaka
ezkuta dezadan;
bestela bazkatubaz
nik jaterako au,
igual jabeak jaten
arrapatuko nau”.
Eta ala osorik
ari zala jaten,
etzubela agiñez
esterik eteten,

*sazt sarturik andre bat
linai zar batekin,
kolpeka zion zakur
jaleari ekin,
esteari puntatik
eldutzen ziola;
eta zakurra itzul
asirikan ala,
zenbat geiago zuben
korritzen argandik,
ala este dena joan
zitzaion abotik.
Bazkatu izan balu
naiz guziya ez jan,
bazkatu ura gero
izango zuben an;
bañan da au gurekin
gertatu oi dana:
guziya nai dubena
galtzen dula dena.*

Astoa eta artza

Bizkarrean kaja bat
zubela, penoso
zijoala astoa
nekaturik oso,
artza aterarikan
bidera mendijan,
para zuben biziro
estura aundijan.
Esan zion: "Astoa,
zenbat urte dituk?"
Zeñen erantzun zion:
"Amalau kunplituk".
"Zer daramak gañean,
kaja orretan, zer?"
Neretzako jankairik
ez al dek or ezer?"
"Bai, jauna; dago urdai
guri txit gozoa,
or da barrenen iya
txerri bat osoa".
"Obea dek ori dan,
besta gauzik ez dan
—esan zion—; bestela
i jango indutan".
Eta biyen artean
jatxirikan kaja,

astoari joan zedin
libre zion laja.
Gero kaja mendean
zubenean artu,
gogor ziozkan bere
azkazalak sartu,
esanaz: "Ai zer poza
zaidan gaur azaldu!
Urdai preskoarekin
bear det gosaldu".
Bañan non urdai ona
billatuko zuben,
jan etzezaken gauza
arkitu baitzuben,
o zer penazko miña,
o zer naigabea,
urdaiaren tokiyan
kajan zan urrea,
zeñetan esan zuben
emanaz zispiruk:
"Arri kozkorak dira
neretzako diruk;
gizonak zori ontzat
artuko zubena,
izandu da neretzat
piztugarri pena;

orain arkitutzen nai
urdairikan gabe,
ojala egin banitz
astoaren jabe".
*Onek azaltzen digu
baliozko zerbait:*

*gauza bada, nolanai
ez uzteko al bait;
segurutu artean
ustez dana ona,
ez lajatzeko lenaz
eskuban dagona.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Pluma eta tinta

Errege batek pluma
zubenean artu,
eta tinta ontzian
bustitzeko sartu,
urgulloz beterikan
plumak zuben esan:
“Nik bear det errege
emen sarri izan;
jaun onek izena du
parako nerekin,
eta nola dan joango
firma berarekin,
nonai gertatuko naiz
errespetatuba,
erregetzat nazio
denetan artuba”.
“Eztu orrek balio
—esan zion tintak—;
geiago balioko
baitu nere pintak;
zu gordeko zera ta
ni naiz ikusiko,

munduban diraun arte
bainaiz ni biziko”.
Eta ontan errege
paper baten billa
zebillela, aurrean
irukirik milla,
tinta ontziya bera
ukalondoiz jota,
zuben paper gañera
tinta dena bota;
eta lan ura ala
zunean ikusi,
errabiz maia jota
pluma zuben autsi.
*Askotan da gurekin
au bera gertatzen,
kartakin gaztelubak
ditugula jartzen;
eta aize pixkatxo
bat bada etortzen,
gaztelu kartazkoak
dirala erortzen.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Astoak

Bi astok, maiz goseak
egon oi ziranak,
Jupiterri azaltzen
ziozkaten penak,
esanaz goseak maiz
egoten zirala,
eta txit bizi txarra
zeukatela ala;
eta gerta zeikien
gose gutxiago,
biral zitzala aruntz
asto bi geiago;
ala gose len birek
izaten zutena,

lau astoren artean
partitzera dena,
bakoitza gutxigokin
arkituko zala,
edo len ainbat gose
izango etzala.
*Jasogarriyak dira
asto aren itzak,
tontoaren jolasak
beti moldakaitzak;
zuzen gairik ez utzi
albait tontoentzat,
etziran konpiteak
egin astoentzat.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Astoa eta txerriya

Zaku bi zitubela
alde banatara,
zijoala astoa
txit goiz errotara,
txerriyak esan zion:
“Karga geitxorekin
ua errotara ta
biyok alkarrekin
konpon gindezkek, ik nai
izatera ala,
nik karga arinduko
nikek beriala;
uzten banauk egiten
ozka zakubari,
pur pur pur irtengo dek
alia ugari;
eta arindurikan
ire bizkar gaña,
nik jango diat ale
gozotik nai aña;
gero ik esateaz,
ontzat dedin artu,
zaku ustela bere
gisa dala lertu,
eztitek kastigurik
emango errotan,

eta ongi irtengo
gaituk biyok ontan”.
Astoak ez arturik
txarrera esana,
esan zion: “Egin zak
bada nai dekana”.
Eta zulaturikan
zakuba segiran,
denbora gutxiyan txit
ustu zan dena an.
Txerriya asirikan
presaz bertan jaten,
astoa ere asi
zan aurrera joaten;
bañan, ai!, zubenekoz
pauso lena eman,
beste zakuba tripa-
pera zitzaion joan;
eta ain gertaturik
gaizki ta nekoso,
bear bezela eman
ezin zula pauso,
txerriyari laguntza
eskatzen asi zan;
bañan nola txerriya
gozoro ari zan,

esan zion belarri
bat gorra zeukala,
eta bestetik ezer
aitzen etzubela;
eta artan astoak
bere bideari
erasorik, or altxa
ta emen erori,
nolabait errotara
zanean iritxi,
zioten karga ura
segiran eratxi;
bañan ezaguturik
zuben pekatuba,

etzala bere gisa
zakuba lertuba,
izan zan abe bati
segiran lotuba,
eta saiets ezurak
ongi berotuba.
*Tranpaz nai bazituben
nekeak arindu,
bere saiets ezurak
ziozkaten mindu;
aundik izanik neke
munduban daudenak,
nork berak pasa bear
daukaizkien penak.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Sagubak eta katuba

Tranpa alanbrezkoan
sarturik bi sagu,
alkarri esan zien:
“Ongi gera gaur gu;
emen bada zer jana,
bada naiko gazta,
au dan arte galduko
ezta gure kasta”.
Eta gozoro jaten
ziranean asi,
berak zirala tranpa
barrenen nagusi,
iruriturik zerbait
oin soñu an alde,
ikaraz asi ziran
egin naian alde;
bañan nola etzuten
aterik billatzen,
ibilli arren tranpa
guziya miratzen,
kanpora irteteko,
gordetzeko andik,
zebizkitela ala
estutasun aundik,
gertaturik sagu bat
garai arretan an,

esan zien zer zuten
ala zalapartan:
naiko gazta aurrean
irukirik ala,
nai ezik utzirikan
dantzan zebiltzala;
ura bazegoken an
aiek zeuden gaien,
etzutela utziko
gaztarikan maian.
“Ai! —esan zien—, emen
arkitzen baziña,
gazta irurituko
litzaizuke miña”.
“Ez; nik, or banengoke,
pozik nuke jango,
ez nintzake itzuli
izututa joango”.
Eta artan katubak
egiñik *mirri mau*,
sagubak saltatuta
esan zuben: “Zer dau?”
Eta asi zanean
gorde naian andik,
besteak deitu zien
tranparen barrendik,

esanaz: "Atoz onuntz,
ez izututa joan".
"Ez —esan zion—, ez tet
nai gaztarikan jan".
Eta artan katuba
ate zulo tikan
pasarik, atzeman ta
saguba zuben jan.

*Onek erakusten du
panparroi askori
gerta deikiokena
dala kontu ori;
ez burlik egiteko
albada iñori,
burla berian bera
ez dedin erori.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Igaraba eta azari zarra

Errioko uretik
ez txit apartean,
zegoala igaraba
arroka batean,
azariya an bertan
allegaturikan,
esan zion ia zer
egiten zuben an;
eta ikaraturik
igaraba oso,
ark bertan ito zezan
ta jan gozo-gozo,
esan zion errioz
beste alderdira
zegoala ango ollo
pillari begira;
ain zirala guriyak
eta ain aundi yak,
begira gozozturik
zeuzkala begiyak.
“Non dituk bada ire
ollo eder aundik?
—esan zion—. Ez dek bat
ageri emendik”.
“Ez, zergatik oraintxen
eman duten jira;
ara: sasi zar aren
baztarrean dira;
nai bazenduke pasa
aruntza urean,

eramango zinduzket
nere bizkarrean”.
Eta azari zarrak,
artaz pozturikan,
eta olloetara
sarri joan nairikan,
esan zion: “Ar nazak
bada bizkarrean,
eta pasatu nazak
azkartxo urean”.
Eta ala segiran
asirik pasatzen,
eta gañak gutxina
zunean pentsatzen,
azpikoa sarturik
kolpez ur azpira,
azariya txirris zan
joan osin aundira;
eta azpiyan zana
irtenikan parrez,
azariya itoa
izan zan txit errez.
*Azariya azkarra
izan arren berez,
eskasagoak zuben
engañatu errez;
begiyetan pararik
olozko zer jana,
aztu erain baitzion
zerabillen lana.*

Euskal-Erria, XXIX, 1893.

Jueza eta euliya

(Nere anaia Frantzisko euskal izkribalariari)

Jueza bere silla
aundiyan eseri
eta sententziya bat
firmatutzen ari
zala, zitzaion euli
bat joan ezpañera,
eta kiñara batez
baitzuben atera.
Segiran euli bera,
lasa edo larri,
andik joan ta zitzaion
belarriyan jarri;
eta berriz kiñara
aruntz egiñikan,
berriro kendu zuben
euliya andikan.
Gero jarri zitzaion
sudurraren puntan,
eta suak arturik
nabaitutzeaz an,
ezkerrez zion tira
kolpea berari;
bañan nola emango
zion euliyari,
jo zuben sudurra ta,
mazpildurik bera,

odola joan zitzaion
alkandoran beera.
Ala arkitzen zala
oso ernegatzen,
eta tinta ontziyan
pluma berriz sartzen
asi zanean, euli
lena joanik egan,
jarri zitzaion ontzi
beraren gañean;
eta berriz tirarik
kolpe bat aundiya,
jota irauli zuben
tintaren ontziya;
eta paper zeukana
bezturik guziya,
gelditu zan firmatu
gabe sententziya.
Ikusten dan bezela,
euli bat da aski
gizonik pizkorrena
paratzeko gaizki;
ala zernai uskeriz
alditan gizona
zakartzen da jenioz,
naiz izan txit ona.

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Aitzurra eta pala

Illik gizon bat, diru
askoren jabea,
aitzurak jakin zuben
non zeukan gordea;
eta pentsatu zuben
gaur artan joanikan
ateratzea diru
ura lurpetikan.
Poza gorde eziñik
arkitutzen zala,
billaturik bidean
bere lagun pala,
oni zion gordetitz(1)
berrea agertu,
mingaña poz geiegik
ziolako lertu,
esanaz lurpetuba
nola diru pilla
arkitutzen zan eta
diru arren billa
irtengo zala gabaz
oso illun zala,
iñor beraren lanaz
oartzen etzala;
eta ala gau artan
irten zan aitzurra,

bere zakubarekin
zulatzera lurra.
Bañan palak atzetik,
oin soñu aundirik
egin gabe, beraren
pausoak zaindurik,
biyak iritxi ziran
leku bearrera,
aitzurak ikusitzen
etzubela bera;
eta asi zanean
aitzurra zulatzen,
gordean zegon diru
ura gañeratzen,
kolpeka lurpetikan
gaindutzen zubena,
palak bere zakuban
sartzen zuben dena;
eta ala zakuba
bete zubenean,
aitzurra utzirikan
jo ta jo lanean,
ongi baliaturik
aitzuraren lanaz,
aldendu zuben andik
“tontoa” esanaz.

Pozez bat senti bada
zerbaiten gañean,
pozak kanpanak jartzen
ditu mingañean;

bada balio duben
gauzen bat danean,
aliek gutxina jarri
mingaña lanean.

Euskal-Erria, XXX, 1894.

(1) *Secreto.* (:R. Artolaren oarra)

Zakurra eta basurdea

Mendiyan zakur zar bat
letagiñak joana,
bañan bere denboran
pizkorra izana,
ari zala ganadu
zanko bat jan ta jan,
basurdea zitzaion
aldamenera joan,
esanaz utzitzeko
ezurra arentzat;
bañan zakurrak ura
ez arturik ontzat,
zeren igarri zuben
tranposo bat zala,
eta arekin ondo
irtengo etzala,
esan zion len artan
bertan zala ari,
ezurra osorikan
kentzen mamiyari,
eta piska batean
andik joan zedilla;
gero noiznai jiratzen
zan denboran billa,
an arkituko zula
eskatu ziona:
ezur zuri, zanko tzar
aundiyan egona.

Bañan nola bestea
etzan artara joan,
ezpada mami puskak
nai zitulako jan,
salta ta abotikan
kendu zion dena;
eta zakurrak ura
zubelarik pena,
indarrez nola etzan
basurdearen din,
makurtu ta etzion
kasorikan egin,
zeren zekiyen, jartzen
bazan okerrera,
gaizki bear zubela
argandik atera;
eta ala bestea
puska aren jabe
egiñik, gelditu zan
zakurra jan gabe.
*Basurdeak menditan
bakarrik eztira,
gure artean ere
batzubek baitira,
arrazoari pitsik
egin gabe kaso,
umillatzen dutenak
mendekoa oso.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Egurkiña eta astoa

Arbolaren gañean
gogor adarrari
zala aizkorazoka
egurkiña ari,
bera adar gañean
punta aldetikan
zala, eta pikatzen
ondoragotikan;
gertaturik asto bat
kargatuba oso
iristea aruntza
biziro penoso,
onek egurkiñari
esan zion ala;
ura pasa artean
itxogon zezala,
kolpe berririk eman
gabe adarrari,
aren bizkar gañera
etzedin erori;

bada len ere naiko
karga baitzubela,
eta ark zanpatzerik
naiko etzubela.
Bañan ura tontoak
nola esan zion,
gizonak arretikan
paratu etzion;
eta ezkutatu zan
bañan len astoa,
izandu zan adar ta
guzi bea joa.
*Egiya da azkarrak
dirala argiyak,
bañan tontoari ez
itxi belarriyak;
askotan tontokeriz
esanik egiyak,
berak zabalerazten
dituzte begiyak.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Fortuna gordea

Gizon zartxo bat zala
gertatzen mendijan,
elurrak emanikan
eraso aundiyan,
pasa bide guziyak
itxirikan oso,
gaixoa gelditu zan
elurretan preso;
eta ikusirikan
irtengo etzala,
edo an otzak illa
geldituko zala,
eskubetan zeraman
makiltxoarekin
elur gañean zuben
izkribu bat egin,
irakurritzen zana
nola elurretan
zijoan iltzera ta,
pizti gaiztoak jan
etzezaten, lenengo
gertatzen zanak an
lurperatau zezala
leku artan bertan;
eta ura egite
truk bere fortuna

egillearentzako
uzten zula dena;
gordea onelako
lekutan zeukala,
eta lurperatzean
joan ta ar zezala.
Bañan ura billatu
zubenak an illa,
non lurperatu ta zan
joango diru billa,
obiratze kontuak
oso azturikan,
diru billa saltoka
joan zan pozturikan;
bañan ibilkera bat
egin zubenearan,
azturik siñaleak
diruba non zegoan,
eta ezin billatuz
fortuna gordea,
ibilli ondorean
jo goia, jo bea,
oso nekaturikan
zan ostera jira
señak irakurtzera
lengoko tokira;

bañan,ai!, ordurakoz
urturik elurak,
ez baitzion azaldu
izkriburik lurak.
*Modu berean asko
engañatzen gera,*

*dirubaz beste gauzaz
oroitzen ez gera;
eta, au dala bide,
askotan, atiak
itxirikan, gertatzen
zaizkigu kaltiak.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Otsoa eta zakurra

Ardi larruz apainki
jantzirik otsoa,
sartzen zan artaldera
tripazai paltsoa;
eta ardi papera
egiñaz ondo an,
ibillirik egunaz
ardiyen ondoan,
illunabartutzean
bartzartutzen zana
itotzen zuben, gero
jan baizezan dana.
Artaz ernegatutzen
zeudela artzaia
eta bere zakur on
ardi aien zaia,
ikusirik ardiyak
zirala faltatzen,
eta etzalako an
lapurrik azaltzen,
egun batez zakurrak
izan zuben era
zerbait nabaitzekoa
illuntze aldera.
Ikusi zuben ardi
batek bestea an

nola zuben tiraka
zokora eraman;
ta errezero txar bat
artaz egiñikan,
gau guziyan etzuben
itxi begirikan.
Bigaramon goizean,
ardi larruz bera
ongi estalirikan,
joan zan artaldera;
eta illuntzeaz bat
txokoz txoko asi
zan, pizti txarrik bazan
an zezan ikusi;
eta ala, otsoa
sarri beragana
joan zan, zeukan ustean
seguru zer jana;
bañan ezagaturik
zakurrak otsoa,
esan zion: "Aizak, i,
zatar tranposoa,
ardiyaren jantziya
iruki arren nik,
etzakala sinistu
ardiya naizenik".

Eta kolpe biz bere
jantziya atera
eta errabiz zion
saltatu gañera;
otsoak ere, artaz
beroturik oso,
zion zintzurra autsi
naiean eraso;
bañan zakurrak nola
zeukan lepandea,
edo kollare burni
zorrotzez betea,
otsoak egin arren
bere alegiñak,
sartzeko zakurrari
gogor letagiñak,
au ezin iritxirik
zan artean ari,

zakurrak lotu zizkan
agiñak berari.
Eta artzaiak biyak
ikusirik ala,
eta makillarekin
joanik beriala,
otsoa makilpean
izandu zan illa,
etzedin berriro joan
beste ardi billa.
*Naiz izan bat indarrez
ta buruz azkarra,
baldin da badarama
bizitza kaskarra,
bukaera onikan
ez du ikusiko,
usterik gutxinean
da oso galduko.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Erbiyak, konejubak eta beste piztiyak

Erbiyakin konejuk
pozgira aundiyan
zebiltzala eztaiak
ospatzen mendiyen,
txoko batetik esan
zuben akuriyak:
“Jaunak, mugiera bat
egin du mendiyak”.
Eta izuturikan
itz arretaz denak,
utzi zituzten beren
josta festa lenak;
segiruban erbi bat
goitikan jatxirik
miratzera lur biak
ote zan mugirik,
eta billaturikan
satorra zuloan,
esan zion ia zer
lan ari zuben an;
zertan zan modu artan
zulaketan ari,
zimendubak urratzen
mendi aundiari;
arrek ginbeletatu
ziolako oña,

zala mugitu mendi
aundi aren gaña;
eta izuz igorik
segiruban gora,
otsegin zuben: “Jaunak,
orain da denbora;
goazen aguro, goazen,
ezkuta gaitezen,
mendiyaren azpiyan
lertu ez gaitezen;
itzuli emendikan
gaitean abiya,
erortzera dijoa
segiran mendiya”.
Eta ura aitzeaz,
pelotaren gisan
kuskurturik, trikuba
amilka asi zan;
eta tximu arbolan
dantzan zebillena
ere, eroririkan,
kolpatu zan dena;
non esan zuben berriz
orduban erbiyak:
“Bai; nik esanak dira
irtengo egiyak;

ara non asi diran
arriyak amiltzen,
ara arbol aundiyak
oñetik mugitzen".
Eta izuz asirik
besteakin bera
jaisten zilipurdika
mendi ortan beera,
eta arkiturikan
be orretan ura,
itxumenean zuten
saltatu putzura.
Bigaramon goizean,
egunak argiya
eman zuben denboran,
zutikan mendiya
ikusirik, bizirik
gelditu ziranak

joan ziran miratzera
satorraren lanak;
eta non billatuko
zuten lur aulduba,
mendiya zimendu
osoa galduba,
arkitu zuten lasai,
patxara osoan,
satorra zurrungaka
lo bere zuloan.
*Onek erakusten du
bide aundi gabe
egin oi gerala maiz
ikararen jabe;
ez sinisteko kolpez
entzuten dan dena,
begiramen pixka bat
jartzeko aurrena.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Konejuba eta erbiñudea

Zelaian konejuba
belar ona janaz
zebillela gozoro
saltoak emanaz,
ikusi zuben erbi-
ñude zar bat an,
gordean beragana
zegoala zalantzan;
eta izuturikan
an ikustez ura,
igesbide bat jaio
zitzaion burura:
bat-batez salto aundi
bat egin baitzuben,
eta salto arekin;
oiuz esan zuben:
“Ai, galdu naiz, eiztarik
aparte ez dira,
ona beren zakurrak,
ona emen dira;

galduba naiz, ai sarri
naute atxituko,
eta ezur ta mami
bertan txikituko”.
Eta besteak ura
ikustez ala,
sinisturik zakurrak
gañean zirala,
zokotikan irten da
asirik igasi,
etzuten biyak alkar
geiago ikusi.
*Onek erakusten du,
bat estu danean,
zentzuba para bear
dubela lanean;
burubak baitubela
gorputza salbatzen,
buruz ez dabillena
laster dala galtzen.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Astoa eta otsoa

Mendi egal batean
nai ain pentsu janta
zebillela astoa
lurrean etzanta,
eta amildurikan
mendi artan beera,
joan zan jira-bueltaka
zingira batera;
eta an gerriraño
loitan sarturikan,
arkitzen zala irten
nai ta eziñikan,
arrantzaka asi zan
laguntzaren billa,
etzedin gelditu an
preso loitan illa;
eta tronpetazoak
aiturik otsoak,
bere artean esan
zuben tranposoak:
“Astokume gurin bat
dago or negarrez,
eta ia detan nik
atzitutzen parrez”.
Eta ala joanikan
bertara segiran,

esan zion ia zer
egiten zuben an;
zeñen erantzun zion
ongi etzegoala,
eta ala mañuba
artzen baitzegoala.
“Nik sendatuko dizut
zuk daukazun miña
—esan zion otsoak—,
ni naiz sendagiña”.(1)
Eta ura esatez
bat arrimatutzen
asirik, ito zezan,
aurreratxo sartzen,
etzubelako ongi
oin bidea neurtu,
golpez zan bera loitan
leporañon sartu;
eta orduban zion
esan astoari
deitzeko tronpetazoz
bere lagunari,
aruntz bildu zitezen
aiek salbatzera,
estutasun artatik
zitzaten atera.

Eta astoak zion esan
segiruban
beste gauzikan pasa
zubela buruban:
non otsegingo zion
bere lagunari,
deitzen asiko zala
artzai jendeari.
Eta ala arrantzaz
zenbait tronpetazo
emanik, zuben zer zan
an adierazo;
eta artzaiak aruntz
makillak arturik

joanik, eta asto on
ura libratu-rik,
non estu zan otsoa
salbatuko zuten,
arrika ta makilka
bertan il baitzuten.
*Intentzio txarretan
dubenak jokatzen,
maiz baitu uste gabe
estropozo jotzen;
lan txar asko egiñak,
estueran gero,
ez bailezake gauza
onikan espero.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

(1) *Médico*. (R. Artolaren oarra)

Gaztañak eta intxaurrak

Gaztañak beren morkots
ta guzi saskiyan
arkitutzen zirala
tellatu azpiyan,
eta intxaur ondubak
egonik an alde,
oek burla moduban
egin zien galde:
zertarako zituzten
gerrik ez ta lantzak,
zertarako gañean
zeuzkaten arantzak;
aboan sartutzeko
latzegik zirala,
eskubak zulatzeko
baizik etzirala;
eta gaztañak zien
erantzun itz ari,
esanaz berriketan
zertan ziran ari;

berak sokoten pean
bizituk etziran,
ia denbora artan
ain onduk al ziran,
ortzak sartzen aboa
zutenean mintzen,
eta tintura txarrez
eskubak zikintzen;
eta intxaurrak artaz
jaikirik kontura,
etzuten nai berritu
izan kontu ura.
*Espillu ontan zentzuz
begira dezagun,
geren burubak ongi
ikusi ditzagun;
gaztien biurreraz
aserretzen gera,
eta geok obeak
izanak al gera?*

Gizon galgirotia(1)

Gizonak emanikan
arras jokubari,
eta beste bear ez
ziran kontubari,
lenaz zana zorion
aundiyaren jabe,
galduta gelditu zan
ezer ere gabe;
eta aurrera zala
lotsatzen erriyan,
lenaz ala oituba,
miseri gorriyan,
egun batez mendira
joan zan itzul andik,
lotsaz gorde naiean
mundubarengandik:
eta baso mortoan
zijoala penaz,
begietatik malko
lodiyak emanaz,
arbol zillarrezko bat
billatu zuben an,
ostoz ornituba ta
zegoana loretan;
eta egonik gauza
on ari begira,

bestetara begirik
ezin zula jira,
esan zuben: "Arbola
bota ta segiran
eramanik errira
milloiak dauzkat an;
bañan ez —esan zuben—,
eztet bear bota
frutuba eman arte,
loretan dago ta".
Eta itsatsirikan
lore eder denak,
urrezko gingak ziran
eman zitubenak.
Orduban arbolari
laja bota gabe,
eta egiñik ginga
eder aien jabe,
pozez bere aiekin
jetxi zan errira,
bañan zori gaiztoan
baitzan aruntz jira;
lengo bizierari
emanik segiran,
gingaren balioa
sarri baitzuben jan.

Iñork etzeion egin
burla eta farra,
berriro izan zuben
mendira bearra;
eta joanera artan
ere arbola an
billatu zuben, bañan
nola neguba zan,
arkitu zuben soilla
lorerikan gabe;
eta udan zeikena
egin gingen jabe,
ez itxogotiarren
berriz udarari,
aizkorazoak zizkan
eman arbolari;
eta ala botarik
bere arbol ona,

berriro aberastu
zan oso gizona;
bañan lengo lepotik
izanik buruba,
ezkutatu zitzaion
arbol eder ura,
eta ala zeikena
urtero dirutu,
gelditu zan ez diru,
ez arbol, ez frutu.
*Onek erakusten du
galgiroak artzen
ditubena baitala
modu artan jartzen;
naigoko ditula ark,
urtean amabi
bañan, beretzat izan
egun berean bi.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

(1) *Vicioso*. (R. Artolaren oarra)

Astoa, txerriya eta beren jabea

Gizonak astoa ta
txerriya sal zitzan,
goiz batez feriyara
biyakin asi zan;
eta maiz txerriyari
boteaz alea,
zeramala geldika
tripazai jalea,
akabaturik bidez
erdiyan zer janak,
zestotxoan zituben
arto ale danak,
txerriya joan nai ezik
zitzaion gelditu,
etzubela nai ankik
aurrera mugitu,
esanaz ezpazion
ematen artorik,
etzubela emango
aurrera pausorik.
“Ez? —esan zion—; ori
laster dek jakingo,
ik nai ez arren geran
edo ez gu joango;

lagunak ezтик bear
joateko artorik,
eta arto gabe joan
nai ez dekala ik?”
Segiran astoaren
soka kokotetik
lotu zion, ta joaz
astoa atzetik,
asi zuben biyakin
joan era berriya;
eta altxa ta etzan
kurrinkaz txerriya,
azturikan arto len
eskatzen zubena,
ferira iritxi zan
mazkaldurik dena.
*Mañosotxo diranak
lenaztik azitzen,
modu oetan dira
gero ikusitzen;
arbolak gaztetan zer
modutan dan jartzen,
gerora segi bide
ura du ekartzen.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Bi lapur

Kaja bat diru biyak
nonbait lapurtuta,
zeramatela zaldi
gañean artuta,
allegaturik gabaz
benta xar batean,
pentsatu zuten lotan
gelditzea bertan;
eta ala segiran
sarturik barrena,
lendabiziko egin
izan zuten lana
izan zan gordetzea
kaja ukulluban,
eta gero go biyak
jarri ziran lo an;
bañan onetarako,
andikan dirurik
etzeien lapurtu ta
ez ere zaldirik,
besoan trabaturik
batek erramala,
esan zuben egingo
zubela lo ala.
Ontan zirala gero,
gabaren erdiyan,

beste lagun trasteak
bere pikardiyen
kaja botarik asto
zar baten gañera,
bere arekin itzul
zan andik atera;
eta presaz pasarik
mendik eta mendik,
ustez urrutietan
zalakoan andik,
illunbetan emanik
goi be milla jira,
goizean arkitu zan
bentari begira.
Ordukoz oarturik
zana ukulluban,
lagun paltaz ta kajik
etzekarrela an,
segiruban igorik
an zuben zaldira,
irten zan presaz lagun
ondoren mendira;
eta besteak ura
ikusirik sarri,
eta galduba zala
zunean igarri,

kaja botata berak,
al zuben moduban,
bentaren ingurutik
eskapatu zuban.
*Gaiztoagandikan zer
liteke espero?*

*Oker bide geiago
ikustea gero;
txarraren lagunkidan
ez artu lanikan,
batek obe du jardun
berak bakarrikan.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Kirkirra, barakulloa eta birigarroa

Kirkirra belardiyen
anka bat autsita,
zegola ezin joanik
antsiyaz, etzinta,
eta gertaturikan
barakulloa an,
jiba gañean zuben
etxera eraman;
eta bildurik ere
zer jana ugari,
alegiña lagundu
zion eriyari.
Beste aldi batean
barakullo bera,
zan denboran pareta
zulotik atera,
birigarroak zuben
sasitik ikusi,
eta atxitu naian
zan denboran asi,

kirkir lengoa aruntz
egonik begira,
esan zuben: "Gabirau
zar bat agerika,
zeña daguen begira
emen ingurura".
Eta birigarroak
entzuteaz ura,
utzirik barakulloa
atxitu zubena,
larri joan zan zubela
biotzean pena.
*Onek erakusten du
zer egin iñori,
egin ura zaiola
jaikiko berari;
on egiñak ona du
bereganatutzen,
lenazko jarraierak
ez dira aztutzen.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Tximuba eta kamelluba

Tximuba bere ume
batekin penoso
zijoala bidean
nekaturik oso,
bere ura karraitu
ezin baitzubela,
eta ezin segitu
zezakela ala,
gertaturik kamellu
bat pasatzea an,
esan zion nai zuben
joan aren gañean;
eta bi aldiz esan
bañan len itz bera,
igo zitzaion bere
jibaren gañera;
ala an zan denboran
nai erara jarri,
kamellubak segitu
zion bideari.
Gisa artan egiñik
joan era aundiya,
eta bear tokiyan
ziranean iya,
bide dena pasarik
neke gabetanik,

kamellu onak esan
zien: "Tximuba, nik
orain joan bearra det
beste bidetikan,
eta jatxi bear
dezu gañetikan".
Eta asarraturik
orduban tximuba,
esan zion igoa
zeukala damuba;
jiboso tzar trakets
bat besterik etzala,
zori gaiztoan aren
gañera joan zala;
eta tximubagandik
alako paguba
artutzez, penaturik
joan zan kamelluba.
*Gizonak onraduba
bear badu izan,
ez du jarraitu bear
tximubaren gisan;
mespreziatzen duna
egiten dan ona,
izango da tximuba
eta ez gizona.*

Euskal-Erria, XXXVI, 1897.

Gizon bi

Gizon zuriz ederki
jantzi bat bidean
zijoala, beste bat
arrimaturik an,
eta biyak alkarri
beren itz bidea
emanik, pasa zuten
ongi txit bidea.
Gabaz benta batean
sarturikan biyak,
lotarako eskatu
baitzituzten oyak;
eta zuriz jantziya
ametsetan asi
zanean, zan bestea
aren soñez jantzi;
eta bere arropak
utzirikan bertan,
diru ta guzi itzul
mendira baitzan joan.
Artan esnaturikan
beste lo zegoana,
eta ezagaturik
egin zion lana,
segiruban jaiki ta,
soin arrek utziya

jantzirik, zan beraren
ondoren abiya;
artarako zakurra
ere baitzeraman,
eta ontaz nai zion
kastigu bat eman;
bañan nola gertatzen
baitzan illargiya,
eta zegoan kanpoa
biziyo argiya,
soin zuririk argitan
ikusitzen etzan,
eta lapurra uste
berean gorde zan,
esanaz: "Nekatu naiz
korrika bidean,
eta nagon itzala
onen itzalean;
ez naute ikusiko
illuntasun ontan,
geldi nindeke bada
bertan emen lotan".
Bañan, o!, non gordeko
zan illunbe artan.
soin zuri zeramana
an argitzen baitzan;

eta ala besteak
non zan nabaiturik,
eta beraganako
bidea arturik,
allegatu zanean
zakurra gañera,
botarik izan zuben
puskatzeko era.

*Onek erakusten du,
lapurrak argiyak
izan arren, ditula
galtzen illargiyak;
da esatea, ustez
naiz argiyak izan,
deskuidatzen dirala
tontoaren gisan.*

Euskal-Erria, XXXV, 1896.

Astoak eta gizona

Oso goiz asto pilla
batekin atera
etxetik gizona ta
merkatu batera
zijoala, arkitu
zan lan nekosoan,
astoak bidean nai
etzutelako joan;
eta arre bati ta
besteari arre,
bere pazientziya
zubelarik erre,
etzuben astoaren
pausorik arintzen,
eta zijoakiyon
denbora berantzen.
Ontan sinisturikan
merkatura ala
bear denborarako
bilduko etzala,
aza buru bat zion
astoetan bati
lotuta zintzillika
paratu atzeti;
eta besteak, aza
ain alde ikusi

zutenean, ziran jan
naian denak asi;
eta jabeak aza
zeramakinari
kolpeka erasorik
segi zeien ari,
aurrekoak korri ta
atzekoak segi,
biderik ezin egin
ziela alkarri,
zeñen denak nai zuten
jan aza gozoa,
ala arindurikan
astoen pausoa,
bear ordurako zan
iritxi erriyan,
bere asto ta guzi
plazaren erdiyan.
*Askotan ezin egin
dan lana indarrez,
buruba askatzeaz
egiten da errez;
ez beti eserita
egon portuna zai,
portunak ere bera
billatzea du nai.*

Euskal-Erria, XXXVI, 1897.

Otsoa eta azariya

Otsoa miñez gaizki gertatutzen zala, zulotikan kanpora irteten etzala, azariya nola zan jakiñikan ura, egun batez zitzaion joan bere zulora; eta otsoak bere oñaze ta guzi, zuben denboran lagun ura an ikusi, esan zion: “Ai, lagun, lagun, niok gaizki, eta ez niok iñork sendatuko noski; illabete bat badek nabillela miñez, nigandik oñazeak atera eziñez; eta gertoi ontatik libratu nadiyen, edo oñazepean urtu ez nadiyen, erregutu egiok jaungoiko denari, oñaze oek arren kendutzeko neri”.

“Ez ditek balioko nere errezoak —esan zion azari kaskar tranposoak—; ere denboran aiz i gaitz asko egiña, eta berakgatikan dek daukakan miña; maiz itukan ardiyak ik ito ta jaten, eta txekor ondoren ere intzan joaten”. “Ala dek —esan zion itz ari otsoak—; bañan neretzat aiek baziran gozoak, olloak ez itukan iretzako miñak, non oraindik dakikan dantzatzen agiñak; nere gai ber-berean arkitzen bait aiz i, emen gaizto igualak gertatzen gaituk bi”. “Bai, bañan —esan zion— i ez aiz erori kontura, gai iguala ez baitala ori:

ni gaztea izanik
i zarra aizela,
eta zartu bañan len
onduko naizela;
orain baliaturik
al dedan guziya,
pikardiz olloari
kendubaz biziya,
miñez jarri bañan len
onduko nauk oso,
eta ez niok gaitzak
atzituko preso”.
Eta ura esatez
bat gogorki miñak
eldurik, gaitz otsoak
zekarren samiñak,
asi zan marruaka
eskatzen zerura
arren kendu zeiola
ari min txar ura;
lagun bial zeiola
aingeru bat beren,
oñaze pean bertan
il etzedin arren”.

Eta non aingeruba
zitzaion sortuko,
eta gozotasunen
bat zuben artuko,
egan jatxi zitzaion
zezen bat aundiya,
adar bakoitza kana
bat zubena iya;
eta non oñazeak
zizkan aterako,
eta otsoa ere
zuben sendatuko,
lenaz txarrak izandu
ziraren piztiyak,
adarkazo banetan
il zituben biyak.
*Kontu oni begira
zerbait jar gaitezen,
azariyaren gisan
arki ez gaitezen;
gerorako ez utzi
ondutzeko lanak,
gerora iritxiko
ez gera ta danak.*

Euskal-Erria, XXXVI, 1897.

Aurra eta errañuba

Espillua iltzetik
zintzillik arkitzen
zala, ta zubelako
aizeak mugitzen,
eguzkiaren bidez
bere aurrean an
errañuba egiten
baitzuben lurrean.
Aurak ikusirikan
pitxi polit ura,
bera atxitutzea
zitzaion burura;
eta abiatu zan
arrapatu nayan,
bañan beti iristen
zan denboran iyan,
paratzen zionean
gañean eskuba,
ark jartzez bat itzul zan
joaten errañuba;
eta ernegaturik
segitzen berari,
bertan etzan ta eman
zion negarrari.
Ala arkitzen zala
gauza polit gabe,

eta jabetutzeko
esperantzik gabe,
negar ta negar malko
lodiyak emanaz,
damutuba alperrik
jardun zuben lanaz,
dantzatik gelditurik
kolpez espilluba,
eskura joan zitzaion
bere errañuba;
eta au ikusirik
mugitzen etzala,
eta sinisturikan
jabetu baitzala,
ezkutaturik malko
tarteko negarra,
begietara jaio
baizitzaion farra.
*Gizonari au bera
gertatzen baitzaio,
zori onaren billa
iñoiz milla saio
egin arren, iñondik
azaltzen etzaio,
eta gerogo kolpez
igual sortzen zaio.*

Euskal-Erria, XXXIX, 1898.

Zakurra eta katuba

Zakur batek aragi
puska lapurtuta,
jateko zeramala
ortzetan artuta,
aundiagoak zion
abotik atera,
eta gorde naian joan
zan zoko batera.
Au gertaturik katu
bat ume birekin,
azkabal zorrotzakin
zion onek ekin;

eta zarpazo batez
kendurik begiya,
joan zan zakurra laja
ta an aragiya.
*Ez nai danikan egin
mendekoarekin,
bestek ez dezan egin
lan bera berekin;
indarrez ez besteren
gauzen egin jabe,
zeren geldi liteken
bera ezer gabe.*

Euskal-Erria, XXXII, 1895.

Auntza eta oreña(1)

Mendi tarte egiten
zubela ibayak,
mendi egal banetan
bizi ziran biyak;
eta lagunik gabe
beti oso bakar
zutelako ikusten
auzo biyak alkar,
egun batez auntsari
oreñak otsegin
zion, esanaz: “Nuke
izango atsegin
zurekin pasatzea
eguntxo bat emen;
bada biyok nola gu
bakar beti gauden,
lagunkidan bildurik
emen alkargana,
pasako baikenuke
eguntxo bat ona”.
Eta ontzat arturik
auntsak ark esana,
bigaramon goizean
joan zan beragana.
Ala egun eder bat
pasaturik biyak,

azkenak emateko
denboran argiyak,
auntza asterakoan
andik lur berera,
esan zion: “Ai, onla
zu mendi nerera
joango baziñake bein
egun baterako,
zer eguna genuken
biyok an pasako!”
“Eta zergatikan ez
—segiran oreñak
esan zion— ni joan ez
ikustera gañak?”
“Zergatik ibaitxo bat
dagon or txit bean,
eta zu ezin pasa
zindezken urean;
ni pasa naiz saltoka
arritik arrira,
eta ala bearko
baitet ere jira;
bañan zuretzat oso
gaitza baita ori,
zu errez baitzindezke
urera erori”.

“Etzazula nekatu
ortaz bururikan
—erantzun zion—; ez det
nik ur beldurrikan;
zuk alako bi anakak
luze baditut nik,
eta urtan joango naiz
busti gabe tripik”.
Bañan bigaramona
zanean argitu,
zan biziro estura
aundiyan arkitu;

ibai goititurik
neurritatik goora,
itota ark eraman
zuben itsasora.
*Askok izan oi dute
anken pantesiya,
beretan balegoke
bezela guziya;
bañan ez arkitzeko
nekoso munduban,
azkartasuna bear
du izan buruban.*

Euskal-Erria, XXXII, 1895.

(1) *Ciervo*. (R. Artolaren oarra)

Zozoa, belea eta legoia

Zozoa ta belea
non bat ala biyak,
beren ustez izanik
kantari aundiyak,
eta jakiñik zala
legoi erregea
kantu onak aitzeaz
bizirot zalea,
bein gonbiratu zuten
bazkari batera,
artan izan zezaten
kantatzeko era;
eta ala nork beren
aldetikan lana
egin zuten moldatzen
arentzat zer jana.
Zozoak zizkan jankai
txitxareak jarri,
eta beleak berriz
ganadu ezur bi;
eta ikusirik ain
bazkari pobrea,
ez gustoz gelditurik
legoi erregea,
burla moduban onek
parrez zien esan,

bazkari eder ura
dijiritu zezan,
kantatu zezatela
kantu polit bana,
eta ongi ziela
sariztuko lana.
Artan lenen zozoa
zan asi kantari,
eta oso ederki
zalarikan ari,
txalorikan etzion
erregeak jotzen,
zeren txitxare janaz
zan nonbait oroitzen;
eta gero belea
zan denboran asi,
etzubelarik zozo
ark ainbeste grazi,
zeñak *koa koa koa* baizik
kantatzen etzuben,
erregeak txaloak
joaz esan zuben
ura zala onena
bi kantarietan,
eta beste pizti ta
animalietan

ere oberik zanik
uste etzubela,
bada alako gisan
kantatu zubela.
Eta errabiz edo
errabirik gabe,
egiñikan legoia
belearen jabe,
maitatutzen zitzaion
igortziyaz asi,
egin balio gisan
kantuz zenbait grazi,
eta uste gabean
edo naita ala,

lepoan estaturik
geitxo azkazala,
kulpa asko duben bat
urkatzen dan gisan,
bere azkazalpean
itoa izan zan.
*Onek erakusten du
kontu aundiz jakin
bear dala ibiltzen
animaliyakin;
bi ankekoak asko
dirala gurekin,
eta ez jostatzeke
nolanai berakin.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Ariya eta otsoa

Ariya jaten ari
zala belardiyen,
arbolari lotuba
zegoala mendiyen,
otsoak ikusirik
ala, apartera,
esan zuben beregan:
“Oraintxen det era
jankai oso guriyaz
egiteko jabe,
bada ariya dago
libertade gabe”.
Eta arrimaturik
bere ondorañon,
sokak luze guziya
zuben tokirañon,
aurretxo sartuta jo
ta bota etzezan,
edo apartetikan
engañatu zezan,
zankoren bat ozkazoz
autsita galtzeko,
eto gero gozoro
itota jateko,
esan zion: “Egun on,
nai naiz sendagiña,

nai nukena sendatu
zuk daukazun miña;
bada esan dirate
ongi etzaudela,
egun eta gau tripa-
ko miñez zaudela”.
Bañan ariyak ura
nor zan jakiñikan,
eta etzeramala
naiera onikan,
abiyaduran salto
batez eten soka,
eta gogor otsoa
kopetean jota,
botarikan bueltaka
korderikan gabe,
egin zan libertade
berearen jabe.
*Ontaz kontura zerbait
erortzen bagera,
azkar askori zaie
gertatzen au bera:
ustez daukatenean
baliatze era,
tiroa kuletratik
oi zaie atera.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Otsoa eta azeriya

Gaiztakerietako
alkaturik biyak,
asi ziran lapurtzen
bildotx ta ardiyak;
sinistpendurik oek,
atxiturik aisa,
partituko zutela
erdibana eiza;
eta ala bein bildotx
baten atzetikan
zebiltzala, atxitu
nai ta eziñikan,
gertatu zan otsoa
sartzea lazoan,
eta nola libratu
ezin zan zedin joan,
deika asi zitzaion
bere lagunari,
esanaz ken zeiola
lazo ura ari;
bañan besteak nola
lagunduko zion,
bildotxari segitu
naiago baitzion,
non-nai baitzuben berak
beretzat lapurtu,

gero bakarrik zezan
ere tripan sartu.
Alaz ere erantzun
zion otsoari,
esanaz ez ixilka
deitutzeko ari;
gorreriya zeukala
belarri biyetan,
eta ez jardutzeko
ala berriketan;
ojuz ager zeiola
zer nai zion esan,
klaro deitu ta zerbait
entenditu zezan;
eta ojuka asi
zanean otsoa,
bildotxen jabe zala
azeri paltsoa,
ojuaz jaiki ziran
artzaiak kontura,
etzala pertsonaren
itz doñuba ura;
eta ala joanikan
ikustera zer zan,
otsoa preso zuten
billatu lazoan;

eta non libratuko
zuten lazotikan,
arrika ta makilka
puskatu zuten an.
Gaiztoak badakite
iñoiz alkar artzen,

bañan bai ere utsa-
gatik alkar galtzen;
argatik nola berak
baitiran trapubak,
gaizki irteten zaizte
trapuzko kontubak.

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Uso eder bat eta ontza

Ontza gelditurikan
arbol gain batean,
lenaz uso ederra
zegon adarrean,
eta onek an ura
zunean ikusi,
zitzaion burlaz parra
egin naian asi,
esanaz: “Zer zera zu
orren itsusuya?
Zomorro zatarren bat
edo egaztiya?
Moko oker orrekin
orren satitxuba,
alderoka iruri
zenduben itxuba;
itxura txarrekoak
dituzu begiyak,
katu zar bat diruri
zure arpegiyak;
iruri dezu ere
zapi zar puztuba,
edo zaudela koltxoi
batean sartuba”.
“Ez dezu zer geiago
erantzunik neri?

—esan zion besteak
burloso zanari—.
Nik orrenbeste palta
badauzkat nerekin,
zuk ere zerbait izan
zentzake zerekin;
egiya da zaudela
eder ta guriya,
izango baidizula
askok inbiriya;
bañan zuk ere izan
naiz zere graziyak,
ez dituzu izango
bentaja guziyak”.
Eta artan eiztari
batek usoari
emanik dardazo(1) bat
zan illik erori;
eta itxumenean
ontzak, itzul joanik,
esan zuben: “Naiago
det zatar bizi nik,
zeren ederra izan
banitz orren gisan,
agiyan garai ontan
biziko ez nintzan”.

*Ederrak iruki naiz
oparo graziyak,
ez dituzte izaten
bentaja guziyak;*

*mespreziorikan ez
zatarrari egin,
bera lurpegokora
erori ez dedin.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

(1) *Flecha*. (R. Artolaren oarra. Bañan *flechazo* bearko lukela uste degu.)

Nekazariya

Zelaiak laborea
ona ta ugari
ziolarik ematen
nekazariari,
ase eziñik arrek
ematen zionaz,
geiagoren naikeraz
bizitzen zan penaz;
eta bein an sagasti
bat zuben aldatu,
laboreaz gañera
fruta zezan artu;
bañan arbolak gora
zijoazen gisan,
zelaia laborea
ukatzen asi zan,
zeren arbolak zien
indarra berari;
ateratzen, itzala
emanaz lurrari;
ala nekazariya
penaz zan arkitzen,

len ainbeste labore
etzulako biltzen;
bañan arbolak lorez
jantzi ziranean,
poztu zan nekazari
jarduna lanean,
izango zubelako
aboztu obia;
bañan denbora txarrak
galdurik loria,
laborea erdiya
ozta jaso zuben,
eta sagarrik ale
bat izan etzuben.
*Zumu dena gauzari
kendutzen bazaio,
zer geiago berari
aterako zaio?*
*Bere neurri on batez
asetzen eztanak,
emango dizka bere
burubari lanak.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

Anka baldarra eta errena

Anka bat nola Josek
baldarra baitzuben,
eta ibilkaiera
ona txit etzuben,
oso penaturikan
arkitutzen zala,
esanaz pozik iñon
arentzat etzala,
errena zuben bere
ondoan ikusi,
zijoala txit baldar
kojoka itsusi;
eta arriturikan
ikustean ura,
zitzaion gauza berri
bat jaio burura;

esan zuben: "Ez naiz ni,
ez, orren zatarra;
orri bai egin bear
diotela farra;
eta ala tinkatzez(1)
anka arrenean,
poz bat sentitu zuben
bere barrenean.
*Supritzen dubenari
poz bat sortzen zaio,
gaizkiago danen bat
azaltzen bazaio;
penatubagokoa
ikustean beste,
nork bere penik ez du
sentitzen ainbeste.*

(1) *Fjar*. (R. Artolaren oarra)

Erlojua eta gizona

Gizona sasoiean
aurrera zanean,
iya ezertarako
gauza etzanean,
gelditu zan etxean
ibilli eziñik,
etzekarrelarikan
gaitzik edo miñik;
bañan erleju bat an
zintzillik egonik,
ark etzion egiten
nonbait ere onik;
ikusirik ordubak
lasterka pasatzen,
ikusten zuben ere
zijoala zartzen;
eta ura zan beti
senti zuben miña:
denboraren joanera
gelditu eziña;
eta bein erlejuba
atzeratu zezan,

edo ala lasterka
ikusi etzezan,
nolabait altxarikan
zegon sillatikan,
eta bere gañera
igo ta andikan
zala bere naieran
zirikaka ari,
silla ta guzi goitik
beera zan erori;
eta kordea joan ta
gelditurik bera,
denborak zuzen zuben
segitu aurrera.
*Erlejuba gelditzen
biziरो errez da,
bañan denborarikan
gelditutzen ez da;
au joaten da aurrera
ta beti aurrera,
ezin segituz oni
gu gelditzen gera.*

Euskal-Erria, XXXV, 1896.

Ardoa eta ura

Ardoari gizonak
bota zion ura,
ez igotzeagatik
zumua burura;
eta ontaz ardoa
nola baitzan erre,
esan zion urari
jarririk aserre:
“Zein aiz i nere tripan
orrela sartzeko?
Zein i ni naguen malla
goituban jartzeko?
Ik ez dek kolorerik,
ez ere indarrik,
eta gusto on gozo
nerea non dek ik?
Irten ari kanpora,
ua emendikan,
ez diat nik zañetan
ire bearrikan;
neronek diat iñork
ez ainbeste indar,
gizonik gogorrena
jartzen diat dardar;
nik diat jartzen triste
daguana kantari,

errena nerekin dek
gertatzen dantzari;
ni eratez aspertzen
ez dek bein gizona,
orretan ezagun dek
naizela txit ona;
eta izanikan i
berriz orren utsa,
uste det bietala
nik ire laguntza?”
Eta oek aitzeaz
sentiturik lotsa,
negarrez gelditu zan
uraren biotza.
Bañan allegatu zan
denbora berriya,
zeñen sentitu zuten
lurrak egarriya,
eta ikusi ziran
mastiyak auldutzen,
zañetan zekaizkiten
indarrak galdutzen;
eta, penaturikan,
erreguz zerura
jarri ziran guziyak
emateko ura;

bada ez jaikitze
denbora urrean,
txoil igartuta denak
zirala lurrean;
bañan erregu aiek
ez aiturik goiak,
etziran lertzen ura
zeukaten odoiak;
eta artaz pozturik
biotz urarena,
esan zuen: “Ni ere
naiz Jainkoarena;

kontatu banau ere
ardoak ni ustzat,
ardogaiak artuko
ninduke beretzat”.
*Jaunak egiñak gera
aundi-txikik, denak,
izan gaitean beti
lagun besterenak
mundu ontan guziok
gerare errenak,
eta gorde ditzagun
falta alkarrenak.*

Euskal-Erria, XXXVI, 1897.

Astoa

Nekerik gabe bizi
zalarikan lasa,
janaz noiznai artoa
eta noiz nai aza,
buruba zubelako
oso kalabaza,
ara zer pentsamentu
oi zituben pasa.

Esaten zuben: “Ongi
naizelarik bizi,
beti naiz serbitzari,
iñoiz ez nagusi;
alaz ere astoa
izate ta guzi,
nai nuke nere mende
beste nik ikusi”.

Ondoegi izatez
bizi zan finduba,
aundi naiez buruba
zeukan arinduba;
eta beragatikan
biotza minduba,
falta zitziolako
nori aginduba.

Arre esan ta nola
joan bear baitzuben,
eta gelditu iso
entzuten bazuben,
eta nori agindu
nola ark etzuben,
pena ura barrenen
sentitutzen zuben.

Ontan bein eguzki txit
ederra zegoala,
ikusi zuben bere
erreñu itzala;
eta nabaiturikan
mugitzen baitzala,
iruritu zitzaion
asto beltz bat zala.

Arri esan ta zion
berari segitzen,
iso esanik biyak
baitziran gelditzen;
eta nola zan berdin
berekin ibiltzen,
esan zuben: “Ongi dit
onek oberitzen”.

Ontaz oso pozturik
arkitutzen zala,
bere mendekoz baizik
oroitzen etzala,
eguzkia gorde ta
gorderik itzala,
sinistu zuben bere
laguna il zala.

*Astoak zentzurikan
etzuben buruban,
eta engañatu zan
bere erreñuban;
gu ere asko gera
astuen moduban,
engañuz ornitubak
gaudenak munduban.*

Euskal-Erria, XXXI, 1897.

Arranoa eta belea

*(Donekidatuba Indalezio Bizkarrondo (Bilintx)
biursariari bizi zan denboran,
eta argitaratugabea.)*

Zure bertso ederraz
oroitzen naiz maiz-maiz,
irakurtzez beñere
aspertu ezin naiz.
zuk dakizu egiten
bertso onak errez,
parerik ez dutenak
graziya ederrez.
Zu erregatzen zaitu
doaeizko intzak,
zerutik jaisten dira
zuregana itzak.
Guretzat etzan sortu
onelako ditzik,
dauzkagu graziyaren
ate danak itxik.
Zenbaitek esango du:
“Zer da bada ura?
Zer gauza polit zaizka
jaiotzen burura?
Itz batzubek apaintzen
ikasiya dala,
zer milagroa itzak
apaintzea ala!...
Lan au egin lezake
noiznai edozeñek;

ez naiz bertsolariya,
eta nik neronek”.
Orduban, erozeñek
balezake egin,
itz neurtubetan biet
nik ere itzegin.
Bañan onetarako
nerien modelen,
zuriak artzen ditut,
Bilintx, esan det len.
Aurkez nazkitzu zure
lira ta graziya,
galaz kanta dezadan
nere poesiya,
zeñetan azaldu nai
ditudan belea,
arranoa, ariya
eta arkumea;
bada itz bide ontan
zuzen nadin sartu,
lenengo arranoa
biet aotaratu.
Arrano arrapari
ega luzedun bat,
laño petik zeletan
zeguena anbat,

illunabar batean,
aiziaren gixan,
goi-goitik mendiyaren
gañera jatxi zan,
eta arkume batez
egiñikan jabe,
zarpazo biyan laja
zuben korde gabe.
Beleak ikusirik
zer lan egin zuben,
pentsamentuban egon
gabe, esan zuben:
“Zer! Nik ere beste bat
ill nezake ala;
ez da gaitza egiten
lan arren iguala”.
Au esan da atxi zan
ari batengana,
bañan nola zekarren
oparua lana,
gelditu zan bi zarpak
trabaturik oso,
txoriya bizkan nola
gisa artan preso.
Ariyaren jabea
ontaz oroiturik,
eta beste lau artzai
gazteri deiturik,
bostak joan ziran bele
itsatsiyagana,
eta lendabiziko
kolpaturik dana,
ego biyak moztuta
oso parragarri,

laja zuten bestien
eskarmentagarri.
Burla, mespreziyoak
ditu mereziyak
txiki aunditzat pasa
nai duben guziyak.
Arranoa izanik,
indartsu azkarra,
au idurizkatzen zan
asi bele zarra;
eta zer zan atera
zubena beretzat?
Burla, eta leziyo
eder bat guretzat.
*Bertso egille motxak
obea genduke
ejenplo au gordeko
baldin bagenduke,
esanaz, desengañuz
beterik nola nik:*
“*Bilintx, ez du egiten
bestek zure lanik;
ala zaude poesi
galaiaren jabe,
zu zera arranoa
disputarik gabe.
Zuretzat izan bitez
lorerik onenak,
erramuz egindako
koroï eder denak,
eta ni, aizkenengo
bertso egillea,
ez nadiyela izan
kontuko belea.*

Euskal-Erria, VI, 1882.

Azariya eta arkakusoak

Azariya jatxirik
zerbait jankai billa,
ur eskiñan topatu
zuben ardi illa;
eta au arkakusoz
egonik josiya,
oartzerako bera
bete zan guziya;
bada zoramenean
zan denboran asi,
ezin egiñik pizti
txarrari igasi,
esan zien onean
erregu moduban:
obe zutela sarri
arengandikan joan,
bestela ziradela
ibilliko gaizki,
etzala an nai zana
egitea aski,
ark otso batengana
bear zubela joan,
eta gertatzen bazan
kilimakoka an,
gai zala bizirikan
larruba kentzeko,

eta arkakuso ta
guzi erretzeko.
Bañan pizti txar aiek
emanik parrari,
burlaz esan zioten
azari zarrari:
aren esan guziyak
jolasak zirala,
eta arengandikan
joango etzirala.
Orduban jarririkan
berriro pentsatzen,
ezin somaturik
egin ernegatzen,
bere itxumenean
joanikan putzura,
isatsarekin asi
zan ikutzen ura;
eta gero bustirik
atzeki guziya,
gerrirañon zanean
sartu urtan iya,
arkakusoak alde
ikusteaz ura,
igasi denak igo
zitzaizkan burura;

bañan gero buruba
sarturikan bertan,
ito zituben pizti
txar guziyak urtan.
*Onek erakusten du
ez baitala ona,*

*geiegi tentatzea
aserre dagona;
bada miñ dubenari
eman ezkeroz miñ,
ark gero zernai gauza
lezakela egiñ.*

Euskal-Erria, XXI, 1889.

Fortuna eta deserakida edo diskordiya

Bi pobrek atea jo
zien fortunari,
zerbait laguntza egin
zeikien berari;
eta goiko leiotik
diskordiak ala
esan zien fortuna
etxian etzala;
bañan bera izanik
ondasunen jabe,
etzituala utziko
ezer eman gabwe:
eta urrezko sagar
eder bat gañera
bota zien berari,
ar zezaten bera.
Batek atxiturikan
lurra jo baño len,
esan zuben: "Jabe ni
naiz emen frutaren".
Eta bestia gora
begira zegoala,
noiz baño noiz beste bat
sortuko zan ala,
eta ikusirikan
etzala azaltzen,

eta leioan zana
barrenera sartzen,
esan zion aserrez
bere lagunari
sagarraran erdiya
emateko ari.
Besteak ez arturik
eskaera ontzat,
esan zion etzala
sagarra bientzat,
eta artatik gogor
eldurik alkarrri,
borrokako gaiean
ziranean jarri,
ikusirik gizon bat
beretatik alde,
gizon berari biyak
egin zien galde,
ia arrazoia an
biyetan nork zuben,
eta gizonak nola
naskera nai zuben,
esan zien arrazoi
an biyak zutela,
batak ainbat besteak
ere bazubela.

Eta artaz berriro
eldurik alkarri,
eta gogor borroka
ziranean jarri,
erori zitzaioten
beren sagar ona,
eta ura jaso ta
gorderik gizona,
arkitu ziran gero
alkar puskatuta,

eta zuten urrezko
sagarra galduta.
*Onek erakusten du
ez-baiak zer diran,
oetatik zer lanak
etxeratzen diran;
gelditu litezkenak
beren gauzen jabe,
arki litezkeala
gero ezer gabe.*

Euskal-Erria, XXVII, 1892.

Txerriya eta bere bi umeak

Txerriya nekoso ta
nai ainbat jan gabe
bizi zala, egiñik
ongarriyen jabe,
esan zuban: “Badet gaur
nik zerekin bizi,
eta umeak bear
ditut ongi azi;
bada aurrera txukun
atera ditezen,
edo berriz loitara
jira ez ditezen,
egingo ditzet jantzi
sedazko berriyak”.
Eta ala zituben
apaingarri biyak,
esanaz: Orra garbi
ta apain nik jarri,
eta ez gero loirik
etxera ekarri;
orain arte bezela
ezta bear izan,
ez putzutun ibildu
txoro txarren gisan”.

Bañan gero umeak
ikusirik bera,
ezin zala loitatik
beñere atera,
zilipurdika beti
an zala ibiltzen,
ur zuloetan ziran
zikin denak biltzen,
esan zuten: “Ona dan
gauza amarentzat,
ez baita ere txarra
izango guretzat”.
Eta ura esatez,
bera an begira
zegoala, sartu ziran
loiaren erdira.
*Nai bada ikastea
erakusten dana,
nork berak egin beza
esaten dan lana,
esana ta egiña
ere iñoiz diña
eztira ta kentzeko
bati bere griña.*

Euskal-Erria, XXX, 1894.

Astoa eta katamotza(1)

Astoa jakitera
allegaturikan,
bezperan nola leoi
erregea il zan,
toki berera joanta
larruba kendurik,
irten zan bere ura
jantzizat arturik,
esanaz: "Ni naiz seme
erregearena,
nere eskuban dago
aginte arena".
Eta ala, ur ondo
batean pasatzen
zala, nabaiturikan
igelak kantatzen,
esan zuben: "Nola ni
errege berriya
naizen, ditet egiten
ongi etorriya".
Eta ura esanaz
pozez eta gozo
zanean beretara
arrimatu oso,
ikusi zuben aiek,
ikusteaz bera,

buruz be joan ziral
denak uretara;
eta loi pean oso
ezkutaturikan,
etzala nabaitutzen
geiago kantikan.
Orduban asarrezko
oju bat aundiya
egin zien esanaz
gañera mendiya
irauliko ziela
an lertu zitezen,
edo geiago andik
irten etzitezen.
Katamotzak aiturik
oju aundi ura,
esan zuben beregan:
"Astoa da ura".
Eta jatxirik sarri
menditikan beera,
eta arkiturikan
ur eskiñan bera,
esan zion, agur bat
lenen egiñikan,
belarrira joan eta
ixil-ixilikan:

“Zu al zera errege
egonduba miñez?”
Zeñek erantzun zion:
“Ez jauna, ez, ni ez;
ura il zan ta ni naiz
seme berarena,
eta orain artu det
aginte arena”.
“Ongi da —esan zion—;
poz aundi bat artzen
det, danean errege
gazte on bat jartzen;
bañan ia goimallak
azaldu ditzazu,
egiyazko errege
baldin bazera zu;
ia ken zazu jantzi
eder gañekoa,

ikusteko barrengo
zure soñekoa”.
Eta kendu eraiñik
gañeko jantziya,
astoa gertatu zan
leoi erantziya.
Orduban katamotzak
itsasirik ortzak,
atera zizkan bere
zintzurreko otzak.
*Txikiyak egin beza
bera dan papera,
ez nolana neurritik
kanpora atera;
sei kanako atorran
asten danak sartzen,
esturan maiz du bere
izaera jartzen.*

Euskal-Erria, XXXIV, 1896.

(1) *Tigre*. (R. Artolaren oarra)

Gitarraren lokarria

Gitarraren lokarri
mea zan kejatzen
zipoztxoak(1) estutxo
zubelako artzen;
eta esaten zion
tristuraz berari:
“Zertan beti tiraka
ari zera neri?
Jakiñikan geiegi
bainazula mintzen,
ez al zaitu nere me
txar onek kupitzen?
Ez dit egiten neke
geiegiak onik,
bada *zart* sarri bear
det onla egin nik;
arren bada pixka bat
lasaitu nazazu,
eta soñu ohea
entzungo bainazu”.

Bañan nola pixka bat
zuben lasaituko,
eta gozoago zan
soñuba aituko,
aren erregu onak
ez entzunik gorrak,
biotzikan gabeko
zipoztxo gogorrak,
berriz estutzeari
ez baitzion utzi,
eta zer gertatu zan?
Lokarriya autsi.
*Munduko gitarran da
au bera gertatzen,
lokarri miak estu
diranean artzen;
eteteko zorian
baitirare jartzen,
eta etenak ez du
lan onik ekartzen.*

Euskal-Erria, XXXIX, 1898.

(1) *Clavija*. (R. Artolaren oarra)

Erriotxoa bere bidean⁽¹⁾

Azalkaia: *Gizadiaren bizitza.*

Askaturik arkaitz txintxur
batean erriotxoa,
dijoa bidean *txur txur*
txirrist egiñaz gaixoa.

Seaska jaiotokia
izandu zuben mendiyan,
eta bear du obiya⁽²⁾
izan itsaso aundiyan.

Bere joanera luzean
zenbait suerte trukatu
igarorik, bear du an
bizi tristea bukatu.

Jotzen du mendiskaz bea,
kemenak zaizka eskasten,
joan bidea du obea,
bañan geldigo da asten.

An eten, emen jo koska,
salta, joan, asi, gelditu,
bideak biurrak dauzka
nai arren zuzen segitu.

Atariko idi ta beiak
jatxirik bere lurrera,
ankaz mugiturik loiak
zikin uzten dute bera.

Eta dijoa igesi
kristal len zana argiya,
berriz nairik erakutsi
bere kopeta garbiya.

Bat-batez emanik jira
mendi baten egalari,
kentzen da andik erdira
itzul egiñaz berari.

Zeñetan pozturik oso
abiatzen dan lasaitzen,
bañan uste gabe preso
du bere buruba jartzen.

Allegatzen da esturan
errota zartxo batera,
gero zilipurturik an
dediyen gaizki atera.

Triskillatuba guztiya
kentzen da indarrak illik,
ari batetik biziya
daramalako zintzillik.

Malko lodiyak emanaz
dijoa irtena gaizki,
biotza darama penaz,
nora dijoan eztaki.

Ala du erraz txirristen
alderdi labañetara,
non segiruban dan jaisten
leku pintatubetara.

Ala asten da trebesten
arboldei ostoz jantziyak,
nola estropozka jotzen
suge-leku ta sasiyak.

Non segiruban gordetzen
dan mendi biren tartean,
ikusi dedin erortzen
gero arkaizte batean.

An betaz betaz azaltzen
zaiola toki alaiia,
ostoz ta lorez estaltzen
dan leku oso galaiia,

Segitzen dubela pauso
neke gabeko eztiyan,
preskuran usai gozozko
estaliyaren azpiyan.

Bañan bezturik odoiak
turmoi turrumbak aitutzen
badira, etenik goiak
urak bea dute jotzen.

Eta orduban loditzen
asirik erriotxoa,
denboraz ezta kabitzen
bere tokiyan gaixoa.

Eta alde denak joaz
ezin jarraituz ur lodik,
pasatutzen du itoaz
ibarretako artadik.

Segitzen dubela ala
bere bidean joan ta joan,
urruti ikusten dala
lasterka nola dijoan.

Bañan lasterka nola joan
ala ibiltze geldiyan,
obiratzen da gero an
itsaso zabal aundiyan.

Erriotxo ur argiya
ekaiztez dalako loitzen,
nork daki diña garbiya
dan gero itsasoratzen?

*Gizadia da au bera,
alkarren baidute antza:
erriotxoak gu gera,
ura da gure ekantza.(3)*

*Ai, zer lezio aundiyak
onetaz jaso gintzaken!
Ai zeñek urak garbiyak
itsasoratu litzaken!*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1895.*

(1) *Composición señalada con Premio Extraordinario.* (R. Artolaren oarra.)

(2) *Sepultura.* (Id.)

(3) *Imagen.* (Id.)

Liburu saltzalle bat eta tximubak

Gizon au neke aundiz
igorik mendiyán,
lo gelditu zan arbol-
dei baten erdiyan;
eta tximu tokiya
nola baitzan bera,
sarri ziran batzubek
argira atera.

Ontan pizti txar aiek
nairikan jolastu,
zituben liburubak
ziozkaten ostu,
eta batek tirarik
zerbait arpegira,
denak ziran arbola
gañetara jira.
Segiran esnaturik
lotatik gizona,
ikusi zuben egin
zioten lan ona,
eta zerbait denboran
pentsatzen egonik,
esan zioten: "Jaunak,
poz bat senti det nik
zuek gaur ikustez
liburuen jabe;
gaizki zeundezten oso
len liburu gabe.

Gu oiekgatik gera
denak ondo bizi,
beretan degulako
bizitzen ikasi;
bada gaurdandik zuek
ere gure gisan,
zori onez beteak
biezute izan;
eta poz ontaz denok
ar zagun atsegiñ,
biba bat bear degu
guztiyok otsegiñ".
"*Biba!*" otsegin zuten
guziyak batean;
eta gizonak "*Biba!*"
deitu zubenean,
aidean bota zuben
buruko boneta,
eta tximuk zituzten
liburubak bota.
*Tximuk ztralarikan
ustez jakintsunak,
engañatu izan du
zituben gizonak;
gu ere tonto, ustez
zerbait dakigunak,
prankotan engañatzen
gaituzte itz onak.*

*Euskal-Festak Donostian /
Oroimengarria, 1895.*

Adierazgarria(1)

Arranoa, subea eta miruba	7
Gizona eta arkakusoa	9
Arana eta intxaurra	11
Errioa eta erreka ziztorra	12
Zezena eta subea	13
Artalde bateko bi ardi	14
Errioko arrantzalea	15
Bi errekatxoak	16
Artzaia	17
Otsoa eta zakurra	18
Auntzak	19
Azariya, olloak eta txerriya	20
Astoa eta otsoa	21
Otsoa eta akerra	23
Tximuba dantzarako sala aundiyan	25
Asto zuriya eta asto beltza	26
Beorra eta otsoa	28
Kirkirrak eta igelak	29
Bi zakurrak	30
Katuba eta txakurra	31
Azariya eta olloak	32

Astoa	33
Ur olloa eta igela	34
Azeriya eta trikuba	35
Artza eta lapurrak	36
Kamelluba	38
Tximuba eta astoa	41
Akerra eta otsoa	42
Tximuba, azeriya eta otsoa	43
Artza eta otsoa	45
Tximuak	47
Arbola eta arrosa	48
Bi katu eta mika	49
Erbi ama-umeak	50
Kurrilloak eta olloak	52
Bi nekazariyak eta aitzurrak	54
Tximuba eta farola	56
Suba eta tupiya	57
Arbola bat	58
Azeriya eta buzoka	59
Dama eta osiña	61
Paziya eta eltzea	62
Bi euli eta armiarma	63
Bi karnaba	65
Azeriya eta artzaia	67
Gizonak eta aitzurrak	69
Zezena eta astoa	71
Tximuba	72
Dama eta loreak	73
Arbola bi	74
Iru auntz eta otsoa	76
Bi zakurrak	77
Antxeta, olagarroa eta igaraba	78

Eskalubak eta txalburubak	79
Asto belarri bakarra	80
Artzaia eta otsoak	81
Erbiñude ama-umeak	82
Gizon portunosoak	83
Gizon ernegatuba	85
Gizon txarrak eta zakur ona	87
Arbola baten adar bi	88
Otsoaren ametsak	90
Ollak eta azariya	92
Igelak eta arbola ostiak	94
Bi tximu eta astoa	95
Zakurra eta ganadu estea	96
Astoa eta artza	97
Pluma eta tinta	99
Astak	100
Astoa eta txerriya	101
Sagubak eta katuba	103
Igaraba eta azari zarra	105
Jueza eta euliya	106
Aitzurra eta pala	107
Zakurra eta basurdea	109
Egurkiña eta astoa	110
Fortuna gordea	111
Otsoa eta zakurra	113
Erbiyak, konejubak eta beste piztiyak	115
Konejuba eta erbiñudea	117
Astoa eta otsoa	118
Gaztañak eta intxaurrak	120
Gizon galgirotia	121
Astoa, txerriya eta beren jabea	123
Bi lapur	124

Kirkirra, barakulloa eta birigarroa	126
Tximuba eta kamelluba	127
Gizon bi	128
Astoak eta gizona	130
Otsoa eta azariya	131
Aurra eta errañuba	133
Zakurra eta katuba	134
Auntza eta oreña	135
Zozoa, belea eta legoia	137
Ariya eta otsoa	139
Otsoa eta azeriya	140
Uso eder bat eta ontza	142
Nekazariya	144
Anka baldarra eta errena	145
Erlojua eta gizona	146
Ardoa eta ura	147
Astoa	149
Arranoa eta belea	151
Azariya eta arkakusoak	153
Fortuna eta deserakida edo diskordiya	155
Txerriya eta bere bi umeak	157
Astoa eta katamotza	158
Gitarraren lokarria	160
Erriotxo bere bidean	161
Liburu saltzalle bat eta tximubak	165

(1) *Arkibidea* esan bearrean, *adierazgarria* itza artu zuan Ramon Artolak, bere ipuien zerrenda egiterakoan. Itz ori onartu egin bear zala derizkiogu.



1051542

G-128/85 - II



Ramon Artola

Ramon Artola Larrañaga (1831-1906), Tolosan jaio eta Donostian bizi izan zan bertso jartzaille egoki eta oparoa degu.

Aren bertsoetan, gaur irakurleari eskeintzen dizkiogun auek toki berezia eskatzen dute. Ipuiak baitira, erderazko *fabulak* alegia, garai artan oso modan zebillen literatur jeneroa.

Baiña Artolak, beste askok egin etzuten, berak somatuak ditu, bertso jantziera ez-czik, ipui geien-geienen gaiak eta argumentuak ere. Ala, ipui bilduma au aren izena gure goimaillako ipui egilleen zerrendan idaztera dator.



Donostiako Euskararen
Udal Patronatuaren
laguntzarekin argitaratua



Euskaraz Bizi

ISBN 84-89080-19-4



9 788489 080195